

## XEDAPEN OROKORRAK

### INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 1800

*29/2016 DEKRETUA, otsailaren 23koa, zeinen bidez onartzen baita Zirkulazio eta Seinale Arautegia Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko eta «Red Ferroviaria Vasca / Euskal Trenbide Sarea» erakunde publikoaren ardurapean utzitako trenbide-azpiegiturentzat.*

Euskal Herriko Autonomia Estutuaren –abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua– 10.32 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari eman zion eskumen eksklusiboa trenbideen arloan, EEren 148.1.5 artikuluekin bat etorriz; azken artikulua horren arabera, autonomia-erkidegoen eskumenekoak dira «ibilbide osoa autonomia-erkidego horretan egiten duten trenbideak eta errepideak, eta, horrela, garraio bide horien bidez edo kable bidez garatutako garraioa». Aipatu autonomia estatutu horren bigarren xedapen iragankorrenekin bat, behin betiko transferitu ziren autonomiaren aurreko aldian jada eskualdatutako eskumenak eta baliabideak, abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuarekin bat, eta, gero, ekainaren 19ko 1446/81 Errege Dekretua eman zen, lurreko garraioen arloko Estatuko zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.

Maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren bidez –azken aldiz martxoaren 20ko 48/2007 Dekretuaren bidez aldatua– sortu zen «Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.» sozietate publikoa, eta onartu ziren haren estatutuak. Aipatu dekretuaren 3. artikuluan xedatuaren arabera, erakunde horren helburu nagusia da trenbide-garraioko zerbitzuak ematea, bidaiariarenak nahiz salgaiarenak, barne hartuz material ibiltarien mantentzea eta bestelako zerbitzu edo jarduera osagarriak edo trenbide-garraioarekin zerikusia dutenak.

Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2001ko irailaren 19ko Aginduaren bidez, eta Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. sozietate publikoaren proposamenez onartu zen Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos erakundearen Zirkulazio eta Seinale Arautegia, eta arautegi hori trenbideko garraio-lineei aplikatzekoa da, zeinen ustiaketa "Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. sozietatearen ardurapean utzia baita, baita horien etorkizuneko zabaltze oro ere. Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 264.1 eta 279.1 artikuluetan xedatua betez onartu zen arautegi hori, eta 1996ko abenduaren 24ko Aginduaren bidez aurretik onartutako eta Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 1999ko apirilaren 13ko Aginduaren bidez aldatutako arautegia ordezkatu zuen.

Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen bidez sortu zen «Red Ferroviaria Vasca / Euskal Trenbide Sarea» eskubide pribatuko erakunde publikoa, eta haren helburu nagusia da Eusko Jaurlaritzak agindutako trenbide-garraioko azpiegitura berriak eraiki, zaindu, kudeatu eta administratzea, besteak beste, baita Jaurlaritzak esleitzen dizkion eta lehendik badauden trenbide-garraioko azpiegiturak zaindu, kudeatu eta administratzea ere. Helburu hori betetzeko, erakunde horri dagozkio 6/2004 Legearen 6. artikuluan zehazten diren egitekoak, horien artean, trenbide-azpiegiturak administratzea, zeinetan barne hartzen baita dagokion kanona kobratuz ustiatzea trenbide-azpiegiturak, horiek mantentzea eta segurtasun-sistemak eta trafikoaren erregulazioa kudeatzea.

2016ko maiatzaren 2a, astelehena

Zirkulazio eta seinale arautegia onartu zenetik denbora asko iragan da, eta trenbide-ustiaketari eragiten dioten egoera berriak sortu dira, beraz, arautegi hori berriz berrikusi eta arautu behar da, eta, horretarako, arautegi berri bat onartu, zeinak ordezkaturako baitu Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2001eko irailaren 19ko Aginduaren bidez onartu arautegia, hori guztia «Red Ferroviaria Vasca / Euskal Trenbide Sarea» erakunde publikoaren proposamenez, eta, 2015eko martxoaren 30ean, haren Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera.

Dekretu honen eranskin gisa datorren zirkulazio eta seinale arautegiak sei titulu ditu: I. titulua, Orokortasunak; II. titulua, Segurtasuneko seinaleak eta instalazioak; III. titulua, Zirkulazioa; IV. titulua, Trenen blokeoa; V. titulua, Eraketa eta balaztatzea, eta VI. titulua, Maniobrak.

Beraz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 23an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Zirkulazio eta Seinale Arautegia onartzea.

1.– Zirkulazio eta Seinale Arautegia onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko eta «Red Ferroviaria Vasca / Euskal Trenbide Sarea» erakunde publikoaren ardurapean utzitako trenbide-azpiegiturentzat; dekretu honen eranskin gisa dator testua.

2.– «Red Ferroviaria Vasca / Euskal Trenbide Sarea» erakunde publikoaren ardurapean utzitako trenbide-azpiegiturei, eta etorkizunean utziko zaizkienei aplikatuko zaie arautegi hori.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabera geratzen dira, batetik, Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2001eko irailaren 19ko Agindua, eta, ondorioz, Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos erakundearen zirkulazio eta seinale arautegia onartzen da, eta, bestetik, dekretu honen aurka jartzen den, kontrakoa dioten edo bateragarriak ez diren maila bereko edo beheragoko xedapen oro.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 23an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,  
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

ERANSKINA, OTSAILAREN 23KO 29/2016 DEKRETUARENA  
ZIRKULAZIO ETA SEINALE ARAUTEGIA

# I TITULUA. OROKORTASUNAK

## 1.1.– FUNTSEZKO OINARRIAK

### 101.– ZSA-ren ezagutza.

ZSA-k trenen zirkulazioaren eta maniobraren eginbidea zuzentzen duten arauak eta xedapenak biltzen ditu, eta bere azken helburua trenbide ustiapen segurua eta eraginkorra betetzea da.

Zirkulazioarekin zerikusia duten pertsona guztiak ezagutzera behartuta daude, dagokien atalean, beren eginkizunak burutzean hari jarraitzeko.

ZSAk berak zehazten du zeintzuk diren langileek ezagutu eta zenbait egoeratan aplikatu beharreko idazki osagarriak.

Arautegi honetako arauak aldatzeko hemen horretarako ezarri diren argitarapenak bakarrik erabili ahal izango dira.

### 102.– Arauen aplikazioa.

Zirkulazioko arauak behar bezala interpretatzeko, ondorengo hartuko da kontuan:

- Arauek Aginte bati ematen dizkioten eskumenak, aginte hori duten edo, ordezkapenez, haiek agindutako langileek hartu ahal izango dituzte beren gain Justifikatutako eta larrialdi kasuetan, bere Agintea ordezkatzuz jarduten duen langileak bere ekimenez jardun ahal izango du.
- Aginduek inprimaki bat erabiltzea eskatzen dutenean, inprimakia betetzeko zehazten diren zein erantsita dituen jarraibideak ere zirkulazio arautzat hartuko dira.

### 103.– Zalantzak interpretazioan eta araurik eza.

Agente guztiak gogoan izango dute zirkulazioko arauen xedea zirkulazio segurua eta erregularra lortzea dela. Interpretatzeko orduan sortzen diren zalantzak, batez ere zirkulazioan nahasketa eragin badezakete, behar beste denboraz kontsultatuko zaizkio Aginte Postuari, eta premiazko neurririk hartu behar badute, lehen esandako xedera begira dauden irizpideen arabera jardungo dute.

Zirkulazioko arauetan aurreikusten ez diren kasuetan, langileek AP-ak komunikazio grabatu zein telefonema bidez esaten dienari jarraituko diote. Hori ezinezkoa bada, berariaz zehaztutako kasuen antzera jardungo da. Ondoren, behin-betiko arautuko dira kasu horiek.

## 104.– Agintarien eginbeharrak.

- 1.– Agintariek beren mendekoei agindutako eginkizunetan parte hartuko dute, aholkuak emanez, ikuskatuz eta ondo ari direla zainduz, puntu hauei dagokienean:
  - Material errodagarriak, instalazioak, zerbitzuko lanabesak eta idazkiak ondo erabiltzen eta zaintzen dituztela.
  - Zirkulazio arautegia betetzen dutela.
  - Zirkulazioarekin zerikusia duten inprimakiak behar bezala betetzen dituztela.
- 2.– Agintarien eginkizuna da beren aginduetara dauden agenteen jarduera biziatsuak errotik moztea. Ez da zirkulazioaren segurtasunaren arauen aurkako agindurik inoiz emango.

## 105.– Agenteen eginbeharrak.

- 1.– Zirkulazioarekin zerikusia duten agenteek hau egin behar dute:

– Beren lanpostuetan egon.

Ezustean edo ezinbestean, arriskuren bat saihesteko, langile batek lanpostua baimenik gabe utzi behar izango balu, segurtasuna bermatzeko neurriak hartuko lituzke joan baino lehen.

Beste batek zirkulaziorako segurtasun funtzioak betetzen dituen lanpostua utzi duela, edo ondoezik dagoela dakien agenteak egokien diren dituen babes-neurriak hartuko ditu, nagusi hurbilari jakinaraztearen kalterik gabe.

– Beren eginkizun diren segurtasuneko eragiketak burutu. Trebatuta ez dagoen beste agente baten eskuetan uztea debekatuta dago.

Gainera datorren arriskua saihesteko kasuetan izan ezik, agenteek ez dute trebatuta ez dauden segurtasuneko eragiketarik egingo.

– Zirkulazioaren segurtasuna kolokan jartzen duela irizten dioten agindurik jasotzen badute, hala jakinaraziko diote agindua ematen dienari, eta beste argibiderik jaso arte, seguruak irizten dieten neurriak hartuko dituzte.

- 2.– Zirkulaziorako arriskurik ikusten duen agenteari, bere esku dituen neurriak hartzea dagokio, arrisku horretatik sor daitezkeen ondorioak saihesteko edo murrizteko:

– Heltzen diren tren guztiei gelditzeko seinalea erakutsi.

– Zirkulazioko agenteari, zein AP-ari arriskuaz berehala ohartarazi.

– Trenbide bikoitzeko zein anitzeko bide-zatietan alarma seinalea berehala egin.

## 106.– Zerbitzuaren preskripzio nagusiak.

Agenteek, zerbitzua egiten duten bitartean, hau egin behar dute:

- Lanpostuan aisialdirako edo denborapasako gauzarik ez erabiltzea ezta eginbeharrekoarekin zerikusirik ez duen beste ezer egin ere.
- Zirkulazioaren segurtasunari zor zaion arreta oztopa lezaketen baimenik gabeko pertsonen zirkulazioko egoitzetan (kabineteak, zirkulazioko postuak, trenbide pasaguneetako etxolak, gidaritzako kabinak, etab.) egotea debekatu.

Egoitza horietan guztietan debekua adierazteko errotuluak jarriko dira.

## 107.– Zerbitzua eskualdatzea.

- 1.– Zerbitzua amaitzen duen langileak, geltokietan zein trenbide hutsean, bere hurrengoari arauzko idazkiak, zerbitzuko inprimakiak eta lanabesak eman eta eginkizuna burutzeko behar duen guztia jakinaraziko dio.
- 2.– Zerbitzua hartzen duen langileak, agiriak, lanabesak eta inprimakiak eskuratu eta esandako informazio horiek jasoko ditu.
- 3.– Zirkulazioko langileen edota AP-ko langileen zerbitzuaren eskualdaketa idatziz adieraziko da telefonemen liburuan. Gainerako agenteena ahoz gauzatuko da, besterik agintzen ez bada.
- 4.– Tren bat igarotzean txanda uzten duen gidariak hurrengo txandakoari bere kargu dituen inprimakiak emango dizkio, baita ibileran zehar sumatu dituen anormaltasunen berri ere.

## 108.– Erreserbatua.

## 109.– Erreserbatua.

# 1.2.– HIZTEGIA.

## 110.– Definizioa.

Arautegi honen ondoreetarako, hitz eta esamolde hauek honela ulertuko dira:

- **Treko eragiketa laguntzailea:** trenean zerbitzuan ari eta trenaren eragiketan amaieraren berri eman, maniobrak egin eta halakoetaz arduratzen den langilea, baita arauz dagozkion segurtasuneko beste eragiketa batzuk ere burutzen dituena.

- **Zirkulazioko agentea:** zirkulazioko Buruzagitzaren zein AP-ko langileen agindu zuzenetara, zirkulazioaren zerbitzua ziurtatzen duen agentea.
- **Instalazioetako agentea:** dagozkion arauak aplikatuz zirkulazioen igarotzea bermatuko duen instalazio alorreko edozein espezialitateko agentea.
- **Maniobretako Langilea:** zirkulazioko Buruaren zein AP-ko teknikariaren agindu zuzenetara, orratzei eragin, maniobrak egin eta dagozkion beste arau batzuk betetzen dituen agentea.
- **Sarrerako eta irteerako orratzak:**
  - Sarrerakoak: sarrerako seinaletik bidaiariaren eraikinaren ardatzeraino daudenak.
  - Irteerakoak: Ibilbidearen noranzkoaren arabera, bidaiariaren eraikinetik sarrerako seinaleraino daudenak.
- **Bide-banaketetako orratzak:** trenbidean bertan edota geltokietan daudenak eta linea bat bestetik bereizten dutenak. Eta baita trenbide bakarretik trenbide bikoitzera igarotzeko tartetan trenbidean bertan daudenak ere.
- **Puntatik hartutako orratza:** trenbidetik zirkulatzean, zirkulazio jomuga posible bi egonik, orratzaren orientazioak trenbide beretik jarraitzeko edo beste trenbide batera aldatzeko aukera ematen duenean.
- **Atzetik hartutako orratza:** trenbidetik zirkulatzean, jomuga posible batekin, orratzaren orientazio zuzenak zirkulazioarekin aurrera egiteko aukera ematen duenean.
- **Bazterbidea:** zerbitzuko trenbideak zirkulazioko trenbidearekin bat egiteko puntu bat duen egoitza da.
- **Geralekua:** blokeoan parte hartzen ez duen edota Aginte Postuarekin harremanik ez duen geltokia.
- **Automotorea:** trenbide ustiapenerako erabiltzen den berezko bultzadadun ibilgailua
- **Aginte Postuko banda:** Aginte Postuko Teknikari beraren kargura dauden lineak, linea edo linearen partea.
- **Blokeo automatikoa:** kantoiak babesten dituzten seinaleak era automatikoan erlazionatzen dituen blokeo sistema.
- **Trenen blokeoa:** trenen zirkulazioaren segurtasuna bermatzen duten sistemen eta arauen multzoa, trenen artean beharrezko distantzia gordez, batak bestea harrapa ez dezan edo martxan talka egin ez dezaten.
- **Kantoia:** jarraian dauden blokeoko puntu biren arteko tartea da.
- **Kaltzea:** gurpil baten azpian, errailaren ondoan, jarritako elementua, ibilgailua irristatu edo mugitu dadin saihesteko.
- **Zamalekua:** zirkulazio bide batera trenbide hutsezko orratz batez edo gehiagoz lotzen diren bagoien zama-lanetarako bide-instalazioa.
- **Zirkulazioa:** mugimenduan zein geldik egonik, zirkulazio bidea oztopatzen duen edozein tren, makina, lokomotora zein bagoneta.

- **Trenen gurutzaketa:** linea berean, trenbide desberdinetatik eta aurkako noranzkoetan, zirkulatzen duten bi trenen gurutzaketa.
- **TKN-CTC:** trenbide trafikoaren kontrol nagusirako sistema, katigamendu eta jarraipen gailuak, eta haren ardura zuzena duten langileak dituen.
- **Desbideraketa:** trenbide bat bi trenbidetan edo gehiagotan bereizteko aukera ematen duen trenbideko aparatua.
- **Tren enpresa:** trenbidez bidaiarien edo merkantzien garraio zerbitzuak eskaintzeko jardura nagusia duen erakunde baimendua.
- **Probetako arduraduna:** trenetako langileen agindua eta probak zuzentzen dituen, Okupazio bidezko Blokeo Arduradun gisa arituz, proba horren esanetara egiten denean.
- **Lanen arduraduna:** antzemateagatiko blokeoaren arduraduna, lanek iraun bitartean, zirkulazioarekin erlazionaturiko ekintzak koordinatzen dituen.
- **Trenen sarrera, iritsiera, irteera edo igarotzea:**

Hona hemen bakoitzaren esanahia:

- **Sarrera:** trenaren azken ibilgailuak geltokiko sarrerako seinalea igaro duenean.
- **Iritsiera:** trena bere trenbidearen pikete artean estazionatuta eta guztiz geldidagoenean.
- **Irteera edo igarotzea:** trenaren azken ibilgailua aurkako aldeko sarrerako seinale nagusitik, edo bestela, geltokiko azken orratzetik, igaro denean.
- **Geltokia:** zirkulazioa erregularizatzeko lanetan parte har dezakeen egoitza oro.
- **Geltoki irekia:** zirkulazioko Agentea zerbitzuan eta Aginte Postuarekin komunikazioa duena da. Bestalde, TKN-CTC sistemak kontrolatzen dituen guztiak ere geltoki irekiak dira.
- **Geltoki itxia:** aipatutako baldintzak betetzen ez dituen.
- **Azpiegituren kudeatzailea (ETS-RFV):** azpiegituraren eta kontrol, zirkulazio eta segurtasun sistemaren kudeaketaren erabateko arduraduna.
- **Gizon-hila (gidaria zaintzeko sistema):** trenbideko material motorean dagoen segurtasun sistema.
- **Zirkulazioko Burua:** zirkulazioa AP-tik zuzentzen duena eta geltoki eta trenetako langile guztien agintaria, zirkulazioari dagokionean. Arautegi honetan arautu ez den guztiaren gaineko erabakiak berak hartuko ditu.

- **Linea:** bi puntu jakinen arteko trenbide lotura. Lineetan bide bat, bi edota gehiago egon daitezke (bide bakarrek tartekak, bide bikoitza, bide bikoitza balizatua, bide anitza). Lineak izendatzeko hasierako eta bukaerako geltokien izenak erabiltzen dira, kilometro puntuan gorazko hurrenkeraren arabera.
- **Lokomotora isolatua:** lokomotora batek edo gehiagok besterik osatzen ez duten zirkulazioa.
- **Lokomotora zein automotore tiratua:** eraketari lotu zaion baina trakziorik ematen ez duen lokomotora zein automotorea.
- **Aginte anitza:** kabina bakarretik lokomotora, automotore bat, edota Tren Unitate bat baino gehiago kontrolatzeko aukera ematen duen bitartekoa.
- **Makina edo lokomotora:** gidatzeko eta bertan joateko berariazko baimena duen langilea baino onartzen ez duen eta une batean trenbidetik atera ezin daitekeen ibilgailu motore oro.
- **Gidaria:** edozein motatako ibilgailu motorea gidatu eta dagozkion arauak bete behar ditu. Trenbide hutsean, trenari atxikitako langile guztien agintaria da, probetako trenetan ezik.  
Gidarizat hartzen dira gida-lanetarako baimena duten langile guztiak ere.
- **Material motorea:** bere kabuz mugi daitekeen trenbideko edozein ibilgailu (tren unitatea izan ezik).
- **Eramandako materiala:** bagoi eta plataforma multzoa.
- **Paritatea:** trenaren zenbakiaren arabera ezartzen da. Tren bikoitiek paritate bikoitia dute. Tren bakoitiek paritate bakoitia dute.
- **Babestutako trenbide pasagunea:** mota honetako pasaguneak barrerazaina du edo erdi-hesiak edo hesi automatikoak eta bideko seinaleetan jarritako eta bideari begira dauden ikus-entzunezko seinaleak. Baliteke hesirik ez izatea. Beste babes guztiak aldiz, behar-beharrezkoak dira.
- **Segurtasuneko pilotua:** zirkulazioari dagokionez, trenbideko lanak eta ingurukoak babesten eta zaintzen dituen agentea.
- **Treneko langile laguntzailea:** trenari laguntzen dion edozein agente, agente bakar erregimenean zirkulatzea ezinezko bilakatzen duen trenaren gailuren batek funtzionatzen ez duenean.
- **Trenbide osoa:** zabalik eta elkarren ondoan dauden bi geltokitako sarrerako seinaleen artean dagoen trenbide zatia. Sarrerako seinalerik ez dagoenean, geltoki bateko irteerako orratzen eta ondoko geltokiko sarrera orratzen arteko trenbide zatia da.
- **Blokeo Postua:** blokeoan esku hartzen duen eta zirkulazioko agentearen zerbitzua duen postua.



- **Aginte Postua:** zirkulazio Buruzagitzaren eta Aginte Postuko teknikarien ardurapean dagoen postua da. Bertan dauden geltokiekiko komunikabidea duen bide-zati zein linea bateko zirkulazioa agindu edo antolatzen du. TKN-CTC-a duten zatietan bertan dauden geltoki guztien eginkizunak hartzen ditu.
- **Irrati-telefonía:** ibilgailuen, geltokien eta Aginte Postuaren arteko komunikabidea.
- **Sarea:** tren administrazio baten linea multzoa.
- **Abiadura erregistragailua:** Trena martxan dagoen bitartean abiadura erregistratzen duen aparatua.
- **Trenaren Babes Automatiko Sistema (TBA.–ATP):** abiadurak eta seinaleen aginduak eta adierazpenak betetzeko orduan gidariari laguntza ematen dion sistema.
- **Telefonema:** telefonoz transmititzen den eta idatziz edo grabatuta erregistraturik geratzen den mezua.
- **Aginte postuko teknikaria:** zirkulazio buruaren esanetara, Aginte Postutik zirkulazioa zuzentzen duen eta zirkulazioarekin erlazionatutako guztian geltokietako eta trenetako langileen agintea duen agentea.
- **Trakzio anitza:** tren batek banaka gobernatzen diren lokomotora zein automotore bat baino gehiagoren trakzioa izatea.
- **Bide-zatia:** bi puntu jakin batzuen arteko linearen partea. Puntu horietako bat geltoki bat izan daiteke.
- **Ibilbidea:** bi geltokiren arteko linearen bide-zatia. Hitza era orokorrean erabiltzen denean, bi geltoki albo-kideren arteko linearen partea adierazten da.
- **Trena:** unitate motore edo eramandako batek edo gehiagok osatuta dagoen eta trenbidetik azkar kendu ezin daitekeen trenbideko material oro.
- **Ohiko trena:** material motoreak eta eramandako materialak osatutako konposizioaz eratutako trena.
- **Tren bultzatua:** mugimenduaren noranzkoaren aurrealdean gidaritzako kabinarik ez duen trena.
- **Tren berezia:** ez ohiko beharrei erantzuteko eratzen den trena da.
- **Tren Historikoa:** material motoreak eta eramandako materialak osatutakoa. Bere zirkulazioa Kontsigna bitartez araupetzen da.
- **Materialeko trena:** tren unitateak edo ohiko materiala leku batetik bestera eramateko eratzen den trena da, eta ez du bidaiaririk onartzen.

- **Merkantzia trena:** merkantziak garraiatzeko eratzten den trena da.
- **Lanetarako trena:** trenbideko instalazioen konpontze eta mantentze lanak egiteko eratzten den trena da.
- **Bidaiarien trena:** bidaiariak garraiatzeko eratzten den trena da.
- **Tren-Unitatea:** trenbide ustiapenerako erabiltzen den berezko bultzadadun ibilgailu multzoa, bateraezina dena. Mutur bietan gidatzeko kabinak daude.
- **Bagoneta automobila:** berezko bultzada duen ibilgailua, lineen mantentze lanetarako erabiltzen dena eta trenbidetik berehala atera ezin daitekeena.
- **Bagoneta edo diploia:** berezko bultzadarik ez duen ibilgailua, lineen mantentze lanetarako erabiltzen dena eta une jakin batean trenbidetik berehala atera daitekeena.
- **Zirkulazioko trenbidea:** trenak sartzeko, irteteko eta igarotzeko erabiltzen den geltokietako edozein trenbide.
- **Bakoitien trenbidea:** ohiko baldintzetan tren bakoitiek zirkulatzen duten trenbideak, B.A.B.–rik ez duten ibilbideetan.
- **Bikoitien trenbidea:** ohiko baldintzetan tren bikoitiek zirkulatzen duten trenbideak, B.A.B.–rik ez duten ibilbideetan.
- **Zerbitzuko trenbidea:** geltokietan trenak baztertzeko erabiltzen direnak, zirkulazio trenbide gisa funtziona dezaketenak, ustiapen baldintzek horrela eskatzen dutenean.

## 1.3.– ARAUZKO DOKUMENTUAK

### 111.– Zirkulazioko Arauak.

Trenen eta maniobren zirkulazioa Zirkulazioaren eta Seinaleen Arautegiari (ZSA) eta behin betiko zein behin behineko Kontsignei jarraituz antolatzen da.

ZSA honez gain, zirkulazioan parte hartzen duten langileek, ukitzen dien alderdian, dokumentu osagarri hauek ere ezagutu behar dituzte:

- Ibilbideen Liburua.
- Kontsignak eta Jarraibide Teknikoak
- Zerbitzu Aginduak.

- Aginduen eta Informazioen Buletina
- Balaztatze buletinak (ohiko trenak)
- Telefonemen liburuak
- Ibilerako orriak (ohiko trenak).

## **112.– Separatak.**

ZSAren eduki osoa ezagutu beharrik ez duten langileentzat, separatetan, ukitzen diena jasotzen da, sailkapen honen arabera:

- 1.– Zirkulazioko eta Aginte Postuko Langileak.
- 2.– Gidaritzako langileak.
- 3.– Trenbideko material laguntzailearen gidaritzako langileak.
- 4.– T reneko eragiketa laguntzailea. Maniobretako agentea.
- 5.– Treneko langile laguntzaileak.
- 6.– Instalazioetako agentea.
- 7.– Lanen arduraduna.
- 8.– S egurtasuneko pilotua.

ZSA orri tartekagarrietan argitaratzen da, eguneratzea errazagoa izan dadin.

ZSAn aldaketak egiteko, orriak kendu, gehitu zein ordezkatu behar direnean Aldatzaileak erabili ahal izango dira. Larrialdi egoeran, Kontsigna edo Jarraibide bitartez egin ahal izango da, dagokion Aldatzailea argitaratu arte.

## **113.– Ibilbideen Liburua.**

Trenen zirkulazioaren prozesuak denboran arautzeko argitaratzen dira.

Linea bakoitzerako puntu hauei buruzko agindu eta argibideak zehazten ditu:

- Trenen ibilera eta mota.

- Irrati-telefoniako kanalaren zenbakia.
- Informazio osagarria

#### **114.– Kontsigna eta jarraibide teknikoak.**

Honakoak arautzeko argitaratzen dira:

- Mota guztietako instalazioak.
- Arautegi honetan adierazten diren kasuak.
- ZSA, lan egoitza, linea zein bide-zati jakin batzuetan aplikatzeko baldintzak, eta tren edo ibilgailu jakin batzuetarakoak.
- Trenbideen, orratzen, seinaleen edota beste instalazio batzuen funtzionamendua okertzen bada zirkulazioa etengo ez dela ziurtatzeko jardunbidea.
- ZSA-ren aldaketa edo osaketa, dagozkion aldatzaileak argitaratu arte.

#### **115.– Zerbitzu Aginduak.**

Zirkulazioan esku hartzen duten langileei trenen sorrerak, ezabaketak, aginduak eta argibideak jakinarazteko balio dute, eta beharrezkoak dira:

- Aldi batekoak direlako Ibilbideen Liburuan sartu ezin daitezkeenak.
- Behin betikoak izanik ere, liburu horretan agertzen ez direnak.

#### **116.– Aginduen eta Informazioen Buletina (AIB-BOI)**

Dokumentu honen funtzioa gidariari zirkulazioan, mugetan, seinaleak igarotzean, gurutzaketen aldatetetan... eragina duten egoera bereziak jakinaraztea da

#### **117.– Balaztatze buletina.**

Ohiko materialak osatutako trenen datuak biltzen diren dokumentua da, balaztatze automatiko eta aparkatzeko balaztatze ehunekoei, balaztadun eraketaren ardatz kopuruari eta eramandako pisu osoari buruzkoak.

#### **118.– Dokumentuen idazketa.**

Aldatzaileak, Kontsignak eta arauzko gainerako dokumentuak ondoren zehaztuko diren jarraibideen arabera idatziko dira:

- **Hiztegia.** Titulu honetako 2. kapituluan azaltzen dena erabiliko da.

- **Identifikazioa.** Dokumentua argitaratzen duen erakundea, eguna, mota, eta mota berekoentzat segidakoa izango den zenbakia zehaztuko dira.
- **Aplikazioa.** Orokorrean aplikatzeko direnak ezik, gainerako guztietan, dokumentua zein egoitzari, lineari edota materialari aplikatzen zaion zehaztuko da, argi eta garbi.
- **Xedea.** Dokumentuaren xede laburtuaren azalpena.
- **Elkarri lotutako dokumentuak.** Zein dokumentu arautzailerekin harreman zuzena duen ere zehaztuko da.
- **Dokumentu baliogabeak.** Argitarapen berriak baliorik gabe uzten dituen dokumentuak zehaztuko dira.

Ibilbideen Liburua salbuespena da, bertan indarraldia aipatze hutsak izen bereko aurreko dokumentua automatikoki baliogabetzea baitakar.

- **Eranskinak.** Behar diren beste argitaratu ahal izango dira, hasierako dokumentuaren oinarria aldatzen ez badute, beti ere. Hala balitz, lehengo idazkiaren ordezkot berria sortuko litzateke.

## 119.– Telefonemen liburua.

Dokumentu horretan jasotzen dira, behar denean, trenen zirkulazioan esku hartzen duten langileek elkarren artean egiten dituzten komunikazioak. Liburu horiek erabiltzeko, honako preskripzio hauek bete behar dira:

- Telefonemen liburuak foliatuta eta zenbakituta egon beharko dira, eta debekatuta dago orriak kentzea eta bi telefonemaren artean lerro zuriak uztea.
- Liburu horretan erregistratuko diren telefonemei 1etik 999ra arteko elkarren hurreneko zenbaki bana jarriko zaie. Azken zenbaki horren ondoren, 1etik hasiko da.
- Data bati dagozkion inskripzioak bukatu eta gero, marra horizontal bat egingo da, eta hurrengo lerroan idatziko da hurrengo data.
- Telefonemaren bat transkribatzerako orduan akatsen bat eginez gero, akatsa ez da ez zirriboratu ez ezabatu behar; akatsaren ondoren “baliogabetua” hitza idatziko da.
- Akatsa telefonema bideratu ondoren detektatzen bada, telefonema hori baliogabetuko da beste baten bidez, eta, gainera, telefonema berria bideratuko da, forma eta datu zuzenak jarrita.
- “Telefonemen liburua” deritzon aplikazio informatikoak ordeztu dezake telefonemen liburua, eta liburuak duen funtzionaltasun bera izango du.
- Salbuespen gisa, gidariak, idatziz erregistratzea beharrezkoak ez diren mezuen informazioa erregistratu ahal izango du, informazio hori transmititu den eguna eta ordua erregistratzen baldin badira.

## 120.– Ibilerako orria.

Dokumentu hori ohiko trenetarako baino ez da erabiliko, eta bertan datu hauek erregistratuko dira:

- Trenaren datuak (mota, jatorria eta jomuga, etab.)

- Benetako ibilera.
- Hasierako eraketa
- Eraketaren aldaketa

#### **121.– Erreserbatua.**

#### **122.– Erreserbatua.**

### **1.4.– DOKUMENTUEN ETA ZERBITZUKO LANABESEN BANAKETA**

#### **123.– Dokumentuen banaketa.**

1.– Arauzko dokumentu bat argitaratzeko ardura duen Azpiegitura kudeatzaileko sail arduradunak, argitaratu ondoren horren eragina jasoko duten E.T.S.–ko langileen artean banatuko du eta, gainera, dagokion Tren Enpresara ere bidaliko du.

2.– Tren enpresak, arauzko dokumentua jaso ondoren, jaso izanaren agiria duen dokumentua bidaliko dio E.T.S.–ko igortzaileari

3.– Tren enpresa izango da zirkulazioan parte hartzen duten enpresa horretako langile guztiek, zerbitzua hasi aurretik, lan hori egiteko beharrezkoa den dokumentazio osoa ezagutzen duela bermatuko duen prozedura egituratzearen arduraduna.

4.– Ezein agentek ezin izango du zerbitzua hasi dagokion arauzko dokumentazioa ezagutu gabe.

5.– Aginte Postuek indarrean dauden dokumentuen zerrenda duen Oharra argitaratuko dute, sei hilean behin gutxienez.

#### **124.– Zerbitzuko dokumentazioa.**

Ondoren aipatzen diren agenteek zerbitzuan eraman, zein lanpostuan eskura izango dituzte honako dokumentuak:

##### **Gidariak**

- Ibilbideen Liburua eta Zerbitzu Aginduak.
- Telefonemen Liburua.
- Ibilerako orria (ohiko trenak).
- Balaztatze buletina (ohiko trenak).

##### **Lanen arduradunak**

- Telefonemen Liburua.
- Programatutako lanen akta.
- Ibilbideen Liburua.

### Segurtasuneko pilotua

- Programatutako lanen akta
- Ibilbideen Liburua.

### 125.– Zerbitzuko Lanabesak.

1.– Ondoren adierazten diren zerbitzuko lanabesak, aipatzen diren agenteei banatuko zaizkie, era pertsonalean:

- Bolako Txistua: zirkulazioko, laguntzeko eta maniobretako langileei.
- Zerbitzuko giltzak: zirkulazioko, gidaritzako eta maniobrarako langileei.

2.– Adierazten diren lanpostuek ondoren aipatzen diren zerbitzuko lanabesak izango dituzte:

- **Geltokiak eta zirkulazio postuak:** banderatxo gorriak, horiak, linternak eta kaltzeak.
- **Trenbide pasaguneak:** banderatxo gorriak eta linterna.
- **Material Motorea:** linterna, 2 kaltze eta banderatxo urdin/horiak, horiak eta gorriak.

3.– **Segurtasuneko Pilotuak,** Trenbidea zaintzeko ardura duen **Instalazioetako agenteak** eta **Lanen Arduradunak,** Segurtasuneko Piloturik ez dagoenean, banderatxo gorriak, horiak, urdin/horiak, linterna eta Aginte Postuarekin komunikatzeko sistema.

### 126.– Dokumentuen zein lanabesen falta.

Zerbitzurako ezinbestekoa den dokumentu zein lanabesen bat ez duen langileak Aginte Postuari jakinaraziko dio, eta hark erabakiko du zer egin behar den.

### 127.– Erreserbatua.

### 128.– Erreserbatua.

## 1.5.– AGENTEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

### 129.– Komunikazioen sailkapena.

- 1.– Ahozko komunikazioak zuzenean, telefonoz, irrati zein bozgorailuz egin ahalko dira.
- 2.– Ahozko komunikazioa igortzen duen agenteak, hartzaileak ulertu diola egiaztatuko du.
- 3.– Telefono, irrati zein bozgorailu bidezko komunikazioetan langile igorleak eta hartzaileak nor diren esango diote elkarri.

- 4.– Idatzizko komunikazioak, egotekotan, horretarako inprimakiaren bidez egingo dira, eta telefaxeaz ere bidali ahal izango dira.
- 5.– Telefonemazko komunikazioak testu jakin bat urrutitik igortzea dira, eta telefonozko edozein linearen bidez bidaliko dira (ET/FV, CTNE, eta abar), fax, irrati zein norberaren bidez.
- 6.– Jakinarazpenak Gidariei idatziz zein telefonemaz bidali behar zaizkien komunikazioak dira.
- 7.– Arautegi honek zein Kontsignek kasu bakoitzean erabili beharreko komunikazio motak zehazten dituzte. Berariaz adierazten ez denean, ahoz egingo dela ulertuko da.
- 8.– TKN-CTC-ko telefonoetatik, telefono murriztu nagusietatik eta trenetako irrati-telefoniatik bidaltzen diren komunikazioak magnetofonoetan grabatuko dira.

### **130.– Telefonemak igortzea.**

- 1.– Segurtasuneko eragiketei buruzko telefonemak beren ardura duten agenteek bidali eta jasoko dituzte, zuzenean.
- 2.– Anormaltasunik bada, Zirkulazioko Agente bat ere erabil daiteke igorpenerako, bere telefoneman ordua, erregistro-zenbakia, mezua, igorlea eta hartzailea zehaztuko dituena, oso-osorik.

### **131.– Telefonemak erregistratzea.**

#### **Aginte Postuko langileak eta Zirkulazioko Agenteak**

Bidali zein jasotzen dituzten telefonemak honela erregistratuko dituzte:

- Telefonemen Liburuan, ordua, erregistro-zenbakia eta testua adieraziz.
- Grabazioa dagoenean eta gai puntual bati buruzko jakinarazpena denean, ez da telefonemen testua idatziz erregistratu beharko.
- Grabazioa egon arren, iragarkiei, kontuz ibili beharrari, telefono bidezko blokeoei, blokeoaren aldaketari eta segurtasuneko eta energiako instalazioetako lanei buruzko telefonemak idatziz erregistratuko dira.
- Zigiluak erabiltzeko baimena ere eman daiteke, egoerak eskatuta telefonemak errazago idazteko.

#### **Gidariak**

- Ez dituzte erregistratu behar izango berehala egin beharreko gaiei buruz irrati jasotzen dituzten telefonemak, grabazio ekipoetan erregistratzen badira, baina igorleari errepikatu egingo diote jasotako mezua.
- Kontuz ibili beharrari, trenen iragarpenari eta blokeoaren aldaketari buruzko telefonemak erregistratuko dituzte, telefonema, ordua, erregistro zenbakia eta testua oso-osorik adieraziz.

#### **Idatzizko erregistrorako salbuespenak:**

Salbuespen gisa, Kontuz ibili beharrari eta trenen iragarpenari buruzko telefonemak ez badira idatziz erregistratzen, Aginte Postuko langileek, gurtzaketen egiaztapena edo K.P.–ak eta kontuz joateko gehieneko abiadura gogoratu beharko dizkiete gidariei, aurreko geltokian, telefonemaren arabera.



### Instalazioetako langileak eta zirkulazioko gainerako langileak

Bidalitako eta jasotako telefonemak telefonemen liburuan erregistratuko dituzte, kasu hauetan: okupazio bidezko blokeoan parte hartzen dutenean, tentsioa mozten eta berriro ere indarrean jartzen denean, eta segurtasun instalazioetan egiten diren lanetan parte hartzen dutenean.

Salbuespen gisa, iragarpenari, blokeoaren aldaketari eta kontuz ibili beharri buruzko telefonemak ez badira idatziz erregistratzen, gurutzaketen egiaztapena, blokeoaren aldaketa edo K.P.–ak eta kontuz joateko gehieneko abiadura gogoratu beharko zaizkie gidariei, aurreko geltokian, telefonemaren arabera.

### 132.– Erreserbatua.

### 133.– Erreserbatua.

## 1.6.– ZIRKULAZIOARI BURUZKO OINARRIZKO EZAGUPENAK

### 134.– Seinaleak.

1.– Trenbidetik, geltokietatik zein trenetatik argibideak eta aginduak ematen dituzten zeinuak dira.

2.– Seinaleak honela sailkatzen dira, beraien funtzioaren arabera:

**Seinale finkoak:** trenbide zein geltokietako puntu zehatzetan betiko edo aldi baterako jarrita daudenak. Hona hemen sailkapena:

- Funtsezkoak: trenen zirkulazioa eta maniobrak arautzen dituzte.
- Adierazleak: oinarrizko seinaleen aginduak osatzen dituzte.
- Abiadura mugatzekoak: trenbide zein instalazioen baldintza bereziengatik trenen ibileran murrizketak ezartzen dituzte.

**Seinale eramangarriak:** langileek edonon eta edonoiz erabili eta egin ditzaketenak.

**Trenen seinaleak:** trenek aurrean eta atzean eramaten dituztenak.

3.– Funtsezko seinale finkoak, instalatuta dauden tokiaren arabera, izen hauek dituzte:

**Aurretiatzko seinalea:** geltoki bateko sarrerako edo irteerako seinalearen aurrean dagoena, haren itxura erakusten digu.

**Sarrerako seinalea:** geltoki edo bide-banaketa baten sarreran, zirkulazioko trenbidean dagoena.

**Sarrerako barruko seinalea:** geltoki baten barruan, linea baten edo gehiagoren bifurkazioaren aurretik dagoena.

**Irteerako seinalea:** geltoki baten irteeran, zirkulazioko trenbidean dagoena.

**Irteerako barruko seinalea:** geltoki baten barruan, linea baten edo gehiagoren irteeran dagoena.

**Bitarteko seinalea:** BA duten lineetan, blokeoko bi seinaleren artean dagoena.

**Trenbide pasaguneko seinalea:** trenbide pasagunearen aurrean dagoena.

- 4.– Oinarrizko seinale finkoek eta adierazleek seinalearen izena daraman plaka bat eraman beharko dute, behar bezala identifikatu ahal izateko.

### **135.– Segurtasunerako eta gidaritzari laguntzeko Instalazioak.**

Hauexek dira nagusiak:

- Seinale finkoak.
- Trenbideko aparatuak: orratzak, morroiloak, kaltzeak, etab.
- Maniobretarako gailuak: palankak, igorgailuak, motoreak, konmutadoreak, sakagailuak, giltzak, etab.
- Kontroleko gailuak: ikusgailuak, zenbagailuak, hoskailuak, etab.
- Katigamenduetarako gailuak: mahaia, sarrailak, erreleak, etab.
- Blokeatzeko gailuak.
- Trenbideko zirkuituak eta ardatz-zenbagailuak.
- Babes Automatiko Sistema (BAS-ATP)
- Babespeko Trenbide pasaguneetako elementuak: hesiak, tornuak, sumagailuak, hosgailuak, errepiderako seinale distiratzailak, etab.
- Ibilgailu motoreetako abiadura erregistragailuak.
- Ibilgailu motoreetako zainketa gailua (gizon hila).
- Ibilgailuen balazta eragiteko eta kontrolatzeko gailuak.

### **136.– Ibileraren baldintzak:**

#### **1.– Ikusi ahalako ibilera**

Gidariari aurrera kontuz joateko agintzen dio, aurrean ikusten duen trenbidearen arabera abiaduran, kabinatik ikusten den edozein oztopo, orratz txarto jarria zein gelditzeko seinalearen aurrean geratu ahal izateko moduan.

Aginduzkoa denean, gidariari zergatia eta, jakinez gero, nolako oztopoa den ere esango diote. Ibilgailu motorearen baldintza teknikoengatik zein trenaren ezaugarriengatik, gidariak ikusi ahalako ibilerarik bete ezin bada, Zirkulazioko Agenteari zein AP-ri zergatik ezin duen jakinaraziko dio, egoeraren arabera zer egin behar den erabaki dezaten.

#### **2.– Maniobretako ibilera**

Gidariari aurrera kontuz joateko agintzen dio, 20 Km/h gainditu gabe, kabinatik ikusten den edozein oztopo, gelditzeko seinale zein txarto jarritako orratzik ikustekotan berehala gelditzeko moduan.

#### **3.– Sorospeneko erabilera.**

Gehienez ere 20 km-ko abiaduran joanez gero, oztoporen bat ezustean agertzen bada tren-gidariari trena gelditzea ahalbidetuko diona da.

### 137.– Trenen identifikazioa:

Ibilbide Liburuan edo Zerbitzu Aginduan agertzen diren trenen identifikazio zenbakia bakoitia zein bakoitia dute, zirkulazioaren noranzkoaren arabera, eta zenbakiaren amaieran hizki bat gehitu daiteke.

Trenak identifikatzeko, zenbakiak edo abiapuntuko eta jomugako geltokiek Ibilbide Liburuan dituzten siglak erabiliko dira. Abiapuntuko edota jomugako puntua geltoki bat ez denean, kilometro puntuak adieraziko dira.

Identifikazio bien artean zenbaki bakoitia edo bakoitia jarriko da, noranzkoaren arabera. Zenbakia geltoki bakoitzerako korrelatiboa izango da eta egun bakoitzeko 00:00etan 1. zk.–tik hasiko da noranzko bakoitirako eta 2. zk.–tik noranzko bakoitirako.

### 138.– Trenen geldialdiak.

Trenen geldialdia beren ibileretan ezarrita egon daiteke, edo behin behineko Aginte Postuaren zein Zirkulazioko Agentearen ekimenez edo seinaleen aginduz ere gerta daiteke.

Aginduzko geldialdiak honelakoak izan daitezke:

#### **Iraupena edo aldizkakotasuna kontuan izanik.**

- **Unekoa**, trena eragiketa komertzialak egiteko ezinbestekoa den denbora baino geratzen ez denean.
- **Albi batekoa**, ibileran zehazten diren egunetan edo denbora tartetan baino egiten ez den uneko geldialdia.

#### **Beraien funtzioa kontuan izanik**

- **Komertziala**, bidaiariak igotzeko eta jaisteko egiten dena.
- **Teknikoa**, trenak gurutzatu, aurreratu zein arrazoi tekniko hutsengatik egiten dena.
- **Eskatutakoa**, geldialdia eskatzeko duten zerbitzuetan, geraleku batean bidaiariak igo edo jaitsi behar dutenean baino egingo ez dena.

### 139.– Trenen gelditzeak.

**Ustekabeko gelditzea** Gidariak bere ekimenez trenbide hutsean zein edozein tokitan burutzen duena da, anormaltasun batengatik edo gainera datorren arriskua saihesteko.

**Berehalako gelditzea** berehalako arriskua saihesteko egiten dena da, larrialdietako balaztari premiaz eraginez.

### 140.– Ibilerako Agindua.

- 1.– Tren bat geltoki batetik abiatu zein igarotzeko gidariari eman behar zaizkion jarraibideen multzoa da, eta bertan agintzen diren eragiketa guztiak burutu direla esan nahi du.
- 2.– Ibilerako agindua edo B.A.n igarotzekoa, irteerako seinalearen aginduarekin ematen da, irteerako seinalerik ez dagoela ulertu behar ez den guztietan. Horretarako, nahikoa izango da gelditzeko ez agintzea, edo, bestela, Zirkulazioko Agentearak zein Aginte Postuak gaintzea baimentzea.

3.– Arautegi honetan azaltzen diren kasuetan, abiatzeko agindua ondokoarekin eman edo osatzen da:

- Doala trena seinalearekin.
- Igarotzeko seinalearekin.

4.– Geltoki itxietan eta geralekuetan geldiduten trenek ez dute doala trena seinalerik behar.

## 141.– Abiadurak.

### 1.– Gehieneko abiadura

Gehieneko abiadura esaten zaio gidariak trenaren ibilera osoan inoiz ere gainditu behar ez duenari.

### 2.– Abiadura mugatua

Abiadura mugatua esaten zaio edozergatik gehieneko abiadura murrizten duenari. Etengabea edo aldi baterakoa izan daiteke, eta ondorengo bidez aginduta dator:

- Seinaleen aginduaren bitartez.
- Gidariarentzako jakinarazpenaren bidez.
- Preskripzio orokor edo bereziren baten bidez.
- Anormaltasunaren zergatien bidez.

Tren bati abiadura mugatu desberdinek eragiten diotenean, gidariak txikiena beteko du.

## 142.– Trenen zirkulazioa.

1.– **Ohiko zirkulazioa:** bere ordutegiaren arabera zehaztu zaion ibilera duen trenarena.

2.– **Zirkulazio aurreratua:** ibilera zehaztuko trena bere ordutegia baino lehenago dabilenean.

Ibilera zehaztutako bidaiarien trenak aurreratuta ibili ahal izango dira lineetan, baina ezingo dute bidaiariak hartzen dituzten geltokietatik ezarritako ordua baino lehen abiatu.

3.– **Zirkulazio berezia:** ibilera zehaztu gabea duen trena ahal den gehieneko abiaduran doanean.

4.– **Lantzaderako zirkulazioa:** bi geltokiren artean behin eta berriro joan-etorrian ari den trenarena.

5.– Tren bat atzeratuta badoa, gehieneko abiaduran ibiliko da.

## 143.– Zirkulazioaren noranzkoa.

### Trenbide bakarrean

Bi noranzkoetan

### Trenbide bikoitzean

Aldi bateko trenbide bakarraren ezarpenarengatik zein beste arrazoiren batengatik, berariaz aurkako trenbideko zirkulazioa agintzen denean ezik, tren bikoitiak trenbide bikoititik eta tren bakoitiak trenbide bakoititik joango dira, noranzko berean.

Linea batzuetan eskuinetik zirkulatzen da eta beste batzuetan ezkerretik.

### **Trenbide bikoitz banalizatuan**

Loturarik gabeko trenbide independentea da trenbide bikoitzean, alegia, trenak bertatik bi noranzkoetan ibiltzen diren trenbidea, horietako bakoitzean, paritatea bat edo beste izanik ere.

Trenbide bikoitz banalizatuko geltokietatik irtetean, trenbideak «I. Trenbidea» edo «II. Trenbidea» dioten karteltzarrekin adieraziko dira.

### **Aldi bateko trenbide bakarrean**

Loturarik gabeko trenbide independentea da trenbide bikoitzean, alegia, trenak bertatik bi noranzkoetan ibiltzen diren trenbidea, bakoitiak zein bikoitiak izan. Kasu horretan, aurkako trenbideko zirkulazioa tren bikoitia trenbide bakoititik edo tren bakoitia trenbide bikoititik joateari esaten zaio.

## **144.– Trenen blokeoa:**

Blokeoaren xedea trenbide beretik doazen trenen zirkulazioaren segurtasuna bermatzea da.

Blokeoko sistema hauek erabiltzen dira:

### **Ohikoak:**

1.– Automatikoa ( BA ) , ondorengo aldakietan banatuta:

1.1.– Automatikoa Trenbide bakarrean (BAU).

- TKN-CTC-rekin eta Tokiko Agintearekin (TA-ML)

1.2.– Automatikoa Trenbide bikoitzean (BAD)

- TKN-CTC-rekin eta Tokiko Agintearekin (TA-ML)

1.3.– Automatikoa Trenbide bikoitz banalizatuan (BAB)

- TKN-CTC-rekin eta Tokiko Agintearekin (TA-ML)

2.– Okupazioagatiko blokeoa (BO)

### **Gehigarriak**

1.– Irrati bidezko blokeoa (BR)

2.– Telefono bidezkoa (BT)

BA linea guztietan erabiltzen da

BR, BA-k funtzionatzen ez duenean erabiltzen da.

BT, BA-k funtzionatzen ez duenean eta Aginte Postuak BR erabili beharrean erabiltzea erabakitzen duenean erabiltzen da.

BO lineako edozein bide-zatitan erabiltzen da, lanetako trenen, probetakoen, bagoneten eta trenbideko makinaren zirkulazioa zehazteko, zirkulazio horiek egin beharreko ibilbidean.

### Blokeoko kantoia.

- Blokeoko kantoia hauetan definitzen da:
  - BT-an, bi geltoki irekiren artean dagoen trenbidearen zein trenbide bakoitzaren zati gisa.
  - BA-n, blokeoko bi seinale jarrairen artean dagoen trenbide zati gisa.
  - BR-an, zirkulazioan parte hartzen duten bi geltokiren artean dagoen trenbidearen zein trenbide bakoitzaren zati gisa.
  - BO-n, haren emakidan zehaztutako trenbidearen zati gisa.
  
- Sekzioa BA-n.

Bi geltoki albo-kideren artean dagoen trenbidearen zein trenbide bakoitzaren zatia da.

Kantoia edo blokeoko sekzioa libre dagoela ulertuko da:

- Okupazio bidezko blokeorik ezarri ez denean.
- Azkenengo trenak, zirkulatu duen kantoia edo sekzioa guztiz liberatu duenean.

### 145.– Nola ziurtatzen den blokeoa:

- 1.– **BA**, kantoiak babesten dituzten **seinaleen** bitartez.
- 2.– **B0**, emateko telefonemen bitartez. Okupazioagatiko blokeoaren eraginpeko trena edo trenak edozein kanpo estaziok igor ditzake, noranzko arruntean edo aurkako trenbideko zirkulazioan, eta geldialdiak egin ditzakete, trenbidean atzera egin dezakete horretarako baimenik gabe eta edozein trenbidetan aparta daitezke.
- 3.– **BR**, anormaltasunen bat izan duen tren bakoitzeko gidariaren eta aginte postuaren arteko komunikazio gurutzatuen bitartez; grabatu egingo dira.
- 4.– Trenbide bakarreko edo bikoitzeko **BT**, trena datorrela adierazten duen abisuarekin eta trenbidea eskatu eta ematearekin, telefonemen bitartez.

### 146.– Trenbide lanetarako erregimenak.

#### 1.– Zirkulazioaren etete erregimena.

Lanak egiteko ukitutako trenbidetik edo trenbideetatik zirkulazioa eten egiten da.

Zirkulazioaren etena honela ezartzen da:

- Aginte Postuak ezarritako ordutegi tartez.

- Lanetako egitarauan zehaztutako tarte programatuaz. Lanak garrantzitsuak badira, Kontsigna bidez ere arautzen dira.
- Zirkulaziorako arriskurik dagoelako ustekabeen zehaztu den anormaltasunez.

2.– **Denbora liberatzeko erregimena.** Lanak eta ukitutako trenbideko edo trenbideetako zirkulazioa batera gauza daitezke. Aginte Postutik Lanen Arduradunari trenen egoerari buruz ematen zaizkion datuek babesten dute.

## 147.– Balaztatzea.

1.– Balaztatzearen funtzioa trenaren abiadura arautzea, edozein tokitan geldituko dela eta ibilgailuak aparkatzean ez direla mugituko ziurtatzea da.

2.– Hauek dira erabiltzen diren balaztak:

2.1 Automatikoak.

– Aire konprimituzkoak:

Trenak seinaleek eskatzen duten distantziara gelditzeko erabiltzen dira, gehieneko abiaduran joanik ere. Zatiketa kasuetan, materialaren mozketara gelditzeko nahikoak dira.

– Hutsunez:

Mota horretako balazta T10etik T30era bitarteko tren historikoetan bakarrik erabil daiteke. Zatiketa kasuetan, materialaren mozketara gelditzeko nahikoak dira.

2.2.– Aparkatzekoak:

Materialari geldik eusteko erabiltzen dira, balaztatze automatikoa galduz gero.

3.– Balazta automatikoen eta aparkatzekoaren balioa balaztatutako masaren tonatan adierazten da. Ibilgailu baten balaztatutako masak bere balaztak zenbateraino diren eraginkorrek erakusten du, eta beraz, balaztatzearen potentziaren ezaugarria da.

4.– Balaztatzearen ehunekoa ibilgailu zein tren baten 100 tonako masari dagokion balaztatutako masa da.

Balaztatzearen beharrezko ehunekoa, bere motaren arabera eta egin behar duen bideak zenbaterainoko aldapa duen eta erabili dezakeen balaztatzearen ehunekoa kontuan hartuta tren batek behar duena da.

## 148.– Balaztatze erregimenak.

Ohiko materialak aldagailuak ditu, eta horien eginkizuna da balaztako zapaten gaineko estutze esfortzua aldatzea eta atzeratzea:

- Potentzia-aldagailua: zapaten gaineko esfortzua aldatzea da gailu horren eginkizuna, dela timoneriaren multiplikazioa aldatuz, dela balaztako zilindroan airearen presioa aldatuz, esfortzu hori ibilgailuaren masara egokitzeko xedearekin.
- Erregimen-aldagailua: palanka bat da, ibilgailuaren alboetan egoten dena, eta hainbat posiziotan jar daiteke. Kroatze eta topeetan erreakzio zakarrik gerta ez dadin balaztaren sakatzea atzeratzea da gailu horren egitekoa.

Tren motaren arabera, honako hauek erabiltzen dira:

P/V erregimena: bidaiariak garraiatzeko trenak. Posizio horretan, zapaten gaineko esfortzua azkar handitzen da.

G/M erregimena: merkantziak garraiatzeko trenak. Posizio horretan, zapaten gaineko esfortzua astiro handitzen da.

## 149.– Tren motak.

Osaera, abiadura, erregimen eta balaztatzeari dagokienez, trenak zenbait motatan sailkatzen dira. Tren motak 10 zenbakiaren multiploez adierazten dira (T30, T40... T100), eta zenbakiak adierazten du trenak ibilbide eta bide mota egokienetan har dezakeen gehieneko abiadura.

Ibilbideen liburuan edo Zerbitzu Aginduetan argitaratzen diren trenen abiadek adierazten dute zein motatarako kalkulatu diren. Mota hori alda daiteke, gorantz edo beherantz, kasu jakin bakoitzaren benetako osaera- eta balaztatze-baldintzen arabera.

## 150.– Maniobrak.

Maniobra hauetarako egiten den mugimendua da:

- Trenari ibilgailuak erantsi zein kentzeko.
- Trena osatu zein zatitzeko.
- Ibilgailuak edo materialaren mozketak sailkatzeko.
- Tren edo material bat trenbide batetik bestera aldatzeko.

## 151.– Erreserbatua.

## 152.– Erreserbatua.



## II. TITULUA SEGURTASUNeko SEINALEAK ETA INSTALAZIOAK

### 2.1.– OROKORTASUNAK

#### 201.– Seinaleen aginduak.

Seinaleen bidez informazioa emateko, seinaleen itxura, adierazpena eta kokagunea zehatz-mehatz azalduko dituen eta seinaleok hartzailearentzat duten esanahia jarduera zehatzen bidez adieraziko duen kodea ezarri behar da.

Seinaleen aginduak zorrozki bete behar dira, trenen zirkulazioaren prozesu antolatua bermatu ahal izateko.

#### 202.– Seinaleak instalatzea eta kentzea.

Seinalerik instalatzen, kentzen zein lekuz aldatzen bada, gidariei eta interesatzen zaien gainerako langileei honela jakinaraziko zaie:

a) Kontsigna bidez.

Instalatutako seinaleak zerbitzuan jarri behar direnean eta daudenak kendu zein lekuz aldatu behar direnean.

b) Gidariei luzatutako jakinarazpenen bidez.

Seinalerik zerbitzuan jarri zein kendu behar denean, larrialdi kasuetan, kontsigna bidez sartu zein kentzen diren arte, ABA baten bidez jakinarazi ahal izango da, edo bestela elkarrizketa grabatuaren bidez.

c) Karteltzarrak trenbidean jarri eta trenbidetik ken daitezke alde zuzenetik iragarri gabe.

d) Abiaduraren mugak zerbitzuko aginduen bidez jakinaraziko dira.

e) Seinale berrien sorrera eta Arautegi honetan agertzen diren seinaleen itxura eta aginduen aldaketak Kontsigna edo Jarraibide Tekniko bitartez jakinaraziko zaizkie interesdun langileei.

#### 203.– Seinaleak jartzeko eta erakusteko ohiko aldea.

##### Trenbide bakarrean:

Seinaleak trenbidearen eskuinean, ibileraren noranzkoan, edo bestela goiko aldean jarriko dira normalean.

Inoiz, leku hori txarra delako edo gutxi ikusten delako, beharrezkoa bada, ezkerretara ere jarri ahal izango dira.

##### Trenbide bikoitzean:

Ezkerretik zirkulatzen den lineetan ezkerretan edo goiko aldean egongo dira normalean, eta eskuinetik zirkulatzen denetan, eskuinetan edo goiko aldean.

Seinale bat trenbide bat baino gehiagori zuzen dakioko.

Gidariantzat zalantzarri izan daitezkeen seinaleetan gezi adierazleak jar daitezke, seinale horrek adierazten duenak zein trenbidetan duen eragina jakin dezaten.

## **204.– Seinale desberdinak leku berean.**

Gidari batek leku berean aurkako aginduak ematen dituzten seinale desberdinak aurkitzen baditu, agindurik murriztaileena beteko du.

## **205.– Gaueko seinaleen erabilera.**

Gaueko seinaleak kasu hauetan erabiliko dira:

- Iluntzen hasten denetik egunak argitu arte.
- Eguraldi txarrarengatik seinaleak 200 metrora ikusten ez direnean.
- Tuneletan.
- Lur azpiko geltokietan.
- Karteltzarrak eta plakak erreflektagarriak izango dira, eta berdinak izango dira gauez zein egunez.

## **206.– Seinaleen egiaztapena.**

Seinaleez eta hauen manipulazioaz arduratzen den langilea, zerbitzuak iraun bitartean, baina batez ere, zerbitzu hasieran, seinaleak ondo dabiltzala eta behar dena adierazten dutela egiaztatu beharko du beti, horretarako egokiak diren bitartekoen bidez.

## **207.– Seinaleen zenbakiak.**

Oinarrizko seinale finkoek plaka batean beren zenbakia eta letra eramango dute, horretarako margo erreflektagarria erabiliko da. Plaka hori seinalearen egoeraren lekuko izango da.

## **208.– Seinaleen sailkapena.**

Seinaleak honela sailkatzen dira:

### **1.– Finkoak.**

- a) Oinarrizkoak.
- b) Adierazleak.
- c) Abiadura mugatzekoak.

2.– Eramangarriak

3.– Trenetakoak

## 209.– Seinale finkoak.

Geltokietan eta ibilbidean beti daudenak.

**Oinarrizko seinale finkoak:** trenen zirkulazioa eta maniobrak arautzen dituztenak dira.

Sarrerako seinalea: zirkulazioko trenbidean geltokiko sarreran dagoena.

Sarrerako barruko seinalea: geltoki baten barruan, trenbide baten edo gehiagoren sarreran dagoena.

Aurrerako seinalea: oinarrizko beste seinale finkoaren aurrean dagoena. Hark adierazten duenaren berri ematen du, baina ezin du gelditzerik agindu.

Irteerako seinalea: geltokitik irteteen trenbidean dagoena.

Irteerako barruko seinalea: geltoki baten barruan, trenbide bat edo gehiagoren irteeran dagoena.

Bitarteko seinaleak: blokeo automatikoa duten ibilbideetan daudenak.

Trenbide pasaguneko seinaleak: babespeko trenbide pasaguneetara heldu aurretik daudenak.

Maniobretako seinaleak: trenen maniobrak arautzen dituztenak.

Sarrerako edo irteerako seinaletik aurrera egiteko seinaleak: sarrerako edota irteerako zenbait seinaleen mastan daudenak.

**Seinale adierazleak.**– Beraien adierazpenen bitartez aurreko seinaleen aginduak osatzen dituzten seinaleak dira.

Orratzen posizioaren adierazleak

Trenbidearen adierazlea

Trenbide arteko piketea

Nasan gelditzekoak

Trakzio elektrikorako bakarrik diren adierazleak

Poste kilometrikoak eta hektometrikoak

Karteltzarrak

Orrazdun marmitak.

Seinale errepikatzailea.

**Abiadura mugatzeko seinaleak.**– trenbidearen zein instalazioen baldintza bereziengatik trenen ibilerari murrizketak ezartzen dizkiotenak.

Abiadura mugatuaren iragarpena

Abiadura mugatua

Abiadura mugatuaren amaiera

## **210.– Seinale eramangarriak.**

Edonon eta edonoiz erabili edo egin daitezkeenak dira.

Gelditzeko eskuz esatea.

Kontuz ibiltzeko eskuz esatea.

Erabateko geldialdiaren iragarpena.

Erabateko eta uneko geldialdia.

Iragarpena, kontuz ibiltzearen hasiera, amaiera eta geldialdia.

Doala tren.

Igarotzeko seinalea.

Treneko txistuaren bidezko seinaleak.

Alarma seinalea.

## **211.– Trenen seinaleak.**






























Trenetan daudenak edo trenetako agenteek egiten dituztenak.

Aurreko seinaleak.

Atzeko seinaleak.

**212.– Koloreen eta formen kodea.**

Seinale nagusien itxura eta adierazpenak kode honetan oinarritzen dira:

	ITXURA	ADIERAZPENA	KODEA
1	 BERDEA	<b>AURRERA LASAI</b>	
2	 HORIA	<b>KONTUZ IBILI</b>	
3	  GORRIA	<b>AURRERA LASAI</b>	 
4	 GORRIA	<b>GELDITU</b>	
	 GORRI BIKOITZA		
	  GORRI BIKOITZA		 
	 		 
5	 	<b>SEINALEA IGAROTZEKO BAIMENA</b>	  
6	 ZURIA	<b>MANIOBRA-ARIKERAN IGARO</b>	
7	 LILA	<b>MANIOBRA-ARIKERAN GELDITU</b>	

	<b>AURRERATUA</b>	
	<b>BITARTEKOA</b>	
	<b>IRTEERA EDO SARRERA, KOKAGUNEAREN ARABERA. SEINALEAK DITUEN ZUTABEAREN ADIERAZPENAREN ARABERA BEREIZTUAK: E: SARRERA S: IRTEERA</b>	
		
	<b>SARRERA EDO IRTEERA BAXUA</b>	
	<b>MANIOBRAK</b>	
	<b>LINEAREN AMAIERA</b>	









**213.– Seinale osagarriak.**

Trenbidearen, instalazioen, materialaren eta seinaleen berezitasunen argibide osagarriak ematen dituztenak.

**214.– Erreserbatua.****2.2.– SEINALE FINKOAK****2.2.1 Oinarrizkoak****215.– Aurretiazko seinaleak.**

Bi argidun seinaleak dira, pantaila ertz borobildun lauki edo laukizuzen erakoak, fondo beltz eta ertz zuriak dituztenak. Hauek dira gidariei ematen dizkieten aginduak:







Seinale horiek argirik ez izateak kontuz ibiltzeko esan nahi du.

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
 Argi berde bat	 <b>AURRERA LASAI</b>	Ohiko abiaduran zirkulatzeko baimena
 Argi hori bat	 <b>KONTUZ IBILI</b>	Trenaren abiadura murriztu, une horretan geratzea adieraziz dagoen hurrengo seinalearen aurrean geratu ahal izateko
 Argi berde bat	 <b>AURRERA LASAI</b>	Ohiko abiaduran zirkulatzeko baimena
 Argi hori bat	 <b>KONTUZ IBILI</b>	Trenaren abiadura murriztu, une horretan babesik gabe dagoen hurrengo T.P. seinalearen aurrean geratu ahal izateko

**216.– Bitarteko seinaleak.**

Bi edo hiru argidun seinaleak dira, goiko eta beheko muturra borobilduta dituen laukizuzen erako pantaila beltz ertz zuriduna dutenak. Ondoren esango da zer adierazten dioten gidariari:

Seinale horietan argirik ezean, gelditzeko dioela ulertuko da, eta horretarako agintzen den guztia beteko da.

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
 <p data-bbox="284 860 432 891">Argi hori bat</p>	 <p data-bbox="587 831 815 862"><b>AURRERA LASAI</b></p>	<p data-bbox="906 656 1374 745">Hurrengo seinalera arte zirkulatzeko baimena, seinale hori une horretan geratzeko agintzen ari dela jakinaraziz.</p>
 <p data-bbox="272 1151 443 1182">Argi berde bat</p>	 <p data-bbox="587 1133 815 1164"><b>AURRERA LASAI</b></p>	<p data-bbox="890 978 1390 1126">Hurrengo seinalera arte zirkulatzeko baimena. Bi argi baino ez dituzten seinaleetan, ez da adierazten zein egoeratan dagoen hurrengo seinalea une horretan.</p>
 <p data-bbox="280 1420 437 1451">Argi gorri bat</p>	 <p data-bbox="639 1402 762 1433"><b>GELDITU</b></p>	<p data-bbox="882 1261 1398 1417">Seinalearen aurrean geratu, gainditu gabe, adierazpena aldatu edo gainditzeko agindua jaso arte. Gainditze baimenak adierazten dituen baldintzetan egin beharko da aurrera.</p>









**217.– Irteerako seinaleak.**

Hiru edo lau argidun seinaleak dira, laukizuzen edo "L" edo alderantzizko "L" itxura duten pantailadunak, goiko eta beheko muturra borobilduta dituen laukizuzen erako pantaila beltz ertz zuriduna dutenak. Ondorengo koadroan agertzen dira gidariari ematen dizkieten aginduak. Lau argirekin, horiak ohiko abiaduran joateko baimena ematen du, kontuan izanik une horretan hurrengo seinaleak gelditzeko dioela.

Lau argirekin, horia eta berdea piztuta, gidariari ohiko abiaduran joateko baimena ematen dio, kontuan izanik bide-zati banalizatu batean I. trenbidetik edo II. trenbidetik ibiltzera doala.



Seinale horietan argirik ezean, gelditzeko esaten ari dela ulertu behar dugu.







ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
	 <p><b>AURRERA LASAI</b></p>	<p>Irteteko eta hurrengo seinalera arte ohiko abiaduran zirkulatzeko baimena.</p>
	 <p><b>GELDITU</b></p>	<p>Irteera debekatua. Ez da irtengo seinalearen adierazpena aldatu edo gaitzetzeko agindua jaso arte. Gaitzitze baimenak adierazten dituen baldintzetan egin beharko da aurrera.</p>
	 <p><b>KONTUZ IBILI</b></p>	<p>Lau argirekin, argi horiak zirkulatzeko baimena ematen du, une horretan hurrengo seinalea geratzeko adieraziz dagoela.</p>
	 <p><b>AURRERA LASAI</b></p>	<p>Irteera baimentzen du ibilbide banalizatuan, gidariari, bere parekotasunekoa ez den beste trenbide batetik zirkulatu behar duela jakinaraziz.</p>

## 218.– Sarrerako seinaleak.

Hiru edo lau argidun seinaleak dira, laukizuzen edo «L» edo alderantzizko «L» itxura duten pantailadunak, goiko eta beheko muturra borobilduta dituen errektangelu erako pantaila beltz ertz zuriduna dutenak. Ondorengo koadroan agertzen dira gidariari ematen dizkieten aginduak.

Seinale horietan argirik ezean, gelditzeko esaten ari dela ulertu behar dugu.

Hiru argirekin, bi gorri izango ditu sartzea debekatuta dagoela adierazten duenak, eta berde bat, sartzeko baimena adierazten duenak:

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
	 <b>AURRERA LASAI</b>	Sarrera baimentzen du
	 <b>KONTUZ IBILI</b>	Trenaren abiadura murriztu sarrerako orratzetik igarotzean, trenbide desbideratuan sartzeko.
	 <b>GELDITU</b>	Sarrera debekatua. Igarotzea debekatua seinalearen adierazpena aldatu arte edo gainditzeko agindua jaso arte, seinalearen adierazpenak edo gainditze baimenak adierazten dituzten baldintzetan egin beharko da aurrera.

## 219.– Sarrerako zein irteerako seinale bat gainditzeko seinaleak.

Argi bakarreko seinaleak dira, pantaila borobil beltz ertz zuridunak, seinale nagusiaren ondoan jarrita. Hauexek dira gidariari ematen dizkieten argibide eta aginduak:

### Sarrerako seinale batean.

Gidariari seinalea «ikusitako ibileran» gainditzeko baimena ematen dio, honaino:

- Hurrengo maniobratarako seinaleraino
- Aparkatzeko punturaino, aurreko maniobratarako seinaleek «igarotzea libre» adierazten baldin badute.





### Irteerako seinale batean.

**Trenbide bikoitzean:** seinalea «ikusitako ibileran» gainditzeko baimena ematen du, hauek gainditu gabe:

- Hurrengo maniobratarako seinalea.
- Aurkako trenbideko sarrerako seinalea.
- Muga adierazten duen karteltzarra.



**Trenbide bakarrean edo trenbide bikoitz banalizatuan:** seinalea gainditzea baimentzen du «lkusi ahalako ibilerarekin», baina honako hauek gainditu gabe:

- Hurrengo maniobrarako seinalea.
- Maniobra egiten duen trenbidearen sarrerako seinalea.
- Muga adierazten duen karteltzarra.

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
 <p>Argi zuri bat</p>	 <p><b>SEINALEA IGAROTZEKO BAIMENA</b></p>	Irteerako seinalea gainditzeko baimena ematen du bistako ibileran, sarrerako seinalea gainditu gabe
 <p>Seinalea itzalita</p>	 <p><b>SEINALEA IGAROTZEKO DEBEKUA</b></p>	Geldik egongo da seinalearen aurrean

## 220.– Linea amaieraren seinalea.

Hiru argi gorridun seinaleak dira; triangelu alderantzikatuaren itxurako pantaila dute, beltz kolorekoa, eta ertz zuria. Gidariari, amaierako geltokiko topera han dagoela adierazten diote.

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
 <p>Hiru argi gorri</p>	 <p><b>GELDITU</b></p>	Abiadura murriztu, haren aurrean geratzeko baldintzetan egoteko

## 221.– Trenbide pasaguneko seinalea.

Gidariari trenbide pasagunea babesteko gailuak zein egoeratan dauden jakinaraziko dio.

Trenbide pasagunearen albo bietara jarrita dago, trenbide bakarrean zein trenbide bikoitzean, trenbide bikoitz banalizatutako lineatan.

**1.– Babestutako trenbide pasagunea.**

Gidariari, argi berde finkoa dagoenean, Trenbide pasagunetik ohikoa den legez jarraitzeko aginduko dio, oztoporik egon ezean. Argi berdea distiratsua dagoenean, ohikoa den legez jarraitzeko aginduko dio baina egoera horren berri AP-ari irradi-telefonemaren bidez eman beharko dio edota geldialdia egingo duen lehenengo geltokiko Zirkulazioko Agenteari.





**2.– Babesik gabeko trenbide pasagunea.**

Gidariari, argi gorri finkoa, distiratsua, edota itzalita dagoenean, trenbide pasagunearen aurrean gelditzeko prest jartzeko agindua ematen dio, babestuta egon arte bertatik aurrera ez egiteko aginduz. Edozein kasutan ere, ez dio ohiko ibilerari ekingo, harik eta trena trenbide pasagune aurrean geldituta egon arte. Egoera honen berri AP-ari irradi-telefonemaren bidez eman beharko dio edota zabalik dagoen lehenengo geltokiko Zirkulazioko Agenteari.

**222.– Maniobretako seinalea.**

Bi argidun seinale baxuak edo altuak dituzten seinaleak dira, goiko eta beheko muturrak borobilduta dituzten laukizuzen erako pantailak, beltzak eta ertz zuridunak. Hauek dira beraien itxurak eta gidariari ematen dizkioten argibideak eta aginduak.

Seinale horietan argirik ez badago, gelditzeko agintzen dutela ulertzen da, maniobretan zirkulatzen ari denean.

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
 Argi zuri bat	 <b>AURRERA LASAI</b>	Baimena ematen du maniobra erregimenean zirkulatzeko, 20 km/h-ko abiadura gainditu gabe.
 Argi lila bat	 <b>GELDITU</b>	Seinalearen aurrean geratu, gainditu gabe. Ez zaio ibilerari berriro ekingo seinaleak baimentzen duen arte edo gainditzeko agindua jaso arte.

## 2.2.2 Seinale adierazleak:

### 223.– Orratzen posizioaren adierazlea.



Orratzetik igarotzea adierazten du, desbideratutako bidetik edo biderantz.

Orratzetik igarotzea adierazten du, trenbide zuzenetik edo trenbide zuzenera

- 1.– Geltokietan egoten da, baina trenbide hutsean ere egon daiteke eta komeni denaren arabera, beste seinale batzuen mastan edo bera bakarrik jartzen da.
- 2.– Trenek edo maniobrek zein trenbidetatik edo zein trenbidetara hartuko duten orratza adierazten du.
- 3.– Irteerako ibilbideetan, seinaleak, orratza trena edo maniobra dagoen trenbidea ez den beste bati begira dagoela adierazten badu, gidariari, geldik badago, ez abiatzeko agintzen dio, eta martxan badago, gelditzeko eta seinalearen ardura duen agenteari jakinarazteko agintzen dio.
- 4.– Sarrerako ibilbideetan, trenak jarraitu beharrekoa ez den beste trenbide bat adierazten duenean, gidariari berehalako geldialdia egin dezala agintzen dio.
- 5.– Itzalita egonez gero, ikusi ahalako ibileran zirkulatuko du, adierazpenak aipatutako orratza gainditu arte.

### 224.– Trenbidearen adierazlea.

Fondo beltza duen seinalea da, trenbidearen edo trena sartuko den gunearen (tailerra) zenbakia adierazten duen argi zuridun adierazle alfa-numerikoarekin. Sarrerako seinalearen mastan jarriko da, edo bestela bera bakarrik. Seinale horrek ezer adierazten ez badu, gidariari sartu arte ikusi ahala ibiltzeko agintzen dio.



### 225.– Trenbide arteko piketea.

Bi trenbide elkartzen diren angeluan dago, eta trenbide bietatik noraino joan daitekeen adierazten du. Pintura erreflektagarri eginda egongo da, marra gorri eta zuriekin, lurrean, modu horizontalean.



### 226.– Nasan gelditzeko seinaleak.

Kaietan dauden markak dira, 20 cm-ko zabalerako zazpi laukizuzen, horizontalean jarrita.

Gidatzeko kabina marka handienaren parean geldituko da (metro 1).








Markak pintura erreflektagarriak dira margotuta, gauez ere ikus daitezten.

Kasu jakinetan, horien ordez beste erreferentzia mota batzuk jar daitezke, egokiagoak direnak, eta horien berri eman beharko zaie gidaritzako langileei.



### 227.– Trakzio elektrikorako adierazleak.

Seinale hauek behin betikoak edo aldi baterakoak izan daitezke, kontaktuko linean matxurarik egonez gero.

ITXURA	ADIERAZPENA	AGINDUA GIDARIARI
	<b>KATENARIAREN AMAIERA</b>	Bere aurrean geratu, gainditu gabe
	<b>KATENARIAREN GUNE NEUTROAREN HASIERA</b>	Trakzio agindua kendu
	<b>KATENARIAREN GUNE NEUTROAREN AMAIERA</b>	Gidariak trakzio agindua eman dezake.
	<b>KATENARIAREN EBAGUNEA</b>	Trakzio agindua kendu, azken pantografoa gainditu ondoren trakzio agindua ematen joan.
	<b>PANTOGRAFOEN JAITSIERA</b>	JAITSI pantografoak eta ez igo pantografoak igotzeko seinaletik igaro arte
	<b>PANTOGRAFOEN IGOERA</b>	Pantografoak igo ditzakezu
	<b>SEKZIOAREN ISOLAGAILUA</b>	Trakzio agindua kendu ukimeneko linearen isolagailutik igarotzean eta ez aparkatu bertan

## 228.– Poste kilometriko eta hektometrikoak.

Trenbidean daude eta kilometroa eta hektometroa adierazten dituzte.

Atzeko aldean idatzi bera daukate.

Goiko zenbakiak kilometroa adierazten du eta behekoak hektometroa.









## 229.– Karteltzarrak.

Gidariei gainerako seinale finkoekin loturarik ez duten aginduak eta argibideak emateko erabiltzen dira, eta letrak, hitzak, zenbakiak edo irudiak daramatzate.

Karteltzar berriak sortu direla jakinarazi behar zaio gidariari, Kontsignaren bitartez.

Hona hemen gehien erabiltzen direnak:

ITXURA	SEINALEA	AGINDUAK ETA ADIERAZPENAK
	<b>TXISTUA JO</b>	Arretaz ibiltzea agintzen duen txistua jotzeko agintzen dio gidariari.
	<b>TRENBIDE PASAGUNEA</b>	Babestutako trenbide pasagunea dagoela iragartzen du, bertan adierazitako metroetara
	<b>MANIOBRA MUGA</b>	Maniobra mugimendu jakin batzuk zein punturaino egin daitezkeen adierazten du
	<b>BLOKEO AUTOMATIKOAREN HASIERA</b>	Blokeo automatiko zati batera sartzen dela adierazten du
	<b>TELEFONO BIDEZKO BLOKEOAREN HASIERA</b>	Telefono bidezko zati batera heltzen dela adierazten du
	<b>IRRATI-TELEFONIAKO FREKUENTZIA KANALA</b>	Erregulazio banda bati esleitutako irrati-telefoniako frekuentzia kanala




ITXURA	SEINALEA	AGINDUAK ETA ADIERAZPENAK
	<b>BALAZTATZE AUTOMATIKOAREN AMAIERA</b>	Trenaren abiadura gainbegiratzeari zein puntutan utziko zaion jakinarazten dio gidariari
	<b>TXISTUA JO. OBRATAKO LANGILEAK</b>	Etengabe txistua jotzeko agintzen dio gidariari, lanak egiten ari diren gunea gainditu arte, ohiko abiaduran zirkulatuz
	<b>IRRATI BIDEZKO BLOKEOAREN HASIERA</b>	Irrati bidezko blokeo gune batean sartzen dela adierazten du
	<b>TRENBIDE ADIERAZLEA</b>	Karteltzarra instalatuta duen seinaleak zein trenbideri ematen dizkion adierazpenak adierazten dio gidariari.
	<b>TOPERA GERTU DAGO</b>	Topera duen trenbidea gertu dagoela jakinarazten dio gidariari, behealdean adierazten den tartean, metrotan.
	<b>KONTUZ IBILTZEKO GUNEAREN AMAIERA 100 metrotik gorako luzerako trenak</b>	Bere paretik igarotzean, ibilera ohiko abiaduran hasteko baimena ematen dio gidariari. Karteltzar horrek ez du eraginik A.T.P.-rekin zirkulatzen duten edozein luzerako trenetan.

**230.– Marmitadun orratzak.**

Orratza puntatik hartuta, marmitaren aurpegi ZURIA ikusteak, ibileraren noranzkoari begira ezkerreko trenbidea hartuko duela adierazten dio hurbiltzen ari den zirkulazioari.

Marmitaren aurpegi GORRIA ikusteak, ordea, ibileraren noranzkoari begira eskuinetako trenbidea hartuko duela adierazten dio hurbiltzen ari den zirkulazioari.



### Orratz Talonagarriak


Noranzkoaren eskuineko trenbidetik talona daitezkeen orratzen marmitek, "T" letra beltza eramango dute aurpegi zurian.

Noranzkoaren ezkerreko trenbidetik talona daitezkeen marmitek, "T" letra beltza eramango dute aurpegi gorrian.

Talonatzen ez diren orratzen marmitek ez dute letrarik eramango.



Talonagarriak






**EZ** talonagarriak

### 231.– Irteerako seinalea errepikatzen duten seinaleak.

Seinale horiek, geratzeko puntitik irteerako seinaleak ikusteko ikusgaitasun txikia dagoen geltokietan jartzen dira.

Bi edo hiru argidun seinaleak dira; laukizuzen itxurako pantaila dute, goiko eta beheko aldeak biribilduta, eta beltz kolorekoak, ertz zuriarekin. Hona hemen seinale horien itxura, eta gidariei ematen dizkieten jarraibideak eta aginduak:

ITXURA	AGINDUAK GIDARIARI
 <p data-bbox="284 1641 432 1675">Argi hori bat</p>	<p data-bbox="544 1518 1043 1608">Seinale honek errepikatzen duen seinalea «kontuz» zirkulatzeko baimena ematen ari dela adierazten du.</p>
 <p data-bbox="272 1906 443 1939">Argi berde bat</p>	<p data-bbox="544 1765 1043 1854">Seinale honek errepikatzen duen seinalea «<b>AURRERA LASA!</b>» baimena ematen ari dela adierazten du.</p>

ITXURA	AGINDUAK GIDARIARI
 <p data-bbox="279 488 435 515">Argi gorri bat</p>	<p data-bbox="539 365 1054 454">Seinale honek errepikatzen duen seinalea geratzeko agintzen ari dela adierazten dio gidariari.</p>

### 232.– Erreserbatua.

### 233.– Erreserbatua

#### 2.2.4.– Abiadura mugatzekoak

### 234.– Abiadura mugatuaren iragarpena.

#### Abiadura mugatuaren iragarpenerako seinalearen itxura.

Abiadura mugatua iragartzeko seinaleak itxura hau du: borobila da, zuria eta abiaduraren Km/h-ko muga beltzez duena, fondo zurian, eta orla ere zuria, seinalea aldi baterakoa bada, fondoa horia izango da.



#### Abiadura mugatua iragartzeko agindua.

Abiadura mugatua iragartzeko seinaleak gidariari aginduko dio abiadura mugatuaren seinaleak adieraziko duen km/h-ko abiadura ez gainditzeko egoeran jar dadila.

Abiadura mugatua iragartzeko seinale bi agertzen direnean, iraunkorrak zein aldi baterakoak izan, goiko seinalea tren batzuetarako izango da baliagarri eta behekoa beste tren batzuetarako. Arau orokor legez, abiadura handienekoa goiko aldean jarriko da.



**235.– Abiadura mugatua.****Abiadura mugatuaren seinalearen itxura.**

Abiadura mugatuaren seinalearen itxura hau da: erronbo forma, Km/h-ko muga adierazten duen zenbakia beltzez, fondo zurian eta ertz zuriarekin. Seinalea aldi baterakoa bada, fondoa horia izango da.

**Abiadura mugatuaren agindua.**

Abiadura mugatuaren seinaleak, bertan zehazten den Km/h-ko abiadurarik ez igarotzeko agintzen dio gidariari, bertatik hasi eta abiadura mugatuaren amaieraren seinaleraino edota muga hori aldatzen duen beste seinale bateraino.

Abiadura mugatua iragartzeko seinale bi agertzen direnean, iraunkorrak zein aldi baterakoak izan, goiko seinalea tren batzuetarako izango da baliagarri, eta behekoa beste tren batzuetarako. Arau orokor legez, abiadura handieneko seinalea goiko aldean jarriko da.


**236.– Abiadura mugatuaren amaiera.****Abiadura mugatuaren amaiera adierazten duen seinalearen itxura**

Karratu itxurakoa da, beltza fondo zuriaren gainean, orla zuriarekin.

Gidariari agintzen dio abiadura arruntari berriz ekin diezaiola bere treneko azken ibilgailuak seinalea gainditu duenean, baldin horretarako oztoporik ez badago.

Abiadura mugatuaren amaiera adierazten duen seinalea berdina da muga guztietarako.

Seinalea aldi baterakoa bada, fondo horia izango du.



### 237.– Mugen jakinarazpena.

Abiaduraren muga instalatzeko zein kentzeko jardunbide honi jarraitu behar zaio:

– **Instalazioetako agentea**

Aginte Postuari ibilbidea, kilometro puntuak eta abiadura jakinaraziko dizkio eta seinale finkoak instalatzeko zein kentzeko modua antolatuko du.


Trenbidearen edo instalazioen egoerak horrela gomendatzen badu, seinale finkoak instalatu diren bitartean, behar den babesa seinale eramangarriekin emango da.

– **Aginte Postua**


AP-k jasotako datuen berri telefonemaz emango die gidariei. AP-ak zirkulazioko agenteen esku utz dezake datu horiek jakinarazteko ardura.

### 238.– Seinaleen instalazioa.


1.– Trenbide bakarrean.



2.– Trenbide bikoitzean eta trenbide bikoitz banalizatuan. Trenbide biak ukituz.




3.– Trenbide bikoitzean edo trenbide bikoitz banalizatuan. Trenbide bat ukituz.




2. eta 3. ataletan, abiaduraren kontrako noranzkoan dagoen lehen seinaleak, abiadura mugatuarenak, une horretara arteko abiadura mugatuaren amaiera adierazten duen seinalea ordeztuko du.

4.– Abiadura muga baten amaiera eta beste azkarrago baten hasiera leku berean badaude.



5.– Abiadura muga baten amaiera eta beste motelago baten hasiera leku berean badaude.



239.– Erreserbatua.

240.– Erreserbatua.

## 2.3.– SEINALE ERAMANGARRIAK

Langileek edozein une edo tokitan erabil edo egin ditzaketenak dira.

241.– Gelditzeko eskuz esatea.

Larrialdietan, edozein gauza edo argi biziki astinduz.


Gidariari **berehala gelditzeko** agintzen dio.

Eskuz egindako seinale batengatik geldituta dagoen gidariak ez dio ibiltzeari ekingo harik eta seinalea erakutsi dion langileak agintzen ez dion arte.

Trenbidean bertan gelditu bada eta seinalearen ondoan agenterik ez badago, Gidaria irrati-telefonía bitartez jarriko da harremanetan Aginte Postuarekin, jaso beharreko aginduak jasotzeko.


Irrati-telefonía funtzionatzen ez badu, **ikusi ahalako ibileran** egingo du aurrera, oztoporik ezean, langilerik edo geltoki irekirik aurkitu arte.

600 metro egin eta langile zein geltokirik aurkitu ezean, ohiko ibilerari ekingo dio oztoporik ezean, eta, ahal duenean, AP-ri gertatutakoaren berri emango dio irrati-telefonoz zein lehenengo geltoki irekiaren bidez.



## 242.– Kontuz ibiltzeko eskuz esatea.

- 1.– Trenei sarrerarako seinalerik gabeko geltokietan sartzeko baimena emateko erabiltzen da.
- 2.– Gidariari aparkatzeko punturaino edo, trena zuzena bada eta igarotzeko seinalea erakusten bazaio, bidaiarien eraikinerako maniobra-ibileran joateko agintzen dio.



## 243.– Erabateko geldialdi iragarpena.

### Erabateko geldialdia iragartzeko seinalearen itxura.

Erabateko geldialdia iragartzeko seinaleak itxura hau du: borobila da, beltza, fondo horiaren gainean, eta diametroko marra beltza.

Gidariari astiroago joateko eta 300 metrora aurkituko duen Erabateko geldialdiko seinalearen aurrean gelditzeko prest egoteko agintzen dio.








## 244.– Erabateko geldialdia eta une batekoa.

### Erabateko geldialdiaren seinalearen itxura.

Karratua, fondoa zuria, ertz zuria eta erdian, ertzak ukitzen dituzten bi lauki gorri karratu forman.


Gidariari, bere aurrean igaro gabe gelditzeko eta instalazioetako edo zirkulazioko agenteak aurrera egiteko baimena eman arte itzaroteko agintzen dio. Trenbidean bertan gelditu bada eta seinalearen ondoan agenterik ez badago, Gidaria irrati-telefonía bitartez jarriko da harremanetan Aginte Postuarekin, jaso beharreko aginduak jasotzeko. Irrati-telefonía funtzionatzen ez badu, eta 3 minutu igaro ostean agenterik agertzen ez bada, oztoporik ezean ibiltzen hasiko da, **ikusi ahalako ibileran**, abiadura mugatuaren amaieraren seinalea aurkitu arte.



Gidariari bere aurrean geratzeko agintzen dio, gaingitu gabe, eta ibileran aurrera egiteko, baimendutako abiaduran.

### Une bateko geldialdiaren seinalearen itxura

Karratua fondo zuriaren gainean, orla zuriarekin, eta erdian gurutze beltza.



Gidariari bere aurrean geratzeko agintzen dio, eta **ikusi ahalako ibileran** edo baimendutako abiaduran aurrera egiteko.


## 245.– Kontuz ibiltzearen iragarpena, hasiera, amaiera eta geldialdia.–

### a) Iragarpena.

Gidariari astiroago ibiltzeko eta 300 metrora dagoen hurrengo seinaleari jaramon egiteko baldintzetan jartzeko agintzen dio. Seinaleak gelditzeko, kontuz ibiltzeko zein aldi bateko abiadura mugatzeko esango du. Ohiko ibilerari ekingo dio aurkako noranzkoan doazen trenentzat jarrita dagoen eta bere noranzkoan dagoen lehen seinalea aurkitu arte.

Seinalea agente batek eskuz egin ahal izango du, edo bestela trenbidean bera bakarrik ere egon daiteke.

### KEINUKARIA EDO DISTIRATSUA




Egunez

Gaueko seinaleak

### b) Hasiera.

Iragartzeko seinaletik 300 metrora egongo da, eta gidariari seinale horretatik aurrera 30 km/h baino azkarrago ez joateko agintzen dio, berariazko bestelako agindurik izan ezean.




Egunez

Gaueko seinaleak

**c) Amaiera.**

Gidariari berriro ohiko ibilera hartzeko agintzen dio.




Egunez

Gaueko seinaleak

**d) Geldialdia**

Gidariari berehala gelditzeko agintzen dio.



Egunez

Gaueko seinaleak



**Preskripzioak.**


- Seinale hau agente batek eskuz erakutsi dezake edo trenbidean bera bakarrik egon daiteke.
- Trenbidean seinale hau erakusten duten agenteek, trena 300 metrotan segurtasunez gelditzeko behar den balaztatzearen distantzia izango dute kontuan. 300 metro lehenago beti izango du kontuz ibiltzeko seinalea, eta oztopoa alde bakoitzetik 50 metrora iragarriko da.

- c) Gidari batek trenbidean bertan gelditzeko banderatzorik zein argirik inolako agenterik gabe aurkitzen bada (erorita egon arren), irrati-telefonía bitartez jarriko da harremanetan Aginte Postuarekin, jaso beharreko aginduak jasotzeko. Irrati-telefonía funtzionatzen ez bada, eta 3 minutu igaro ondoren, **une batez geldituko da eta ikusi ahalako ibileran jarraituko du** ondoren. 600 metro egin eta agente zein oztoporik aurkitzen ez bada, ohiko abiadura hasi eta, ahal duenean, AP-ri gertatutakoaren berri emango dio irrati-telefonoz zein lehen geltoki irekian.
- d) Sorospideko tren bada, seinalearen aurrean gelditu eta kendu ostean sorosguneraino sorospideko ibileran egin ahal izango du aurrera.
- e) Seinalea zegoen tokian ezin izan bada gelditu, ahal duenean geldituko da eta c) edo d) ataletan esaten dena egingo du.


## 246.– Oztopatutako puntuen seinaleztapena.

Trenbidea ustekabean oztopatzen bada, aldi baterako zein etengabeko seinaleztapena jarri arte, eta artikuluko honek halakoetarako ezartzen duenaren arabera, berehala, behin-behineko seinaleztapena jarriko da ondoko eskemei jarraituz:





Trena aurkako trenbideko zirkulazioan badao eta trenbideko zirkulazio arruntean banderatxoak jarrita badaude, kontu handiz ibili beharko da, trenbide arruntetik joango balitz bezala.



## 247.- «Doala tren» seinalea B.T.-n.

Gidariari, zirkulazioan parte hartzen duen hurrengo geltokira berehala abiatzeko agintzen dio, oztoporik ezean.

Zirkulazioko agenteak geldik dauden treni, Telefono Bidezko Blokeoan, egiten die, tren abiarazteko unean, gidariak seinalea osatzen duten elementu guztiak argi eta garbi ikus ditzakeen tokitik, nahasterik izan ez dadin, geltokitik irteteko prest dagoen trenik egonez gero.

Egunez



Gauetz



#### Seinalea osatzen duten elementuak.

- Banderatxo gorria bildua zein argi berdedun linterna.
- Zirkulazioko agentearen posizioa.
- Txistuaren joaldi luzea.

Gidaria seinale horri adi egongo da, eta garbi sumatzen ez badu, arreta bereziko seinalea joko du berriz ere erakutsi diezaioten.

Arreta bereziko seinalea entzuten duen zirkulazioko langileak doala trena seinalea egingo du berriro kabinara hurbilduz.

**248.– «Doala trena» seinalearen beste modalitate batzuk.**

- 1.– BR ezarrita dagoenean, doala trena seinalearen ordeztu, telefoniaz, «Doala ..... zenbakiko trena» komunikazioa eman ahal izango da.
- 2.– Instalazio berezidun geltokietan, MT siglak argi finkoz, nahasterik ez sortzeko moduan erakutsiko zaio gidariari.



- 3.– Doala trena seinalea aurreikusiararen arabera eman ezin denean, zirkulazioko agenteak edota Aginte Postuak gidariari hauxe esango dio: «Doala ... zenbakiko trena.

**249.– Igarotzeko seinalea B.T.–n.**

Gidariari ohiko ibileran, zirkulazioan parte hartzen duen hurrengo geltokiraino joateko agintzen dio, oztoporik ezean. Seinale hori, zein osatzen duten elementuak ez ikusteak, berehala gelditzeko agintzen du.

Zirkulazioko agenteak tren zuzenei erakusten die bidaiariaren eraikinaren parean eta gidariak ikusteko moduko tokitik, trena sarrerako orratzetara hurbiltzen hasten denetik trenaren atzea bere aurretik igaro arte, banderatzoa zein linterna trenaren bururantz biratuz, trena igaro ahala.

Egunez



Gauetz



### Seinale hau osatzen duten elementuak:

- Banderatxo gorri bildua zein argi berdedun linterna.
- Zirkulazioko agentearen posizioa.

Bidaiarien eraikineko nasaren eta trena igaroko den trenbidearen artean beste tren bat geldi badago, seinalea gidariak ondo ikusten duen lekutik erakutsiko da.



Trenbide bikoitzean tren bi aldi berean igaroko direla aurreikusten denean, zirkulazioko langilea trenik laburrena espero den nasan jarriko da, bi trenak osorik dabiltzala egiaztatzeko. Kasu horretan, seinalea bata eta besteari txandaka erakutsiko da.

### 250.– Treneko txistuko seinalea.


TXISTUA	AGINDUA EDO ADIERAZPENA	ERABILERA
—	<b>ARRETA</b>	Ibilerari berriro ekin aurretik. Txistua jotzea agintzen duen karteltzarrera hurbiltzean edo trenbide pasaguneen inguruetan. Trenbidean pertsonak, animaliak edo ibilgailuak ikusten dituenean.
- · - · -	<b>ARRETA BEREZIA</b>	Trena zuzena denean eta ez duenean igaroteko seinalerik ikusten B.T.-n, sarrerako orratzetik. Sarrerako orratzaren aurrean edo geratzeko agintzen duen sarrerako seinale baten aurrean geldik dagoenean, T.K.N.-rik gabeko geltoki batean, eta Zirkulazio agentearekin edo A.P.-arekin harremanetan jarri ezin daitekeenean. B.T.-n doala trena seinalea aurkeztea eskatzen duenean. Seinale hori birritan errepikatuta egoteak, trena trenbidean bertan edo langilerik gabeko geltokian geldik dagoenean, gidariarekin harremanetan jartzeko agintzen dio treneko eragiketa laguntzaileari.







Trena kontrako bidetik doanean, bide arruntean banderatzkoak jartzen ikusten badu, agindutako muga bete egingo du bide arruntetik joango balitz bezala.



253.– Erreserbatua.

254.– Erreserbatua.


## 2.4.– TRENEN SEINALEAK

255.– Trenen seinaleak.



Trenak aurrean zein atzean daramatzatenak dira. Trenek seinale hauek eramango dituzte:

### Aurrean:

- Egunez: seinalerik ez





- Gauetz edo, dauden baldintzen ondorioz, ez badago ikusgaitasunik 200 metrotara:  
Material motorea: 1, 2 edo 3 argi zuri.



### Atzean:



- Egunez

Material Motorea: seinalerik ez.  
Eramandako materiala: 2 plaka gorriak eta horiak.



- Gauzez edo, dauden baldintzen ondorioz, ez badago ikusgaitasunik 200 metrotara:

Material motorea: 1 edo 2 argi gorri.  
Eramandako materiala: 2 argi gorri.



Aurreko seinaleztapenik ez dagoenean, ibilgailu motorea ez da ibiltzeko gai izango aurrean zein gauzez isolatuta edo ibilbidean 300 metro baino gehiagoko tunelak badaude. Seinalerik gabe trenbidean bertan geratzen bada, gidaria irekita dagoen lehen geltokiraino joango da, ibilera ikusgarritasunari eta bidearen ezaugarriei egokitzuz, **Trenbide pasagunetan 20 Km/h-ko abiadura igaro gabe.**

Jarraibide horien arabera, gidariak, uneko ingurumenak neurtuz inoiz aurrera egin ahal izango du Aginte Postuaren baimenarekin anormaltasuna konpon daitekeen geltokiraino.

## 256.– Atzeko seinaleak.

### Trenaren atzeko seinalerik egon ezean

Atzetik seinalerik egon ezean, trenak ez dira zirkulatzeko moduan egongo.

Aginte Postuak zein zirkulazioko agenteak tren batek seinale guztiak eraman gabe atzetik zirkulatzeko baimena eman ahal izango dute egoera bere onera ekartzeko bitartekorik dagoen tokiraino, eta trena igaroko den geltokietara gertatzen denaren berri emango zaie.

## 257.– Anormaltasunak. Seinaleen aberiak.

Seinaleen akatsez zein matxurez ohartzen diren edo horren berri jasotzen duten Aginte Postuak edo Zirkulazioko Agenteek hauei jakinaraziko diete:

- 1.– Anormaltasunen eragina jasotzen duten trenetako gidariei.
- 2.– Aginte Postuari eta behar izanez gero, eragina jasotzen duten geltokiei ere bai, neurri egokiak har ditzaten.

Agente guztiak seinaleetan ikusten dituzten eta alde aurretik jakinarazi ez zaizkien anormaltasunen eta zalantzako adierazien berri ematera behartuta daude, eskura duten biderik azkarrenetik, Aginte Postuari, eta behar izanez gero, baita hurrengo geltokiari ere.

## 258.– Treneko txistua erabilkaiztea.

Txistua trenbidean bertan hondatzen bada, gidariak, materiala alda dezakeen hurrengo geltoki irekiraino jarraitu ahal izango du abiadura abaguneen arabera murriztuz, eta trenbide pasaguneetara hurbiltzean 20 km/h-ko abiadura igaro gabe.

## 259.– Seinale itzaliak edo zalantzako adierazpenekoak.

Gidariak piztuta egon behar lukeen argia itzalita ikusten badu edo seinalaren bat zalantzako adierazpenarekin ikusten duenean, zirkulazioko agindurik murriztaileena emango balu bezala jardungo du. Hau da aginduen ordena, murriztaileenetik bigunenera:

- Gelditu.
- Kontuz.

## 260.– Gelditzeko dioen seinaleetan aurrera egitea.

Gelditzeko dioen seinale batean aurrera egiteko baimenak zuzenean bideratuko dira seinalearen ardura duen zirkulazioko agentearen eta Aginte Postuaren artean, zirkulaziorako erabiltzen ari den blokeoaren ezaugarriak kontuan izanik.

Seinalearen ardura duen agenteak, ahal dela, aurrera egiteko seinaleak ukitutako trena seinalearen aurrean gelditu baino lehen ematen saiatuko dira, alferrikako atzerapenak saihesteko.

Blokeo motaren arabera seinalearen ardura duen agentearen, zirkulazioko agentearen edota Aginte Postuaren arteko komunikazioa ezinezkoa bada, hauek bitartekari lanak egin ditzakete eta seinalearen arduradunarekin behar diren egiaztapenak egingo dituzte beraien arteko idatzizko jakinarazpenak bidaliz.

Aurrera egiteko baimena ematen duen seinalearen arduradunak mezua zuzen jaso dela egiaztatuko du.

Gelditzeko dioen seinalea ikusten duen gidariak, gelditu ondoren, Aginte Postuarekin edota seinalearen arduradunarekin jarriko da harremanetan, jarraibide egokiak eskuratzeko.

### ➤ **BAn eta TKN izanik, gelditzeko dioten seinaleetan aurrera egitea:**

Zirkulazio baldintza hauetan seinaleak gainditzeko agindua Aginte Postuak emango du, Tokiko Agintea dagoen geltokietan izan ezik, hauetan zirkulazioko agentea izango baita arduraduna.

### ➤ **BTn, gelditzeko dioten seinaleetan aurrera egitea:**

Blokeo mota honen pean ibiltzean, seinaleak gainditzeko agindua seinalearen arduraduna den zirkulazioko langileak emango du.

### ➤ **Gelditzeko dioen seinalearen aurrean geldirik dagoen gidariaren jokabidea:**

a) Irrati-telefonozko edo telefono mugikor bidezko komunikazioa badu, seinalea ikusi bezain laster, Aginte Postuarekin jarriko da harremanetan eta honen aginduaren zain geldituko da.

b) Aginte Postuarekin komunikatzerik ez dagoenean, eta seinaleak telefonoa badu, seinalearen arduradunarekin harremanetan jartzen saiatuko da.

c) Aginte Postuak, aurretiaz, seinalean aurrera egiteko agindua eman badio, gidaria aurrera egiteko baldintzen arabera arituko da.

d) AP-rekin komunikatzerik ez dagoenean, seinaleak telefonorik ez badu edota izan arren, apurtuta badago, seinaletik aurrera egiteko agindua zirkulazioko agente batek edo Aginte Postuaren baimena duen eta seinale ondoan dagoen beste agente batek eman diezaioke.

➤ **Gaunditzeko adierazpenei dagokien testua, komunikazioa eta iraunaldia:**

a) Aginte Postuaren eta gidarien artean bidalitako adierazpenak ondorengo mezuaren bidez egingo dira. Aginte Postuko grabagailua badabil ez da erregistratu ezta zenbatu beharrik izango. Gidariak testua jasotzerakoan errepikatu egingo du.

«..... treneko gidariari .....ko geltokiko ..... seinalean aurrera egiteko baimena ematen diot, baldintza hauek betez: .....».

b) Grabagailua ez badabil, aurretik zehaztutako mezua emango du, eta bai Aginte Postuak bai gidariak telefonemen liburuan zenbakia, mezua eta ordua idatziko dituzte.

c) Zirkulazioko agentearen eta gidariaren artean aurrera egiteko sortzen diren komunikazioak A.B.A. baten bitartez egingo dira beti, a) ataleko testua agertuz. Hori ezinezkoa delako jakinarazpena telefonoz egiten bada, telefonemen liburuan erregistratuko da, a) atalean dauden zenbakia, ordua eta mezua jarritz.

d) Aginte Postuarekin edo zirkulazioko agentearekin harremanetan jartzea ezinezkoa bada, A.B.A.ren bidez, aurrera egiteko agindua eman daiteke, a) atalean dagoen testu bera erabiliz.

➤ **Anormaltasunak**

Aginte Postuak, kasu jakin batzuetan, zirkulazioko bi agenterik seinaleen matxura iraunkorra dagoen tokira joateko agindu ahal izango die, bakoitza ukitutako kantoia mutur batera, bertatik luza dezaten aurrera egiteko baimena, eta telefonemen zein irrati-telefonemen bidez egiaztatuko diote elkarri kantoia libre geratu dela.

➤ **Gelditzeko seinalea behar ez bezala gaunditzea.**

Trenen batek seinale bat gaunditzen duenean, haren adierazpenaren aldaketa desegoki baten ondorioz bada ere, gidariak **berhala geldituko** du trena, eta premiaz harremanetan jarriko da Aginte Postuarekin edo seinalea bere kargupean duen agentearekin, eta haren jarraibideei jarraitu beharko zaie. Irteerako seinaleak badira, berriz abian jartzeko agindua telefonema edo ABA bidez emango da.

**261.– Seinaleetan aurrera egiteko baimena luzatzeko baldintzak.**

Seinalearen ardura duen zirkulazioko agenteak oso kontuan izango du aurrera egiteko baimenak seinaleak adierazten duen babesa ezabatzen duela eta segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu:

- Ez duela inolako mugimendu bateraezinik egiteko baimenik eman ziurtatu.
- Ibilbideko orratzak ondo daudela ziurtatu.
- Egingo den bidea libre dagoela ziurtatu.
- Gidariari seinaleak eman ezin ditzakeen aginduak eta abiaduraren mugak jakinarazi zaizkiola ziurtatu.
- Seinaleak babesturiko trenbide pasagunerik badago, hesiak itxita daudela ziurtatu.

## ➤ SALBUESPENAK

### Seinale batean aurrera egiteko baimena ondorengo egoeretan eman daiteke:

- Ibilbidea libre egon ez arren, gidariari ikusi ahalako ibileran aparkatzeko guneraino edo hurrengo seinaleraino joateko esanez.
- Gelditzeko seinalearen arrazoia bidearen egoera txarra izan litekeela sumatuz gero, gidariari **“ikusi ahalako ibileran”** joateko agintzeaz gain, balizko arrazoiaren berri emango zaio, gidariak berak martxa erregulatu dezan eta ukitutako guneak zeintzuk diren ikusi eta gero, Aginte Postuari aditzera eman diezaion.
- Zirkulazioko agenteak bere kabuz zein beste langile batzuen bidez zenbait orratz, pikete, trenbide-atzemate, hesi eta abarren posizioa egiaztatzeko modurik ez duenean, gidariari aurrera egiteko baimenean honek egiaztatzeko ere agin diezaioke baita orratzei eragin, hesiak itxi diren egiaztatu eta abar ere.
- Trenbideko zirkuituak dituen blokeo automatikoan, irteerako edo erdiko seinalea gaintitu behar duen lehenengo zirkulazioari, seinaletik aurrera ikusi ahala joateko agindua emango zaio.

### 262.– Seinaleak ikusteko zailtasunak.

Gaizki ikusten delako, eguraldi txarra egiten duelako (behe-lainoa, elurra, eta abar), seinaleak ondo ikusten ez direlako edo distira galdu dutelako garbi ikusten ez direnean, gidariak astiroago joango dira, baita behar izanez gero gelditu ere, zer dioten ziur jakiteko.

### 263.– Zerbitzuz kanpoko seinaleak.

Jarrita egon arren, Agindua dela-eta, edo ukitutako gidariak emandako adierazpenaren bitartez zerbitzuz kanpo dauden seinaleak aurretik bi listoi zuri izango dituzte, San Andres gurutze eran, eta gidariak, ez baleude bezala hartuko dituzte.

Probengatik zein beste edozergatik zerbitzuz kanpoko seinaleek zer bait adierazten badute, burua biratuko zaie nahasterik soz ez dezaten.



## **264.– Zerbitzuz kanpoko desbideraketa.**

Martxan ez dauden instalatutako desbideraketen berri emango zaio gidariari, kontsigna edo telefonema bidez, argitaratzen diren arte. Gainera, karteltzar bat jarriko da desbideraketaren alboan, ez dagoela martxan jakinarazteko.

## **265.– Erreserbatua.**

## **266.– Erreserbatua.**

# **2.5.– SEGURTASUN INSTALAZIOAK**

## **267.– Zerbitzua emateko baldintzak.– Abiaduraren kontrolerako eta zainketarako gailuak.**

Ibilgailu motoreak zainketarako gailua (gizon hila) behar bezala funtzionatzeko baldintzetan izango du eta egin beharreko biderako abiadura erregistratzeko nahikoa elementu izango du aldean.

Azpiegituretan erabiltzen diren makina laguntzaileek, T. 10-20-30 motako trena aseguratzen dutenean, ez dute zertan izan abiadura erregistratzeko gailu hori.

Ibilgailu guztiek izan behar dute abiadura-neurgailua. Ez badute, soilik T10-20-30 motako trenak aseguratu ahal izango dira.

## **268.– Anormaltasunak.– Abiaduraren kontrolerako eta zainketarako gailuak.**

**1.–** Zerbitzua ematen ari dela, abiaduraren kontrolerako zein zainketarako gailua hondatzen bada, gidariak zuzenean jakinaraziko dio AP-ri irratit-telefoniatik edo lehen geltoki irekiko zirkulazioko langilearen bitartez. AP-ak tren enpresari emango dio horren berri, ordezkoa ahal bezain laster jar dezan.

**2.–** Hondatu dena abiadura-neurgailua bada eta tren enpresak ibilgailu motorea aldatzerik ez badu, zerbitzuan iraunaraziko dio bidaia amaitu arte, eta gidariak hartuko ditu beharrezko jotzen dituen neurriak, ibilbide bakoitzeko gehieneko abiadurak ez gaingitzeke.

**3.–** Zainketarako gailua (gizon hila) hondatzen bada, Aginte Postuari jakinaraziko zaio, eta hark tren enpresari, hark trena ahalik eta arinen konpontzeko edota beste baten truke aldatzeko hartu beharreko neurriak har ditzan.

## **269.– Segurtasun instalazioen erabilpena.**

**1.–** Arautegi honetan eta dagokion Kontsignan esandakoaren arabera egingo da.

**2.–** Orratz, sarraila elektriko, hesi zein kaltze baten posizio zuzena zein den asmatzerik ez dagoenean, instalazioa bere kargu duen Agentea bera joan eta aztertuko du, edo bestela bere esanetara dagoen beste Agenteren bat bidaliko du begiratzaera.



**3.– Debekatuta dago:**

- Bouré giltza bikoiztuak erabiltzea, maniobra, kontrol eta katigamenduko gailuak faltsutzea eta jardunbide normala eraldatzen duen beste edozein eragiketa.
- Orratzei urrunetik eragitea, haien gainean ibilgailurik badago.
- Maniobretarako gailuak, emandako aginduarekin bat ez datozen posizioa izatea, agindua bete ez bada.
- Ibilbide baterako baimena ematen duten seinaleak irekita izatea, trenak bide hori ibili ondoren.

**270.– Prezintuak.**

- 1.– Segurtasuneko instalazioen mantentze zerbitzuen eginkizunen artean dago hurrengo gailu hauei prezintua jartzea:

**Katigamendu mekanikoak**

- Orratzei eragiteko palankei.
- Orratzen oinezko morroiloiei.
- Seinale morroiloiei.

**Katigamendu elektrikoak**

- Morroilo elektrikoak era artifizialean askatzeko gailuei.
- Larrialdietan Tokiko Agintea hartzeko gailuei.
- Era elektrikoan eragindako hesiei.
- Oinbideko Tokiko Agintearen eskukoari.

- 2.– Aire librean dauden tresnen kuxak ez dira prezintatuta egongo, giltzarrapoekin segurtatuta baizik.

- 3.– Zerbitzuaren beharregatik, edota bestelako gorabeheraren batengatik instalazioen ardura duen agentea prezinturen bat ez dagoela ohartzen bada, edo prezintua kendu behar badu, AP-ari jakinaraziko dio; eta hark, era berean, instalazioetako agenteei emango die horren berri, ahal bezain laster.

Gailuak kontadorerik badu, oharrean kontadoreak dioen zenbakia ere idatziko da

Instalazioetako agenteek, behin-behineko prezintuen ordez zerbitzuari dagozkienak jarriko dituzte ahalbait arinen.

**271.– Lanak segurtasun instalazioetan.**

Izaeraren eta zirkulazioan duten eraginaren arabera, hiru mailatan sailkatzen dira:

**1.– maila:**

Segurtasuneko instalazioen ezarpena, aldaketa zein kenketa. Kontsignen bidez arautuko dira beti.

**2.– maila:**

Kontserbazio lan handiak. Hauek ere kontsignen bidez arautuko dira.

**3.– maila:**

Mantentze programatuko zein matxurak konpontzeko lanak, segurtasuneko instalazioetako lanei ukitzen diotenean.

- 3. mailako lanak instalazioaren ardura duen agentearekin bideratutako telefonemek arautuko dituzte.

Lanari ekin baino lehen, instalazioetako Agenteak instalazioa bere kargupean duen langileari, telefonemaren bidez, lanak egiteko baimena eskatuko dio. Halaber, telefoneman ukitutako gailuen zerrenda idatziko du.

- 1.– «.....n lanak egiteko baimena eskatzen dut, zehazten diren gailuei eragiten baitie. 20..... (e)ko .....(e)an .....(e)(t)an hasi eta gutxi gorabehera .....(e)(t)an amaituko dira»

Instalazioaren ardura duen Agenteak instalazioetako langileari telefonema hauetako bat bidaliko dio lanak baimentzeko edo ezezkoa emateko:

- 2.– «Zehazten diren gailuei eragiten dizkien .....n egin beharreko lanak egiteko baimena ematen dut»

- 3.– «Ez dut ematen zehazten diren gailuei eragiten dizkien .....n egin beharreko lanak egiteko baimenik, arrazoi hauek direla eta.....».

Behin lanerako baimena eman ondoren, instalazioaren ardura duen Agenteak eta AP-ak telefoneman zehazten diren seinale, orratz eta gainerakoak zerbitzuz kanpo utziko dituzte.

Lanak amaitutakoan, instalazioetako Agenteak, instalazioa bere kargupean duen langileari ondorengo telefonema igorriko dio.

- 4.– «Lanak amaitu dira. Zirkulazio normala berrekin daiteke ondorengo baldintzetan .....»

Zerbitzuen beharreatatik, tren zein maniobra baten, zirkulaziorako zerbitzuz kanpo dagoen gailuren bat erabili behar bada, honela jardungo da:

Instalazioen ardura duen langileak instalazioetako Agenteari telefonema hauetako bat bidaliko dio:

- 5.– «..... trenbidetik egiten den (sartu, irten, igarotzeko) ibilbiderako, (seinalea, orratza, kaltzea, eta abar) (zein posiziotan, zer adieraziz) esan behar da»

- 6.– «..... aldetik maniobrak egiteko, (seinalea, orratza, kaltzea eta abar) behar da»  
“..... aldetik maniobrak egiteko (seinalea, orratza, kaltzea eta abar) behar da”

- 7.– «Trenbidetik (sartzeko, irteteko, igarotzeko) ibilbidea ezarri behar da»

Instalazioetako Agenteak, telefonemaren edukiaren berri izatean, erregistroaren zenbakia idatziko du eta eskatutako ibilkizuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu, instalazioaren ardura duen agenteari zirkulazioan ezarri behar direla egokiesten dituen neurriak hartzeko telefonemaren bidez aginduz (abiadura gutxitu, seinalean aurrera egiteko baimena eman, orratzaren aurrean gelditu, eta abar.).

Edonola ere, instalazioetako Agenteak zirkulazioko langileari jakinaraziko dio, edo AP-ri agiri jatorrizkoan eta kopian horri dagokion atala betez, eta ezin izango balu, gauza bera esateko telefonema bidaliko die.

## **2.6.– GIDARITZARI LAGUNTZEKO SISTEMA**

### **272.– Zerbitzua eskaintzeko baldintzak.– ATP.**

1.– Tren batek A.T.P.–rekin zirkula dezan, hau behar da:

- Trenak, linean instalatutakoarekin bateragarri den ekipoa izatea.
- Kabinako eta lineako instalazioa erabilgarri eta zerbitzuan egotea

### **273.– Preskripzioak zirkulazioan – ATP.**

1.– Ekipoak, tailerretik irteten denean, funtzionatzeko beharrezko egoerarik onenean egon behar du.

2.– Aginte postuak edo zirkulazioko agenteak gelditzeko dioen seinalea igartzeko agintzen duenean, gidariak igarotzeetako sakagailua sakatu beharko du, larrialdiko balazta aktiba ez dadin.

3.– Trenbide pasaguneren batek ez badu babesik, igarotzeetako sakagailua sakatuko da, eta AP-ari emango zaio egindakoaren berri; horrez gain, babesik gabeko trenbide pasaguneetan ibiltzeko araututako zirkulazioko preskripzioak bete beharko dira.

### **274.– Anormaltasunak – ATP.**

1.– Aginte postuak sistemari loturiko anormaltasunen baten berri badu, mantentze lanetako langileei jakinaraziko die, edo tren enpresari, material mugikorrari loturikoa bada, eta hark konponduko du.

2.– Anormaltasuna gidariak ikusi badu, aginte postuari jakinaraziko dio, eta hark aurreko paragrafoan aipatu bezala jokatu du.

3.– Arazoa trena zerbitzu egiten ari denean agertzen bada, gidariak aginte postuari jakinaraziko dio. Aginte postua harremanetan jarriko da tren enpresako arduradunarekin, eta materiala ahal bezain laster ordeztu behar duela adieraziko dio.

### **275.– Erreserbatua.**

### **276.– Erreserbatua.**

## III. TITULUA. ZIRKULAZIOA

### 3.1.– OROKORTASUNAK

#### 301.– Trenen zirkulazioa.

Trenen zirkulazioak Aginte Postuetako, zirkulazioko, instalazioetako, trenbide pasaguneetako eta azpiegiturako langileen ekintza koordinatua eskatzen du, oztoporik gabeko ibilkizun segurua bermatzeko xedea betetzeko.

Ekintza koordinatu hori zirkulatzen ari diren trenen identifikazioan, trenon ordutegi, geldialdi eta abiadurak zein diren jakitean eta tren bakoitzaren inguramen berezien berri behar denean ematean oinarritzen da.

#### 302.– Trenak iragartzeko eta kentzeko prozedura.

Honela iragarri zein kenduko dira:

– **Zerbitzu Agindu bitartez.**

Ibilera zehatza duten trenak, agindua argitaratzeko eta banatzeko denbora dagoenean. Zerbitzu Agindu bakoitzean, egun bateko edo gehiagoko tren bat edo gehiago iragarri edo kendu ahal izango da.

– **Telefonema bitartez.**

Idatziz iragarri zein kendu ez diren trenak telefonemaz iragarri zein kendu ahal izango dira, aldez aurretik Aginte Postuak abiapuntuko geltokiko zirkulazioko agenteei horren berri emango die.

Iragarpeneko azken geltokia trenaren sorrera agindu duen APren kargu ez dagoen geltokia bada, AP horrek telefonema bidez jakinaraziko dio beste AP bati, eta hark telefonema bidez jakinaraziko die zirkulazioan tartean diren eta tren horren zirkulazioaren eraginpean dauden geltokiei.

Tren bat sortzearen edo kentzearen eragina duen gidariari, AP-ak erabakitakoaren arabera, jatorriko geltokiko zirkulazioko agenteak ABA bat igorri edo AP-ak bidalitako telefonemaren bidez jakinarazi ahal izango zaio.

#### 303.– Atzerapena dakarten trenen eraketa.

Zerbitzuko inguruabarren ondorioz trenen batek atzerapena badakar eta AP-ak, zirkulazioa antolatzeko helburuarekin, atzerapena dakarren trena bitarteko geltoki batetik sortzea erabakitzen badu, honela jokatuko da:

- Atzerapena dakarren trena, eraketaren unean dagoen geltokitik kenduko da; baldin martxan jarraitzen badu, geltoki horretatik aurrera bidaiariak garraiatzeko tren gisa iragarriko da, eta jatorrizko trenaren abiadura eta geldialdi berdinak egingo ditu.

**304.– Trenak iragartzeko eta kentzeko telefonemak.**

1.– Aginte Postuak aparteko trena sortu edota iragarritako trena kendu behar duenean, horren berri emango die Zirkulazioko Agenteei, zirkulazioan parte hartzen duten geltokietan, edo ukitutako trenaren gidariari, testu honen bitartez:

« ..... eta ..... artean ..... trena jarriko dugu, ..... klasekoa, ..... seriekoa eta ..... motakoa, ..... -ren parekoa; (ordua) .....–(e)tan abiatuko da, eta (lekua) .....n gurutzatuko da .....trenarekin, eta ..... n ..... trenarekin»

« ..... trena kendu da, .....klasekoa, ..... eta ..... artean.»

2.– Aurreko komunikazioa idazteko, honako ohar hauek kontuan izan behar dira:

- Klasean, hauek adierazi beharko dira: bidaiariak, merkantziak, materiala edo lanak.
- Makinistak zirkulazioaren jarraipena errazago egin dezan, aparteko trenaren iragarpenean, teoriarik beste tren batzuekin egin behar dituen gurutzaketak jaso ahal izango dira.
- Atal asimilatuan, iragarritako trenaren abiadura eta geltoki berberak dituen eta Ibilbideen Liburuan erregistratuta dagoen trena adieraziko da.

**305.– Aldi bateko aginduen eta informazioen jakinarazpena.**

Trenen zirkulazioari eragiten dioten aldi bateko agindu eta berriak ibilera zuzentzen duen eta agindu eta berriei jaramonik egin behar dien gidariari jakinaraziko zaizkio.

*Zirkulazioaren aldi bateko Aginduen eta Informazioen Buletinean (AIB-BOI) zein telefoneman bertan agindu eta berri bi edo gehiago sartu ahal izango dira. Bi puntu jakinen artean behin eta berriro joan-etorrian ari diren trenetako Gidariei berriak emateko AIB bakarra ere egin daiteke.*

*Aginduen eta Informazioen Buletina Gidariari ematen zaion dokumentua da, zirkulazioari eragiten dion aldi bateko xedapen bat agindu zein jakinarazteko.*

**AGINDUEN ETA INFORMAZIOEN BULETINA**

.....(e)ko geltokia

..... zk.–ko treneko Gidariari hau agintzen/jakinarazten zaio (\*):

.....  
 .....  
 .....  
 .....

(\*): Ezabatu egokia ez dena.

Gidaria \_\_\_\_\_ Zirkulazioko Agentea

Karnet zk. ....

Karnet zk. ....

### 306.– Aginduzko geldialdia.

1.– Trenak ezarrita duten tokietan geldituko dira, seinaleek diotena diotelarik ere, geldialdia ondoren adieraziko den bezala kentzen ez bazaie behintzat.

2.– Bidaiariena ez den tren baten geldialdia eta bidaiarien tren baten geldialdi teknikoa kendu ahal izango dira irteerako seinaledun geltokietan, beste trenen batekin gurutzatu behar ez badu, honela:

BA-n irteerako seinaleek igarotzeko baimena emango dute. Irrati-telefoniarik bada gidariari jakinaraziko zaio.

BT-n, zirkulazioko agenteak igarotzeko seinalea erakutsiko du blokeoko arauak bete ondoren.

### 307.– Ezusteko geldialdia.

1.– AP-ak zerbitzuaren arrazoizko beharregatik tren bat ezustez geltoki, geraleku zein trenbideko Kilometro puntu batean gelditzeko baimena eman ahal izango du, eta ukitutako zirkulazioko agenteei horren berri emango zaie.

2.– Ezusteko geldialdia trenak geldialdia duen aurreko geltoki irekian zein irrati-telefoniaz jakinaraziko zaio Gidariari, lekua eta zergatia zehaztuz. Halakoetan, Ezusteko geldialdia uneko geldialditzat hartuko da. Jakinarazpenik eman beharrik ere ez da izango Ezusteko geldialdia geltoki batean egin behar eta bertako zirkulazioko agentea arduratzen bada.

3.– Gidariari egin beharreko jakinarazpena honela egingo da:

**“Geratu egin beharko zara (geltoki, geraleku, Kilometro puntu honetan) (zergatia) egiteko”.**

### 308.– Erreserbatua.

### 309.– Erreserbatua.

## 3.2.– TRENEN SARRERA, IRTEERA ETA IGAROTZEA

### 310.– Ibilbide bateraezinak.

1.– Hauek dira ibilbide bateraezinak:

- Aurkako noranzkoko bi tren aldi berean sartzea.
- Tren bat irteten ari dela, noranzko berean eta aurkako aldetik beste tren bat sartzea.

2.– Ibilbide horiek bateragarri izan daitezke baldin:

- Trenbideak edo orratzak jarrita dauden moduaren ondorioz ezinezko bada talka egitea.
- Balaztatze Automatikoko Sistemak (BAS-ATP) funtzionatzen badu.

3.– Bi tren ibilbide bateraezinak egitera doazenean, bat sarreran zein ibilbiderako baimena ematen duen seinalean geldituko da besteak bere bidea egin arte.

4.– Geltoki batera sartzean, trenak gurutzatzen badira eta TBA-ren gainbegiratze osoa galtzen bada, **berehala gelditu** beharko da, beste trena aparkatzeko puntuan gelditu arte.

### 311.– Zirkulazioko agenteen eginbeharrak.

1.– **AP-ak eta zirkulazioko agenteak, bakoitzari dagokion alorrean soilik, preskripzio hauek beteko dituzte:**

- Trenak ibili behar duen trenbidea bere luzera guztian libre uztea, baita mugimendu horrek eragindako piketeak ere.
- Trenak bere bidea egiten duen bitartean, orratzak posizio zuzenean eta ukitutako trenbide pasaguneak itxita izan daitezzen neurriak hartzea eta aginduak ematea.
- Une egokian behar diren seinale finkoei eragitea zein eraginaraztea.
- Trenak egin behar duen ibilbidea mugimenduren batekin oztopatzen duten zein oztopa dezaketen maniobrak bertan behera uztea.
- Geltoki batean ez dira aldi berean bi tren sartuko Balaztatze Automatikoko Sistema behar bezala ez badabil, matxura material mugikorrean izan zein instalazioetan izan.

2.– **Tren baten eta geltokian gurutzaketa duen tren zuzen baten ezusteko geldialdia ziurtatu behar duenean, hau egingo du:**

- Zirkulazioan tartean dauden Telefono Bidezko Blokeodun geltokietan, gelditzeko eskuz esateko seinalea gidariak ondo ikusteko lekuan jarriko du.
- Blokeo Automatikodun geltokietan, gelditzeko agintzeko moduan mantenduko ditu kasuan kasuko irteerako seinaleak.

3.– Orratz bat posizio jakin batean finkatzeko, langa bat ixteko edo ibilbideari loturiko lan edo egiaztapen bat egiteko xedearekin ahozko agindu bat jasotzen duen **zirkulazioko agenteak edo maniobretako langileak** berak izango du agindu hori betetzeko ardura.

- Agindua emango duen zirkulazioko agenteak beharrezko egiaztapenak egin beharko ditu, trenak ibilbidea behar bezala egingo duela bermatzeko.

4.– Ibilbideak ezartzeko elkarri helaraziko dizkieten komunikazioak grabatutako telefonematzat joko dira:

- AP-ak sarrerako eta irteerako ibilbideak ezartzen dituenean, zirkulazioko agenteak hala eskatuta.

5.– Ibilbide bat babesten duen seinalea gainditzea orratz batekin egiaztatuz baina katigatu gabe baimendu behar denean, agindu hauek bete beharko dira:

- Orratza katigatzeko aukera mekaniko edo elektrikorik badute, aukera hori baliatuko dute.
- Bestela, gidariari adieraziko zaio guztiz gelditu dezala trena orratzaren aurrean, eta orratza egiaztatu dezala.

### **312.– Gidaritzako langileen eginbeharrak.**

Gidariak, zerbitzua ematen duenean, honako agindu hauek bete behar ditu:

#### **Sarrerako ibilbideetan:**

- 1.– Bidaiarien trenak nasan estazionatuko ditu, zirkulazioko agenteak edo AP-ak besterik agintzen ez badiot behintzat.
- 2.– Irteerako piketeetan orratzik talonatu gabe aurrera egiten badu, arretako txistua jo eta atzera egingo du berehala libre uzteko. Orratzen bat talonatu badu edo atzera egin ezin izan badu, trena eskuko seinaleekin babestuko luke. Batean zein bestean ahalbait arinean emango die gertatuaren berri zirkulazioko agenteari edo Aginte Postuari.
- 3.– Trena geltoki baten sarreran geldituta badago, AP-arekin jarriko da berehala harremanetan, irrati-telefonian bitartez.

#### **Sarrerako eta irteerako ibilbideetan**

- 1.– Trenbidea berari dagokiona ez dela ohartzen denean, ez da abiatuko edo, martxan egonez gero, berehala geldituko da.
- 2.– Desbideratutako trenbidetik irten zein joatean, ez du 30Km/h baino gehiago hartuko irteerako orratzetatik igarotzean, aurretik seinale batek hori egiteko agindu zein ez, orratzen posizioa adierazten duen seinalea elektrikoa denean izan ezik, orduan esaten zaionari jaramon egingo baitio.
- 3.– Gidariari baimena ematen bazaio orratza egiaztatu gabe eta puntan hartuta gainditzeko, gidariak kabinatik jaitsi beharko du, eta orratzaren ondoan jarri eta egiaztatu beharko du ondo jarrita dagoela egin behar duen ibilbiderako.



4.– Piketeak libre daudela egiaztatuko du, eta horrela ez bada berehala geldituko da.

### **313.– Orratzak ibilgetzea.**

1.– Trenak irtetean, sartzean zein igarotzean, marmitako orratzak puntatik hartuta, ondorengo gailuetakoren batez ibilgetuko dira:

- Giltzarrapo, erlaiztun morroilo zein Bouré morroilodun ongi teinkatutako katearekin eta pasadorearekin, sartzeko zulorik dagoenean.
- Geltokiko agente batekin, komeni denean, ezpatatxoaren posizio egokia eta egokitzapena ziurtatuko baitu, trena igarotzean palankari gogor eutsiz.
- Taloitik hartutako orratzak pasadorez ziurtatuta egon daitezke besterik gabe.

2.– Ibilbide jakin baterako posizio batean ibilgetuta dagoen orratzean ez dago ondorengoentzat egiaztatzen ibili beharrik, posizioa hori aldatzen ez den bitartean.

3.– Egiaztatu beharrik gabeko orratz monitorizatua, behin ibilbide baterako nola jarrita dagoen egiaztatu eta gero, ez da zertan egiaztatu hurrengo ibilbideetarako, baldin eta:

- Posizio hori aldatzen ez bada.
- Motorrerako elikadura deskonektatuta badago eta deskonektatzeko elementua aseguratuta badago, ezinezko izan dadin kontrolik gabe manipulatzeko.

### **314.– Geltokietako trenbideetako zirkuitulabur eskasa.**

Eguraldiarengatik, leku hezeetatik gertu daudelako zein beste edozergatik, trenbideen zirkuitu laburra oztopa dezakeen uherra, hautsa eta halako elementu arrotzak izan ditzaketen zirkuitu elektrikodun trenbide gutxi erabilietan, garbitasuna zaindu eta arreta berezia jarriko da, eta Zirkulazioko Agenteek zein AP-ak libre daudela ziurtatuko dute, libre daudela erakusten duten ikusteko gailurik badute ere.

### **315.– Trenen igarotzea ikustea.**

Zirkulazioko agenteek, ohiko materialeko trenen igarotzea beharko dute. Trenak geltokietara nola sartzen diren eta geltokietatik nola igaro eta irteten diren begiratu beharko dute, hau egiaztatzeko:

- Ez dutela inolako anormaltasunik zirkulazioan.

### **316.– Erreserbatua.**

### 317.– Erreserbatua.

## 3.3.– MARTXAN DAUDEN TRENAK

### 318.– Zirkulazioaren koordinazioa.

Zirkulazioko Agenteek aldez aurretik trenen egoeraren berri izango dut, elkarri emanda zein AP-ren bidez. Horretarako:

- 1.– BT duten trenbideetan ahoz jakinaraziko diote trenaren noranzkoan albo-kide dutenari trenaren irteeraren edo igarotzearen ordu zehatza.
- 2.– TKN-rik ez eta BAB duten lineetan, horiez gain, AP-ak trenak abiarazi behar diren trenbideei buruz ematen dituen jarraibideei ere lotuko zaizkie.
- 3.– TKN eta BA duten trenbideetan, AP-ak berak bidaliko die lehen lerroaldean esan den jakinarazpena tokiko agintea duten zirkulazioko agenteei.
- 4.– Trenbideen ahalmen faltarengatik zein anormaltasunen batengatik tren bat ezin duela jaso irizten dion zirkulazioko Agenteak araututako lineetan AP-ari jakinaraziko dio, zer egin behar den erabaki eta zerbitzua antolatzeko behar diren aginduak eman ditzan.
- 5.– Trenak geltokietara zer ordutan heldu eta geltokietatik zer ordutan irtengo diren kalkulatzeko, zirkulazioko zein AP-ko agenteek bide-zatietako gutxieneko denborekin egingo dituzte eragiketak.
- 6.– Kontsigna bidez arau daiteke komunikazio horiek egiteko modua, edo halakorik ez egitea, aurrerapenez ez doazen abiadura jakineko trenak edo lantzaderako trenak direnean, baldin tren horien zirkulazio-ordena arrunta aldatzen ez bada.

### 319.– Gidaritzako langileen eginbeharrak.

Gidariak honako agindu hauek bete behar ditu:

- 1.– Trenbide bikoitzeko eta linea bat baino gehiago elkartzen diren trenbideetako geltokietatik irtetean dagokion bidetik doala egiaztatuko du, baita trenbideko bifurkazioetan ere.
- 2.– Aurkako trenbidetik badoa eta trenbide horretan ez badago abiadura mugatuko seinalerik, ez du 40 Km/h baino gehiago hartuko. Prest egongo da babesik gabeko trenbide pasaguneen aurrean geldialdia egiteko, eta 332. artikuluan ezarri bezala jokatu du.

3.– Adi egongo da seinale finkoetara eta langileek eskuetan erakusten dizkietenetara, geltokietatik igarotzean zein trenbidean.

4.– Ohiko materialez egindako trenetan sarri egiaztatu beharko da trenaren osaera, edozein anormaltasun detektatze aldera.

5.– Berehala geldituko da halakoetan:

- Ibileran espero gabeko trabarik sumatzen duenean.
- Trenbidea oztopatuta dagoelako, bidetik irten delako, pertsonaren bat erori delako, alboko trenbidean arriskua dagoelako, katenarian indarririk ez dagoelako, eta abar, zirkulaziorako arriskurik egotearen zantzurik sumatzen duenean.
- Gurpiletan erreia apurtu delako gerta izan daitezkeen kolpeak sumatzen dituzenean, bidetik irten den ala ez begiratu.

Edonola ere, gelditzen saiatuko da, abaguneek uzten diotenean, trenerako eta bidaiarientzako arriskutsua ez den leku batean.

6.– Ibilgailu motoreak irrati-telefoniarik badu:

- Jasotzen dituen mezuei adi egongo da.
- Kasu bakoitzerako ezarrita daudenak igorriko ditu.
- AP-ari anormaltasunen berri emango dio eta haren esanak beteko ditu beti.
- Ez da inola ere baimendu gabeko modalitate zein kanaletara aldatuko.

7.– Irrati-telefoniarik ez badu eta trenbidea gainerako zirkulazioek erabiltzeko moduan ez badago, aurrera jarraitu ahal izango du. Horretarako, tokiko larrialdietarako babesa aldeztu aurretik egin beharko du. Horrela, zerbitzua duen hurrengo geltokiari jakinaraziko dio eta sartzean alarma joko du, berehala zirkulazioko agentearekin harremanetan jartzeko.

8.– Anormaltasunen bat konpontzeko Treneko Eragiketa laguntzailearen laguntza behar duenean, barne komunikazioa erabiliko du, trenak horrelakorik baldin badu.

9.– Zerbitzuaren beharregatik kabina utzi behar badu, hau egingo du:

- **Gidaria eta treneko eragiketa laguntzailea dituzten trenak:** balazta automatikoa sakatuko du eta Treneko Eragiketa laguntzaileari horren berri emango dio, ahal duenean, zuzenean zein barne komunikazioaren bidez.

- **Gidaria bakarrik doan trenetan:** AP-ari jakinaraziko dio, utzialdiaren zergatia eta aurreikusitako iraunaldia zehaztuz, eta behin baimena duenean balazta automatikoari eta aparkatzekoari guztiz eragingo die.
- Edonola ere, ibileraren inbertsorea zein kontrolerako beste edozein gailu aldean gordeko ditu.

### **320.– Treneko eragiketa laguntzailearen eta maniobretako langileen betebeharrak.**

Preskripzio hauek bete beharko ditu:

- Trenaren ibilerari begira egongo da, eta anormaltasunik sumatzen badu gidariari zuzenean zein barne komunikazioaren bidez esan eta behar izanez gero alarma ere joko du.
- Trena ebakitzearen ondoriozko tren-zatien aparkatzeko balaztei eragingo die, baita lokomotorak trenbidean trenetik banatu behar duenean ere, gidariak eskatu ez arren.

### **321.– Zirkulazioarekin zerikusia duten langileen betebeharrak.**

Trenbidean zein inguruetan zerbitzuan ari diren eta zirkulazioarekin erlazionatuta dauden langileek trenak nola igarotzen diren begiratuko dute, osorik doazela eta inolako anormaltasunik ez dagoela egiaztatzeko.

Sumatzen duten edozein anormaltasun AP-ari zein geltoki albo-kideetako bateko zirkulazioko langileari jakinaraziko diote, eskura dituzten bitartekoekin.

### **322.– Erreserbatua.**

### **323.– Erreserbatua.**

## **3.4.– ZIRKULAZIOAREN GORABEHERAK**

### **324.– Trenen ebaketa eta ibilgailuen ihesa.**

#### **Trenaren ebaketa**

Trenaren ebaketa esaten zaio trena ibiltzen ari dela bereizten denean, eta ondoriozko zatiak balazta automatikoaren bitartez gelditu behar dira.

AP-ari jakinaraziko zaio, eta hark erabakiko du nola jokatu.

Normalean, Aginte Postuak, eraketaren lehen zatia atzera eramatea erabakiko du, bigarrenari lotzeko, eta gidariak egoerak gomendatzen dituen segurtasuneko neurriak hartuko ditu.

Kasuaren berezitasunengatik hori egiterik komeni ez bada, gidariari baimena emango dio aurrera jarrai dezan, hurrengo geltokira arte.

#### **Ibilgailuen ihesa.**

- Ihesaren berri duen Zirkulazioko Agenteak berehala ohartaraziko die AP-ari eta geltoki albo-kideei, eta ahalbait arinen hartuko ditu egoerak gomendatzen dituen segurtasuneko neurriak.
- AP-ak eta Zirkulazioko Agenteak abaguneak neurtuko dituzte eta denborarik galdu gabe kasu bakoitzean komenigarriena erabakiko dute, istripurik izan ez dadin eta, izatekotan, ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezzen.
- Beste baliabide batzuk erabiliz gelditzea ziurtatzerik ez dagoenean, kaltzeekin edo oztopo eraginkorrekin gelditzeko ahaleginak egingo dira, eta hala ere ezin bada, eta baita orratz erdi-ireki baten bidez erreietatik irtenaraziz ere, horrekin kalte handiagorik saihesten bada.
- Ihes egindako materiala trenbide hutsean gelditu dela egiaztatzean, bertatik kenduko da.

#### **325.– Katenarian indarra premiaz moztea.**

- Linea elektrifikatu baten indarra kenduko da, modurik azkarrenean, arriskua gainera datorrenean edo gidariak eskatzen duenean.
- Baldin agenteren batek tentsioa premiaz mozteko eskatzen badu, AP-ak berehala moztuko du eta, jarraian, agenteari mozketaren arrazoia eman dezala eskatuko dio.
- Kontuan izango da kasu batzuetan katenariaren berehalako etenak arriskua areago dezakeela (trenak tunel barruan edo trenbidearen ondoan su hartzea, etab.).
- Zergatia zuzendu eta arriskua desagertu izanaren ziurtasuna dagoenean, indarra emango da berriro eta linea elektrifikatuko lanak arautzen dituen Jarraibideak dioenari jarraituko zaio.
- Gidaria linea elektrifikatuan indarririk ez dagoela ohartzen denean trena ahalbait azkarren geldituko du, lekurik egokienean, tuneletatik, zubietatik eta halakoetatik kanpo...

#### **326.– Trenbidea oztopatzea.**

Trenbidea oztopatuta egon daitekeela erakusten duen zantzurik dagoenean (eurite, elurte, haizete gogorrak, oztopoak trenbidean, errei apurtuak, katenariaren matxura, etab.) horren eragina jasan duen trenbideko zein trenbideetako zirkulazioa eten egingo da, eta zer gertatzen den aztertzerako joango dira ahalik eta azkarren.

AP-ak, azterketa nola egin eta gainerakoan ere zer egin erabakiko du, baita ondoren zerbitzuari nola berrekin ere.

Azterketa egiteko tren bat erabiltzen denean, Gidariari azterketaren zergatia eta non hasi behar duen esango diote.

### **327.– Oztopatutako puntuen babesa.**

#### **Larrialdietarako babesa.**

Helburua, oztopatutako lekurantz doan edozein zirkulazio bertara heldu baino lehen gelditzea da.

Helburu hori lortzeko oinarritzko bi modu daude:

- Trenbidetik gelditzeko seinalea egitea.
- Gidariari garaiz gelditu behar duela jakinaraztea, nola edo hala.

Beraz, jarduteko modua abaguneen arabera izango da kasu bakoitzean, azkar ibiltzea funtsezkoa izanik, arriskua dagoen tokitik gertuen dagoen trenari dagokionez, batez ere.

Larrialdietarako babesa burutzeko moduak hauek dira:

- Irrati-telefonía bitartez.
- Seinale finkoak gelditzeko adieraziz jarriz.
- BA duten lineetan, zirkuitulaburraren barraren bidez.
- Hurbiltzen den trenari zein trenei gelditzeko eskuzko seinalea erakutsiz, ahal dela 300 metrora.
- Alarma seinalea eginez.
- Energia moztuz.

Larrialdietarako babesaren helburua bete denean, normalean oztopatutako puntua dagoen trenbideko zein trenbideetako zirkulazioa moztu egingo da, edo bestela ezustean han gelditzeko aginduko da, eta, beraz, ez da inolako babesik behar izango.

#### **Babes arrunta**

Hala ere, abaguneek hala gomendatzen badute, AP-ak larrialdietarako babesaren orde z babes arrunta ezartzea agindu dezake.

### **328.– Zer egin oztopoa dagoenean.**

**Galiboari eragiten dioten oztopoak, trenbidearen deformazioa, erreia ren apurketa, zubien eta tunelen hondoratzea edo antzeko oztopoak.**

- Larrialdietarako babesa ezarriko da.

**Trenbide hutsean geldi dauden trenak zein material ebaketak.**

- Larrialdietarako babesa atzetik ezarriko da, laguntzako trena etorriko den aldetik.

**Alboko trenbidearen galibora sartzen diren trenak zein material ebaketak, trenbide bikoitzeko lineetan.**

- Alboko trenbidean Larrialdietarako babesa ezarriko da.

**329.– Erreserbatua.****330.– Erreserbatua.****3.5.– TRENBIDE PASAGUNEAK****331.– Jarraibide orokorrak.**

Zirkulazio aurreratutako lineetan, bermatuta egongo da trenbide-pasabidea trenaren ohiko igarotzea baino lehen ixtea:

- Katigatutako trenbide pasaguneetan, automatikoetan, babesten dituzten seinale finkoen aginduengatik.
- Gainerako trenbide pasaguneetan, tren bakoitza pasatu aurretik trenbide pasagunea itxita dagoela ziurtatzeko ardura duenari abisu ematearen bidez.

**332.– Gidaritzako langileen eginbeharrak:**

Gidariak honako agindu hauek bete behar ditu:

- 1.– Trenbide pasagune bat babesik gabe dagoenean, haren aurrean geldituko da, eta ez da abiatuko babestu arte, edo bestela, oztoporik ezean, abiatuko da, bai baina txistua joz etengabe eta 10 Km/h-ko abiaduran harik eta trenbide pasagunea gainditzen duen arte.
- 2.– Atzemateagatiko blokeoaren babesean ari denean, bideko trenbide pasagune babestu guztiak babesik gabe baleude bezala jardungo du.
- 3.– Estazionamenduko trenbidean katigatutako hesi erdiak dituen trenbide pasagune bat badago hau egingo du:
  - Trenaren luzerak horretarako aukera ematen badu, Trenbide pasaguneko zirkuitu elektrikoa libre lagako du, atzetik zein aurretik.

- Sarrerako orratzak gainditu ondoren gelditzen bada, edo abiadura txikian ibiltzen bada, haren aurrean gelditzeko prest joango da, itxita egon arte igaro gabe.
- 4.– Aldez aurretik jakinarazi ez zaion Trenbide pasagunearen babesean anormaltasunik sumatzen badu, ahalbait azkarren emango du horren berri.
- 5.– Kontua Trenbide pasagunean aurreko abagune horietako bat agertzen den bide-zati batean ohiko tren batek atzera egitea denean, Treneko eragiketa laguntzailea trenaren atzealdean jarriko da gidariari behar diren seinaleak erakusteko, trenbide pasagune aurrean gelditu ahal izan dezan, hura gainditu gabe, babesik gabe badago.
- 6.– TBaren gainditze-sakagailua sakatu behar izanez gero, AP-ari jakinaraziko dio irrati-telefonía bidez.

### 333.– Erreserbatua.

### 334.– Erreserbatua.

## 3.6.– LANAK ETA PROBAK

### 335.– Trenbideko lanak.

- Kapitulu honetan aginduko denak trenbideko lanetarako eta elektrifikaziorako balio du, baita kanpoko erreiarren eta hiru metrorako lerro distantziakidearen artean dagoen segurtasun alderako ere.
- Trenbide bikoitzeko lineetako trenbideetako batean egiten diren lanak, bertako galiboaren kanpoaldeari edo elektrifikazioari behin ere ukitzen ez badiote, alboko trenbideko trenen zirkulazioaren aldi berean burutu ahal izango dira.

Uneren batean kanpoko alde horretan edota elektrifikazioan eragina badute, aurreko puntuan esandakoa beteko da.

- Trenbide hutsean muntatu daitezkeen bagonetekin egiten diren lanak bide-zatiko geltoki albo-kideetako batean hasiko dira normalean.

Trenbide hutseko kilometro punturen batean hasi edo amaitzen direnean, Kontsigna bidez zehaztuko da zer egin behar den.

- Trenbideko eta instalazioetako zerbitzu teknikoek, edota horiek ezean, lanen arduradunak, erabakiko dute, lanen izaeraren arabera, kapitulu honetan aurreikusten den zein erregimeni jarraituko zaion.



Lanen garrantziarengatik edo beste edozergatik kapitulu honetako jarraibiderik betetzerik ez balego, Kontsigna baten bidez arautuko da zer eta nola egin.

### **336.– Zirkulazioa eteteko erregimena.**

Etena ezartzen denean, AP-ak ukitutako geltokietako Zirkulazioko Agenteei behar diren jarraibideak emango dizkie hasieraren eta amaieraren benetako orduak zein diren eta tarte-unearen mende ez dauden trenbidetako zirkulazioak jarraituko duela ziurtatzeko zer neurri hartu behar duten zehaztuz.

Arituko beharreko bide-zatia blokeatzeko, atzemateagatik blokeoari jarraituko zaio.

Etena anormaltasunen batengatik bat-batean ezartzen bada, sumatu duen langileak geltoki albo-kideetako bateko Zirkulazioko Agenteari edo AP-ari jakinaraziko die, horren eragina jasan duen trenbidetik trenik abiaraz ez dezaten.

Erregimen honetan egiten diren lanak, anormaltasuna konpontzeko, APrekin batera antolatuko dira.

### **337.– Denborazko liberazioaren erregimena.**

1.– Erregimen hau aplikatzeko, languneak geltoki albo-kideekin edo aginte-postuarekin harreman etengabea izateko komunikabidea izan behar du.

2.– Lanei ekin baino lehen, beroien arduradunak AP-ari baimena eskatuko dio telefonemaren bidez eta trenen egoerari buruzko informazioa ere eskatuko dio. Aginte Postuak eskaera jasotzean, ukitutako zirkulazioko agenteei jakinaraziko die, telefonemaren bidez.

3.– Halako eskaerarik jasotzen duen Aginte Postuak hau esango dio lanen arduradunari:

- Informazioa zenbat denboraz hartuko den baliozkotzat gehienez (15, 20 minutu edo gehiago), une horretako tren kopuruaren eta kokagunearen arabera.
- Zirkulatzera doazen ibilera zehaztuko trenak, aurreikusten zaien aurrerapena edo atzerapena zehaztuz.
- Ibilera zehazturik gabeko trenak.
- Aldi bateko trenbide bakarraren ezarpena.
- Trenbide bikoitz banalizatutako lineetan zein trenbidetatik abiaraziko diren trenak.

4.– Informazio horren arabera, lanen arduradunak langileak eta makinak segurtasuneko aldetik garaiz baztertzeko edo alboko trenbideko galibotik kanpora irteteko agindua emango du.

5.– Edozergatik baztertzen ez badira, Larrialdietarako babesa ezarriko da.

6.– 3. puntuan aipatzen den denbora tarte igaro ondoren, lanen arduradunak trenen egoeraren azken berriak eskatuko ditu, eta hor esan den bezala ekingo zaio berriro.

7.– Trenen kokaguneari buruzko informazioa baliozkotzat hartzen den denbora igaro ondoren, Arduradunak lanak bertan behera uzteko aginduko du.

### **338.– Lanak geltokietan.**

1.– Geltokietako lanetarako APren baimena behar da, eta Zirkulazioko Agentea dagoenean, horren adostasuna ere bai.

2.– Geltokietan lanik egiten denean, lanok egiten diren trenbidera zirkulaziorik ezustean bertara sar ez dadin, prozedura hauek erabiliz babestuko da:

- Orratzak, ukitutako trenbiderako bidea eragozten duten posizioan ibilgetuko dira.

Ezin denean, orratzei urrunetik eragiteko gailuetan ohartarazteko kartelak jarriko dira.

- Trenbideko zirkuitua aginte koadro batzuetan dagoen gailuaren bidez hartuko da.
- Trenbidearen ardatzaren bi aldeetan gelditzeko seinaleak jarriko dira, orratzak posizio egokian jartzerik ez badago.

Ez zaie zertan gidariei seinale horiek jarri direnik jakinarazi behar.

3.– Lanak eta alboko trenbideko trenen eta maniobren zirkulazioa bateraezinak badira, edo lanak orratzen aldean egiten badira, Zirkulazioko Agenteak edo AP-ak lanen arduradunari adostasuna eskatuko diote, mugimenduetarako baimena luzatu baino lehen, eta arduradun horrek antolatuko du langileak eta makinak garaiz baztertzea.

4.– Geltokiko orratzen zein trenbideen aldaketarik dakarten lanek, edo duten garrantziarengatik komeni denean, Kontsigna baten bidez arautuko dira.

### **339.– Lanetako trenak.**

- Lanetako trenak, atzemateagatiko blokeoaren babesean ari direnean, Arautegi honen menpean daude (iragarri, eratu, balaztatu, seinaleak, etab.).
- Lanetako trenak, ibilbide berean egiten dituzten mugimendu guztietarako zenbaki bera izaten dute.
- Atzemateagatiko blokeoa ezartzen den ibilbideetan, lanetako trenak zatitu ahal izango dira, lanen arduradunak dioenean, eta ibilgailu motoretik bereizitako zatia geldi geratzeko behar diren neurriak hartuko dira.

- 10 mm/m baino gehiagoko aldapako ibilbideetan ibilgailu motorea ihesbide posiblearen aldera jarriko da, trenak eraketa guztian balazta automatikoa daramanean izan ezik. Zatiketa gertatzen denean ere neurri hori hartuko da
- Lanen arduradunak antolatuko ditu trenak atzemateagatiko blokeoa ezartzen den ibilbideetan egin behar dituzten mugimenduak, eta horretarako mugimendu horien segurtasuna bermatzen duten neurriak hartuko ditu, Gidariari edo Gidariei nola aritu behar duten zehaztuz.
- Eragiketak amaitu baino lehen, lanen arduradunak trenbidean oztoporik ez dagoela eta zirkulatzeko baldintzak egokiak direla ziurtatuko du.
- Materialak deskargatzen diren bitartean, lanen arduradunak galiboari trabarik egiten ez diotela ziurtatuko du eta, balastoa bada, erreia-aren gainean behar ez bezala pilatzeagatik gurpilen bidea eragozten ez duela.

#### **340.– Probatako trenak.**

- Probatako trenen zirkulazioa kontsigna edo telefonema bitartez araupetuko da, zirkulazioari, eraketari, abiadurari eta balaztatzeari buruzko agindu bereziak bete behar dituztenean.

#### **341.– Erreserbatua.**

#### **342.– Erreserbatua.**

## **IV. TITULUA. TRENEN BLOKEOA**

### **4.1.– BLOKEO AUTOMATIKOA TKN-CTC-rekin (BAU, BAD eta BAB)**

#### **401.– Trenen abiarazpena eta igarotzea:**

Tren bat abiarazi zein tren bati bidea emateko ezinbestekoa da:

- 1.– Sekzioa blokeatu izana.
- 2.– Abiatzeko agindua ematea

#### **402.– Sekzioaren blokeoa.**

- 1.– BAU-an eta BAB-n horretarako dauden gailuen bidez gauzatuko da.

Sekzio bat noranzko jakin batean blokeatuta dagoenean, noranzko horretan trenak abiarazten jarraitu ahal izango da blokeoko seinaleek uzten duten tartearekin. Noranzkoa aldatzeko, ezinbestekoa da sekzio horretan trenik ez egotea.

- 2.– BAD-n zirkulazioko bi trenbideetatik zuzenean igarotzeko ibilbideak ezarrita egongo dira. Trena saihestutako trenbidetik abiarazten denean, dagokion ibilbidea ezarriko da.

#### **403.– Abiatzeko agindua.**

Agindua honelaxe emango zaie gidariei:

Tren zuzenak eta geldituenak

- 1.– irteerako seinalearen aginduaren bitartez.
- 2.– “MT” seinalea duten geltokietan, doala trena adieraziko du.

#### **404.– Irteerako seinalerik gabeko trenbideetan trenak abiaraztea.**

- 1.– Normalean ez da trenik abiaraziko irteerako seinalerik gabeko trenbideetatik. Hala ere, maniobraren zailtasunarengatik zein beste edozergatik trena irteerako seinaledun trenbide batean jartzerik ez balego, AP-ak salbuespen gisa abiarazi ahal izango du.

- 2.– TKN-tik egingo da, funtzionamendu-baldintza normaletan.

- 3.– Trena abiaraziko duen blokeoko sekzioaren aurkako noranzkoan trenik ez datorrela egiaztatuko du.
- 4.– Zirkulazioko trenbidera sartzeko ibilbidea ezarriko du.
- 5.– Gidariari “doala trena” agindua emango dio.
- 6.– Aparaturen bat berriro ere posizio arruntean jarri behar bada, zirkulazioko agenterik ez dagoen geltoki batean, gidariari jakinaraziko dio. Halakoetan, gidariak trena geldituko du irteerako orratzak gainditu ondoren, eta egin beharrekoa egingo du, berriz abian jarri aurretik.
- 7.– Trenaren abiaraztea zirkulazioko agenteak egiten badu Tokiko Agintetik TKN matxuratu delako, honako agindu hauek bete beharko dira:
  - Alde bereko irteerako seinaleak bidea libre dagoela adierazten duela egiaztatuko du.
  - Irteerako ibilbidea ezarriko du. Ez bada bateragarria aurreko puntuarekin, alde bereko irteerako seinalearen ibilbidea deuseztatuko du, ibilbide hori ezarri ahal izateko.
  - Zirkulazioaren noranzkorako blokeoa ezarriko du.
  - Doala trena seinalea egingo du.
  - Blokeoa ezin bada jarri, ezin izango dira abiarazi BAU-n eta BAB-n. Trenak BAD-n abiarazi ahal izango dira, eta gidariari jakinarazi beharko zaio ikusi ahalako ibileran joan dadila, hurrengo blokeo seinalera arte.

#### **405.– Blokeoan parte hartzea.**

- 1.– Zirkulazioaren zuzendaritza eta orratzen, seinaleen eta geltokietako gainerako tresnen akzionamendua hauek egingo dute:
  - Aginte Postuak, Postu nagusitik, aginte zentralizatutik funtzionatzen denean.
  - Zirkulazioko Agenteak bere geltokian APren eginkizunak bere gain hartzen dituzenean, TArekin ari delako.

Hala ere, AP-ak Zirkulazioko Agente bati mugimenduak egiteko, seinaleetan aurrera egiteko eta abarretako baimenak luzatzeko eskumena eman ahal izango dio, berak gidariari zuzenean luza ezin dionean, luzatzea komeni ez zaionean edo denbora galdu nahi ez denean, eta halaber, Zirkulazioko Agenteak ere besteren baten esku utz dezake blokeoa AP-n, blokeoa bere ardurapean dagoenean eta abaguneek gomendatzen dutenean.

- 2.– TKN eta Tokiko agintea duten geltokietan zerbitzuan ari diren Zirkulazioko Agenteeek eta gidariak blokeoan AP-ak agintzen dienean hartuko dute parte, zirkulazioko trenbideetako maniobrak, TKN-ren menpe ez dauden trenbide eta lineetako irteera eta sarrerak ziurtatzeko, trenak heldu edo baztertu direla jakinarazteko eta bere aginduak transmititzeko.
- 3.– Egoera normaletan, Zirkulazioko Agenteeek ez diote ML-ko koadroari eragingo, horretarako beren beregi agindua jasotzen dutenean izan ezik, eta gainera, instalazioak hala eskatzen duenean, AP-ak emandako agindu elektrikoa ere behar izango dute. Hala ere, istripu bat saihesteko bada, orratzak eta seinaleak, abaguneez eskatzen duten modura jarri ahal izango dituzte.
- 4.– Zerbitzuari komeni zaionean, AP-ak Zirkulazioko Agenteei ML hartzeko agindu ahal izango die, trenak non eta nola dauden jakinarazi ostean.
- 5.– TA hartzea eragin duten arrazoiak amaitzen direnean, AP-ak aginte nagusia hartuko du berriro.

#### **406.– Anormaltasunak.**

- 1.– Blokeoko gailuak edo seinaleak ondo ez badabiltza, AP-ak ordezko blokeoa ezartzea komeni den ala ez eta, jartzekotan, zein sekziotan jarri aztertuko du.
- 2.– Zirkulazioari TKN-ren babesean eusten bazaio, irteerako seinaleetan aurrera egiteko baimena 260. artikuluan esaten diren baldintzetan luzatuko da.
- 3.– ML-rik gabeko eta TKN-ko BA-dun lineetan geltoki bat BT-ra sartzen denean, hau egingo da:

– **Orratzak.**

Orratzei eragitea Zirkulazioko Agentearen ardura izango da, baina AP-ak ere eragin ahal izango die instalazioak aukera ematen duenean, Zirkulazioko Agenteeak hala agintzen badio.

– **Seinaleak.**

TKN-k funtzionatzen ez duen geltokietan, bi aldeetako sarrerako eta irteerako seinaleak gelditzeko aginduz utziko dira.

Hala ere, sarrerako seinaleak eragin daitezke, AP-ak, Zirkulazioko Agentearen aginduz, egiten badu.

Ezustean muturreko bihurtu diren geltokietan bi aldeetako sarrerako eta irteerako seinaleak gelditzeko aginduz utziko dira, baina TKN dabilen aldeari dagozkionei AP-ak eragin ahal izango die Zirkulazioko Agenteeak agintzen badio.

Zirkulazioko Agenteeak ibilbideak ezartzeko AP-ari luzatzen dizkion aginduak telefonemen bidez bidaliko dira eta grabazio sistema batean erregistratuko dira.

**4.– Kantoia ren blokeo artifiziala.**

ML-n egonik blokeoa askatzerik ez badago, Zirkulazioko Agenteak bere alboko agenteari edo AP-ri deituko dio askapena eskatzeko, hotsez, geltoki albo-kidea ML-n ez badago. Ondoren, zirkulazioko bi langileek desblokeatze artifizialari eragingo diote. Blokeoa normalizatu ostean, BAren babespeko zirkulazioari ekingo zaio berriro.

**Kantoia ren askapen artifiziala (ardatz-zenbatzailea)**

ML-n egonik, kantoia askatu behar izanez gero, zirkulazioko Agenteak alboko agenteari edo AP-ari deituko dio askapena eskatzeko, geltoki albo-kidea ML-n ez badago. Ondoren, bi agenteek askapen artifizialari eragingo diote.

Kantoia askatuta egongo da hurrengo zirkulaziorako.

Blokeoaren noranzkoa askatu behar izanez gero, irteera egin duen trenaren geltokiko Zirkulazioko Agenteak alboko geltokiari heldu dela adierazten duen telefonema eskatuko dio, geltoki albo-kidea TAn ez badago. Behin telefonema jasota, blokeoa askatzeko gailuari eragingo diote.

**407.– Gurutzaketen aldaketak.**

TKN duten ibilbideetan, AP-ak gurutzaketa aldatzeko agindua eman dezake, trenen zirkulazioa arautzeko. Horretarako, ondorengo aginduak beteko ditu:

**1.– Gurutzaketa aldatuko duen gidariari telefonema bat bidaliko dio, hau esanez:**

..... trenari ..... trenarekin ..... (non) gurutzaketa egiteko baimena ematen diot

**2.– Gurutzaketa egiaztatu behar duen gidariari ondoko telefonema luzatuko dio:**

..... trenak ..... trenarekin .....ko geltokian egingo duen gurutzaketa egiaztatuko duzu

**3.– Komunikazioak ondo ulertu direla egiaztatzeko, telefonemak jaso dituzten gidariek testua ahoz errepikatuko dute.**

**4.– Irrati-telefonía ez dabilenean, AP-ak Zirkulazioko Agentea bitarteko lanak egiteko bidali ahal izango du. Horrek gidariei, aurreko puntuen arabera, kasu bakoitzari dagokion testua duen ABA emango die.**

**5.– Gurutzaketa aldatu zaion gidariak ezin izango du trena abiarazi harik eta 1. puntuan datorren komunikazioa jaso arte.**

**6.– Trenbide bikoitzeko zatietan ez da agindu hori beteko, trenbide bikoitzetik trenbide bakarrerako trantsizio geltokietan izan ezik.**

**408.– Erreserbatua.****409.– Erreserbatua.**

## 4.2.– TELEFONO BIDEZKO BLOKEOA (osagarria)

### 410.– Noiz ezarri.

Aginte Postuak ezartzen duenean, aurreko kapituluetan esan den bezala.

### 411.– Ezarpena.

- 1.– Aginte Postuak aginduko du beharrezko jotzen dituen zirkulazioko agenteak zerbitzura sar daitezela.
- 2.– Telefono bidezko blokeoa ezartzeko, AP-ak ziurtatu beharko du blokeoaren eraginpeko sekzioan edo sekzioetan ez dagoela trenik.
- 3.– Hori egiaztatu ondoren, zirkulazioko agenteei aginduko die zirkulazioa has dezatela telefono bidezko blokeoaren babespean. Horrekin batera, une horretako zirkulazioaren egoeraren berri emango die, eta honako telefonema hau igorriko die:
  - “..... eta ..... artean ez dago trenik. Hasi zirkulazioa telefono bidezko blokeoarekin, eta hartu Tokiko Agintea (TA-ML) (trenbide bikoitza bada, gehituko da trenbide bikoititik, bakoititik, I, II).
- 4.– Aginte Postuak honako telefonema hau igorriko die gidariei: Telefono bidezko blokeoarekin ibiliko da ..... eta ..... artean. Blokeo automatikoak ez du funtzionatzen. Zirkulazioan tartean izango diren geltokiak: ....., ..... eta ..... BAB-n zehaztuko da I., II. trenbidetik.

### 412.– Trenen abiarazpena edo igarotzea.

Tren bat abiarazteko edo tren bati bidea emateko ezinbestekoa da:

- 1.– Kantoian trenik ez egotea.
- 2.– Abiaraziko den trenerako trenbidea eskatzea eta onartzea.
- 3.– Abiarazteko agindua ematea.



**413.– Trenbidea eskatzea, onartzea eta ukatzea.****1.– Arrunta.**

Tren bat abiarazi edo tren bati bidea eman behar dion Zirkulazioko Agenteak bere albo-kideari trenbidea eskatuko dio, telefonema honen bidez:

«**— trena (ordua) — etan abiaraz dezaket?**»

Eskaera egingo da:

- Aurreko geltokiari tren horrentzat berorrentzat trenbidea onartu eta gero.
- Trena ez atzeratzeko besteko aurrerapenez.
- Trena irtetea edo igarotzea aurreikusten den ordurako.

Trenbidearen eskaera jasotzen duen Zirkulazioko Agenteak telefonema hauetako batekin erantzungo du:

«**Abiarazi — trena**»

«**Geldiarazi — trena**».

**2.– Baldintzapekoa.**

Trenbide bakarrean trenbidea aurkako noranzkoan espero den trena heldu baino lehen eskatu ahal izango da, telefonema honen bidez:

**Abiaraz dezaket — trena —trena hona heldu eta gero?"**.

Baldintzapeko trenbidearen eskaera jasotzen duen zirkulazioko agenteak telefonema hauetako batekin erantzungo du:

«**Abiarazi — trena —trena horra heldu eta gero**»

«**Gelditu ..... trena**».

Erantzuna baiezkoa bada, espero den trena heldu bezain laster bestea abiaraziko da, eta telefonema hau bidaliko da berehala:

«**— trena heldu da eta —trena irten da.....(e)tan**».

- 3.–** Tren baterako trenbidea ukatzen denean, Zirkulazioko Agenteak mintzakidearekin hitz egin dezakeenean hauxe esango dio:

«Eska dezakezu trenbidea».

**414.– Abiatzeko agindua.**

Gidariari honela emango zaio:

**Tren zuzenetan**

- Igarotzeko seinalearen aginduarekin.

**Geldik dauden trenetan**

– Doala trena seinalearen aginduarekin.

**415.– Iritsieraren oharra.**

Tren bat geltoki batera heldu edo geltokitik igaro bezain laster, Zirkulazioko Agentek hau egiaztatuko du:

- Osorik heldu edo igaro dela.
- Sarrerako seinaleak babesten duela eta, sarrerako seinalerik ezean, lehen orratzak.
- Ondoren, irekita dagoen aurreko geltokiko Zirkulazioko Agenteari iritsieraren oharra telefonema honen bidez bidaliko dio:

«— trena heldu da».

**416.– Trenbidearen eskaera ezeztatzea.**

- 1.– Arrazoizko kasuetan eta tren bat geltoki batetik irteteko zein igartzeko trenbidea eskatu zaion ordua baino lehen edo beranduago igaroko dela aurreikusten denean, edo eskaera ezeztatzea gomendatzen duen arrazoirik dagoenean, trenbidearen eskaera telefonema honekin ezeztatuko da:

«..... **trenerako trenbidearen eskaera ezeztatzen dut**».

- 2.– Tren zuzen baterako eskaera ezeztatu baino lehen, tren horretarako trenbidea berriro onartu arte trena gelditzeko neurriak hartuko dira.

**417.– Gurutzaketak. Gurutzaketen aldaketak.**

AP-ak trenen gurutzaketak aldatzeko agindua eman dezake, trenen zirkulazioa arautzeko asmoz. Horretarako, ondorengo aginduak jarraituko ditu:

- 1.– Ibilbidean oinarrituta, gurutzaketa erregularra egin beharko litzatekeen geltokiko Zirkulazioko Agenteari tren batek gurutzaketa hurrengo geltokian egingo duela jakinaraziko dio.
- 2.– Aurreko egoeraren berri emango dio gurutzaketa berria egingo den geltokiko Zirkulazioko Agenteari.
- 3.– Aldaketarekin zerikusia duten Zirkulazioko Agentek beraien artean harremanetan jarriko dira, telefonema hauen bidez:

**Telefonema igortzen duen geltokiak:**

«(Non) ----- trenarekin gurutzatuko den ----- trena abiaraz dezaket?».

**Geltoki albo-kidearen erantzuna:**

«**Abiarazi (non)----- trenarekin gurutzatuko den ----- trena**».

4.– Gorago aipatutako telefonemak ezarri ondoren, gurutzaketaren aldaketa adostutzat hartuko da.

5.– Telefonema igortzen duen geltokiko Zirkulazioko Agenteak gurutzaketa aldatu behar duen langileari ABA bat emango dio, hau dioena:

«----- trenari -----trenarekin (non) ----- gurutzatzeko baimena ematen diot, azken horren -  
----- zk.–ko telefonemaren arabera»

6.– Trenak gurutzatuko diren geltokiko zirkulazioko agenteak gurutzaketa egiaztatu behar duen gidariari ABA bat emango dio, hau dioena:

«..... trena eta ..... trena ..... geltokian gurutzatu direla egiaztatuko du»

7.– Eragiketa horiek hurrengo geltokietako Zirkulazioko Agenteek ere egingo dituzte harik eta gurutzaketa burutu edo trenetako bat kendu arte.

8.– Gurutzaketa bat aldatu dioten gidariak ezin izango du trena abiarazi 2. puntuan aipaturiko ABA esku artean izan gabe.

**418.– Zirkulatzeko jarraibideak.****Zirkulazioko Agenteak.**

- BAB-n, BA-k funtzionatzen ez duen eta ordezkoko BT ezarrita duen trenbideko edo trenbideetako sarrerako eta irteerako seinaleak itxiko ditu.
- Dagokion ibilbidea ezarri eta egiaztatuko du katigamendua ahal beste aprobetxatuz.
- Sarrerako eta irteerako ibilbideetan orratzak, hesiak, eta gainerako tresnak egiaztatuko ditu.
- BA-k funtzionatzen ez duenean eta trenbide hutsean seinaleek babestutako bazterbideen eta zamalekuen orratzak daudenean, aurreko jakinarazpenari hau erantsiko zaio:

«\_\_\_\_\_ Km/Km-etako orratzean/etan gelditzeko prest joango zara, eta ondo dagoela/daudela egiaztatu ondoren abiatuko zara».

- Bide-zatia ibili baino lehenago egoerak bere onera egiten badu, BA erabiltzen hasten den lehen geltokian gidariari hauxe jakinaraziko zaio:

«**B.A. berriz ezarri da \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean**».

**Bide hutsean:**

- BA-ko sekzioetako bitarteko seinaleak ez baleude bezala egingo du.
- Trenbide hutseko orratzen posizioa egiaztatuko du, jasotako jakinarazpenaren arabera. Posizio seinalearen adierazia nahikoa egiaztapen izango da, beste guztirako ez balego bezala hartu arren. Seinaleak aurrera egiteko baimena ematen badu, ohiko ibileran jarraituko du, eta adierazi okerrean edo itzalita badago, orratzaren aurrean geldituko da posizioa egiaztatzeko.

**Geltokietan**

- Sarrerako seinaleak dioenari begiratuko zaio.
- Irteerako seinalerik ez balego bezala jardungo da.

**419.– Berrezarpena.**

1.– AP-ak trenen egoeren berri emango du eta ukitutako geltokietako Zirkulazioko Agenteei telefonema hau bidaliko die:

« \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean BA TKN-rekin berrezarri da».

2.– Telefonema hori jasotzen duten Zirkulazioko Agenteeek honela erantzungo dute:

«Ados \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean BA TKN-rekin berrezartzearekin»

3.– AP blokeoan parte hartzen hasiko da eta Zirkulazioko Agenteeek parte hartzeari utziko diote ukitutako blokeoaren sekzio edo sekzioetatik BT-ren babespean ibili den azken trenaren heltzearen oharra jasotzean.

4.– BAD-n nahikoa izango da berrezarpeneko telefonemak bidali izana. BT-n babestutako azken trenen heltzearen oharrak helduz doazen heinean luzatuko dira.

5.– AP-ak ukitutako gidariei hau jakinaraziko die:

« \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean BA TKN-rekin berrezarri da».

6.– Eraginpeko geltokietako Tokiko Agintea berriz ezartzen denean, baina TKN ez:

- AP-ak ziurtatu beharko du eraginpeko blokeo sekzioan edo sekzioetan ez dagoela trenik.
- Zirkulazioko agenteei aginduko die Tokiko Agintearekin blokeo automatikoan esku hartzen jarrai dezatela, abian diren trenen iritsieraz ohartarazi ostean.

**420.– Erreserbatua.****421.– Erreserbatua.**

## 4.3.– ALDI BATERAKO TRENBIDE BAKARRA

### 422.– Aplikazioa.

1.– Trenbide bikoitz banalizatu gabeetan, trenbideetako batetik normal zirkulatzerik ez dagoelako APren aginduz zein Kontsigna bidez ezartzen denean.

2.– Aldi bateko trenbide bakarreko zirkulazioa, AP-ak ezarritako ordezeko Blokeo Osagarriaren babespean egingo da, eta aldi berean BAren babespean ere, dagoen eta funtzionatzen duen lineetan.

3.– Aurkako trenbidetik datozen trenetarako trenbidearen eskaeretan, onarpen eta iritsieren oharrei »kontrako bidetik» erantsiko zaie.

### 423.– Ezarpena.

#### BABi-n TKN-rekin

1.– Aurkako trenbidetik trenak abiarazi behar direnean edo AP-ak agintzen duenean ezarriko da.

2.– AP-ak aztertuko du zein motatako blokeo osagarria erabili behar den.

3.– Telefono bidezko blokeoa ezartzen badu, AP-ak ondoko telefonema igorriko die eraginpeko zirkulazioko agenteei, eta ziurtatuko du blokeo sekzioan edo sekzioetan ez dagoela trenik.

**«Aldi baterako trenbide (bikoiti, bakoiti) bakarretik BT-ko zirkulazioa ezartzen da. \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean ez dago trenik, hartu Tokiko Agintea».**

Telefonema hori jasotzen duen Zirkulazioko Agentek honela erantzungo du:

**«Ados aldi baterako trenbide (bikoiti, bakoiti) bakarretik BT-ko zirkulazioa ezartzearekin.»**

4.– Aldi bateko trenbide bakarra ezartzean, aurreko puntuetan esan bezala BAD-k funtzionatzen ez badu, AP-ak Zirkulazioko Agenteei jakinaraziko die. Behin ezarri ondoren ez badabil, zirkulazioko agenteak geltoki albo-kideko zirkulazioko agenteari eta AP-ari jakinaraziko die.

5.– Baldin irrati bidezko blokeoa ezartzen bada, eraginpeko gidariei honako telefonema hau igorriko die AP-ak:

**«Aldi baterako trenbide (bikoiti, bakoiti) bakarretik zirkulazioa ezarri da, irrati bidezko blokeoarekin.»**

Telefonema hori jasotzen duen Zirkulazioko Agentek honela erantzungo du:

**«Ados aldi baterako trenbide (bikoiti, bakoiti) bakarretik BR-ko zirkulazioa ezartzearekin.»**

#### BAB-n

- 1.– Aldi berean gertatzen badira trenbideetakoren bateko zirkulazio etena eta beste trenbideko blokeo-elementuen matxura, AP-ak aztertuko du zein blokeo osagarri erabili. Aurreko ataletako aginduak bete beharko dira, erabiliko den blokeo osagarriaren arabera.

#### **424.– Abiatzeko agindua.**

- 1.–       Gidariari emango zaio, zirkulatzeko erabiltzen ari den blokeoari lotutako arauetan ezartzen den moduan.
- 2.–       BAD-ek funtzionatuz ohiko noranzkoan zirkulatzean, abiatzeko agindua blokeo horietarako ezarritako moduan emango da.

#### **425.– Zirkulatzeko jarraibideak.**

Hemen biltzen diren ohiko noranzkoan zirkulatzeko duten trenetarako jarraibideek BAD-ek funtzionatzen duenerako balio dute. Hala ez izanez gero, zirkulatzeko erabiltzen ari den blokeorako aurreikusten diren aginduak beteko dira.

1.– Zirkulazioko Agentea edo Aginte Postua.

1.1.– Zirkulaziorako itxita egongo den trenbideko sarrera zein irteerako seinaleak itxiko ditu, eta, egonez gero, seinale irekien erregimena baliogabetu egingo da.

1.2.– Ohiko noranzkoan doazen trenetarako:

- Sarrerako eta irteerako ibilbideak ezarriko ditu.
- BAD erabiliko du.
- Gidariari hauxe esango dio:

» \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean \_\_\_\_\_ blokeoa erabiliz aldi baterako bide bakarretik zirkulatuko du.»

1.3.– Aurkako trenbidetik zirkulatzeko duten trenetarako.

- Orratzak, hesiak eta sarrerako zein irteerako ibilbideetako gainerako tresnak egiaztatuko ditu, katigamendua ahal beste aprobetxatuz.
- Hau esango dio gidariari:

«Aurkako trenbidetik joango zara \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean, \_\_\_\_\_ blokeoa erabiliz.»

Jakinarazpena bitarteko geltokian emango da edota AP-ak, baimena eman eta bitarteko geltokiei esaten badie, geltoki bat baino gehiago hartzen dituen bide-zatirako balio ahal izango du.

- Trenbide hutsean seinaleen bidez babesturiko orratzak daudenean, aurreko jakinarazpena honela luzatuko da:

**«——Km/Km-etako orratzean/etan gelditzeko prest joango zara, eta ondo dagoela/daudela egiaztatu ondoren ibilerarekin jarraituko duzu.»**

- Ibilbide osoa amaitu baino lehen ohiko trenbidetik ibiltzen hasi ahal izango balitz, gidariari hauxe jakinaraziko liokete:

**«Ohiko noranzkoan zirkulatuko duzu \_\_\_\_\_ blokeoa erabiliz.»**

#### 1.4.– Zirkulazioan tartean dauden geltokietarako.

Baldin telefono bidezko blokeoa edo irrati bidezko blokeoa ezartzen bada, gidariari idatzizko telefonema bidez emango zaio zirkulazioan tartean diren geltokien berri.

#### 2.– Gidariak.

- Ohiko noranzkoan.
  - Seinaleek diotena egingo du.
- Aurkako trenbidean.
  - Irteerako seinaleak ez ditu aintzat hartuko.
  - Trenbide hutseko orratzen posizioa egiaztatuko du, jasotako jakinarazpenaren arabera. Orratzen posizioaren seinalearen adierazia nahikoa egiaztapen izango da. Aurrera egiteko baimena ematen badu, ohiko ibilerari ekingo zaio eta adierazi desegokian edo itzalita badago, orratzaren aurrean gelditu eta posizioa egiaztatuko du.
  - Geltokietara sartzean, lehen orratzean gelditzeko prest joango da eta ez du hortik aurrera egingo harik eta baimena jaso arte.
  - Ez du 40 km/h baino gehiago hartuko, salbu aldi baterako trenbide bakarrean aurkako trenbideko zirkulaziorako abiadura mugatuaren seinaleak badaude. Halakoetan, seinale horietan adierazitakoa bete beharko da.
  - Trenbide pasaguneen aurrean dauden "uneko geldialdi" karteltzarren jarraibideei adi egongo da.

### 426.– Berrezarpena.

- 1.– Aldi bateko trenbide bakarra kendu egingo da aurkako trenbidetik trenik abiarazi beharrik ez dagoenean, edo AP-ak agintzen duenean.
- 2.– Bi trenbideetako zirkulazioa normalizatuko den geltokiko zirkulazioko agenteak edo AP-ak, edo AP-ak izendatuko duenak, honako telefonema hau igorriko dio albo-kideari:

**«Ohiko zirkulazioa berrezarri da trenbide (bikoititik, bakoititik (BT, BAD-rekin)).»**

- 3.– Gidariei ABA edo irrati-telefono bidez jakinaraziko zaie, aurreko testua erabiliz.

Telefonema horiek bidalita, esandako trenbidetik ohiko moduan ibiltzen hasi ahal izango da, blokeoko sistema bakoitzean trenak abiarazteko baldintzak betetzen badira.

#### 427.– Erreserbatua.

#### 428.– Erreserbatua.

### 4.4.– ANTZEMATEAGATIKO BLOKEOA

#### 429.– Aplikazioa.

1.– Hauei ezartzen zaie:

- Ibilbide batean edo ibilbideko puntu batean lan egin behar duten laneko trenei, zirkulazioa etenda egonik.
- Bestelako trenei, behar jakinak daudenean.

2.– Ezartzeko ezinbesteko baldintzak dira:

- Lanetako edo probetako arduraduna egotea.
- Aginte Postuak baimena ematea, eta bidea beteta egongo den gehieneko denbora zehaztuko du.
- TKN-rik gabeko lineetan blokeoaren eragina duten geltokien artean telefono bidezko komunikazioa egotea, zerbitzua duten geltokietan egiten baldin bada.
- Lanetako edo probetako arduradunaren eta AP-aren artean komunikazioa egotea.

#### 430.– Ezarpena.

1.– Lanetako edo probetako arduradunak AP-ari ondoko telefonema luzatuko dio:

“Tartea eskatzen dut \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean (trenbide bikoititik, bakoititik) \_\_\_\_\_etara arte \_\_\_\_\_n alderatzeko”.

2.– Blokeoa geltoki baten eta K.P. jakin baten artean egin ahal izango da, baldin eta trenak abiapuntuko geltokian alderatzen badira. Alderatzeko tokia abiapuntuko geltokian ez badago, baizik eta lan eremutik urrunago, blokeoa ezinbestean geltoki bien artean ezarriko da.

3.– Blokeoko tartea geltoki 2 edo gehiago har ditzake.



4.– AP-ak ondoko telefonemaren bidez erantzungo du:

Tartea onartuta \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean (trenbide bikoititik, bakoititik) \_\_\_\_\_ etara arte \_\_\_\_\_ n alderatuz.”

5.– AP-ak, blokeoak eragindako geltokietako Zirkulazioko Agenteei ondoko telefonema bidaliko die:

- Trenbide bakarrean, aldi bateko trenbide bakarrean, ohiko noranzkorako trenbide bikoitzean eta trenbide bikoitz banalizatuan.

«\_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean, trenbide (bikoitia, bakoitia) blokeatuta dago \_\_\_\_\_ trenerako \_\_\_\_\_ ak arte»

- Trenbide bikoitzean, trena aurkako trenbidetik abiarazi behar denean.

«\_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean, trenbide (bikoitia, bakoitia) blokeatuta dago \_\_\_\_\_ trenerako \_\_\_\_\_ ak arte. Trenbide horretarako azkena \_\_\_\_\_ trena \_\_\_\_\_ etan izan da.»

Telefonema horietako bat jasotzen duen Zirkulazioko Agenteak hurrengoan artean dagokionarekin erantzungo du:

- Trenbide bakarrean, aldi bateko trenbide bakarrean, ohiko noranzkorako trenbide bikoitzean eta trenbide bikoitz banalizatuan.

“Ados trenbide (bikoitia, bakoitia) \_\_\_\_\_ trenerako \_\_\_\_\_ arte blokeoarekin.”

- Trenbide bikoitzean trena aurkako bidetik abiarazi behar denean.

«Ados trenbide (bikoitia, bakoitia) \_\_\_\_\_ trenerako \_\_\_\_\_ arte blokeoarekin. Trenbide horretarako azkena \_\_\_\_\_ trena \_\_\_\_\_ etan izan da.»

6.– Lanetako edo probetako arduradunak, hortik aurrera, kantoia bere kargu izango du. Ondorioz, abiapuntutik hartu ahal izango du.

#### 431.– Trenak abiaraztea eta igarotzea.

Tren bat abiarazteko edo tren bati bidea emateko, ezinbestekoa da:

- Antzemateagatiko blokeoa ezarrita egotea.
- Trenak abiarazteko: ibilbidea ezartzea eta lanetako arduradunak abiatzeko agindua jakinaraztea gidariari.
- Ondoz ondoko trenak badaude, lanetako edo probetako arduradunak gidariei adieraziko die “ikusi ahalako ibileran” joan daitezela lanak dauden kilometro-punturaino.

### 432.– Abiatzeko agindua.

Lanetako edo probetako arduradunak ahoz esango dio gidariari.

### 433.– Zirkulatzeko jarraibideak.

1.– Zirkulazioko Agenteek edo AP-ak.

- Trenak irteteko eta maniobretarako ibilbide egokiak ezarriko dituzte, blokeatutako tartera. Behin egin ondoren, emateko bidalitako telefoneman adierazi den baztertze lekurako prest utziko dituzte.
- Blokeaturiko tartera sartzeko seinaleak itxita izango dituzte.
- Blokeatutako tartearen barruan dauden geltokietako seinaleak itzalita izango dituzte.

2.– Gidariak.

- Lan edo proba lekuan, lanetako edo probetako arduradunaren aginduak jarraituko dituzte.
- Lan eremuan mugimendu eta geldialdi oro baimenduta dago.
- Blokeaturiko eremu barruan, ez diete jaramonik egingo dauden seinaleei (sarrerakoak, irteerakoak eta bitartekoak).
- Lan edo proba eremuan dauden orratz guztien posizioa egiaztatuko du, horiek gainditu baino lehen.
- Babesik gabeko trenbide pasaguneetan, pasagunearen aurrean geldituko du trena, eta ez du abiaraziko babestuta izan arte; edo, bestela, martxan jarraituko du ezerk eragozten ez badu, eta etengabe erabiliko du txistua eta 10 km/h-ko abiaduran joango da, trenbide pasagunea igaro arte.

3.– Lanetako edo Probetako arduradunak.

- Blokeaturiko eremu barruan, trenen irteteko, igarotzeko, baztertze eta maniobretarako dagozkien ibilbideak zehaztuko ditu.
- Blokeaturiko gunearen barruan dagoen trenaren edo trenen mugimenduen arduraduna izango da. Horrela gidariei jarraibide zehatzak emango dizkie.
- «Doala trena» agindua emateko arduraduna izango du.
- AP-ari jakinaraziko dio blokeoan zehar gerta daitekeen edozein gorabehera, edo blokeoaren kentzea atzera dezakeen gorabehera oro.
- Lanak edo probak amaitzen diren unea zehaztuko du, eta hortik aurrera trena edo trenak alboratzeari ekin ahal izango zaio.
- Tren edo trenak blokeorako ezarri diren baldintzak betez alboratuko direla ziurtatuko du, horren arduraduna izango baita.
- AP-ari telefonemaren bidez jakinaraziko dio instalazioen egoera zein den, eta, hala behar izanez gero, hartu beharreko arretak.
- AP-ari telefona igorriko dio, eta bertan, antzemateagatiko blokeoan, bere ardurapean zirkulatu duten tren guztiak baztertzen direla zehaztuko da.

### 434.– Berrezarpena.

- Antzemateagatiko blokeoa kendutzat hartuko da, trena edo tren guztiak aurreikusitako puntuan baztertuta daudenean, eta lanen edo proben arduradunak telefonemaren bidez ukitutako ibilbidea zein egoeratan geratu den jakinarazten duenean.

- Lanetako edo probetako arduradunak AP-ari emango dio trena edo trenak baztertzeko agindua, bai eta tartean zirkulatzeko aurrerantzean bete beharko diren baldintzak ere.
- Baldin baztertzeko tokia egin den geltokian zirkulazioko agentea badago, AP-ak agente horrekin egiaztatuko du lanetako edo probetako arduradunak egindako baztertze tokiari buruzko informazioa.
- AP-ak behin telefonema hauek jasota, blokeoagatik ukitutako geltokietara hurrengo telefonema bidaliko du.

**“Trenbide (bikoitia, bakoitia) desblokeatuta. BT, BA edo BAB zirkulazioa berrezarri da”.**

Zirkulazioko Agenteek ondoko telefonemaren bidez erantzungo dute.

**“Ados trenbide (bikoitia, bakoitia) desblokeoarekin eta BT, BA edo BAB zirkulazioa berrezartzearekin”.**

- Geltoki biren edo gehiagoren arteko kantoian antzemateagatiko blokeo ezberdin bat baino gehiago ezartzen bada, Lanetako edo probetako arduradun batekin baino gehiagorekin, beharrezkoa izango da guztietan aurreko aginduak betetzea, kantoi horretan trenbidea desblokeatu ahal izateko.

#### **435.– Erreserbatua.**

#### **436.– Erreserbatua.**

### **4.5.– IRRATI BIDEZKO BLOKEOA**

#### **437.– Aplikazioa.**

AP-ak ezartzen duenean.

#### **438.– Definizioa.**

Blokeoa, AP-ren eta trenetako gidarien arteko zuzeneko komunikazioaren bidez gauzatzen da.

#### **439.– Nola ziurtatu.**

- Irrati bidezko blokeoa ziurtatzeko, gidariek trenbidea eskatu behar diote AP-ari.
- Trenbide-eskaera irrati-telefonía bitartez egiten da; eta, hori ez dabilenean, beste komunikazio sistema baten bidez. Elkarrizketa guztiak AP-an grabatuko dira.

**440.– Kantoia libre irratik bidezko blokeoan.**

Kantoi batean ez dagoela trenik joko da:

- AP-ak kantoitik igaro den azken trena hurrengo geltokira iritsi dela dioen abisua jasotzen duenean.

**441.– Ezarpena.**

AP-ak honako telefonema hau igorriko die gidariei:

**«Irrati bidezko blokeoa ezarri da \_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean.» Zirkulazioan tartean diren geltokiak: ....., ....., ..... eta .....**

AP-ak, telefonemak bidali ahala, zirkulazio bakoitzaren benetako kokagunea galdetuko du.

**442.– Irrati bidezko blokeoarekin trenak abiaraztea.**

1.– Trenak abiarazteko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Kantoian ez da trenik egon behar.
- Abiaraziko den trenerako trenbidea eskatu behar zaio AP-ari, eta hark eman behar du.
- Gidariak ez du trenbidea eskatuko baldin beste tren batekin gurutzatzea aurreikusita bada eta oraindik gurutzatu ez bada.
- Kasuan kasuko ibilbidea ezarri behar da.

2.– Trena datorrela abisatzea eta trenbidea eskatzea.

- Gidariak, geltoki batera iristen denean, trenbidea eskatuko du telefonema honen bitartez:

**« \_\_\_\_\_ zk.–ko trena (nora) \_\_\_\_\_ heldu eta (norako) \_\_\_\_\_ irteera eskatzen du.»**

- Baldin gidaria iritsi bada beste tren batekin gurutzatu behar den geltokira eta beste tren hori oraindik iritsi ez bada, AP-ari igorriko dio ondoko telefonema:

**« \_\_\_\_\_ zk.–ko trena (nora) \_\_\_\_\_ heldu da. \_\_\_\_\_ trenarekin gurutzatu zain dago.»**

- Gurutzaketa egin ostean, AP-ari igorriko dio telefonema hau:

**« \_\_\_\_\_ zk.–ko trena gurutzatu da \_\_\_\_\_ trenarekin; \_\_\_\_\_-rantz irteteko baimena eskatzen dut.»**

3.– Trenbidea ematea.

- AP-ak, trenbide-eskaera jaso ondoren, gidariari erantzungo dio telefonema honen bitartez:

«**\_\_\_\_\_zk.-ko trenaren. Badakigu non dagoen; itxaron jarraibideei.**»

- Jarraian, AP harremanetan jarriko da aurreko trenarekin, hurrengo geltokira iritsi dela baieztatzeko; edo, gurutzatu behar izanez gero, gurutzatu behar den trenarekin, geltoki berera iritsi dela baieztatzeko.
- Hurrengo geltokira iritsi dela edo, gurutzatu behar izanez gero, geltoki berera iritsi dela baieztatu ondoren, gidariari igorriko dio telefonema hau:

«**\_\_\_\_\_zk.-ko trenari baimena eman zaio \_\_\_\_\_-tik irteteko.**»

- Aurkako trenbideko zirkulazioan joanez gero, aurreko telefonemari “aurkako trenbideko zirkulazioan” gehituko zaio.
- BAB-n beste hau gehituko da: I. edo II. trenbidean.
- Trenbidea emateak baimentzen du hurrengo sarrerako seinalera arte zirkulatzea.

#### **443.– Geltoki batera sartzeko eskaera.**

- Gidari bat irrati bidezko blokeoarekin zirkulatzen ari bada eta geldituta badago geltoki batera sartzeko seinalearen aurrean, seinale hori gainditzeko baimena eskatuko du telefonema honen bitartez:

«**(lekua) \_\_\_\_\_-ko sarrerako seinalean geldi dagoen \_\_\_\_\_ trenak seinalea gainditzeko baimena eskatzen du.**»

- AP-ak, aurreko komunikazioa jaso ondoren, gidariari erantzungo dio telefonema honen bitartez:

«**\_\_\_\_\_zk.-ko trenaren. Badakigu non dagoen; itxaron jarraibideei.**»

- Jarraian, AP harremanetan jarriko da aurreko trenarekin, geltokitik irten dela baieztatzeko.
- Informazioa jaso ondoren, AP-ak geldi dagoen gidariari igorriko dio telefonema hau:

«**Baimena duzu \_\_\_\_\_-ko geltokira sartzeko, honako baldintza hauekin: \_\_\_\_\_.**»

#### **444.– Trenbide-eskaera baliorik gabe uztea.**

AP-ak, zirkulazioko baldintzek aukera ematen dutenean, trenbidea eman dezake, 432. artikuluko 3. puntuko jarraibideak betez, gidariak aurrez trenbidea eskatu gabe.

#### **445.– Abiatzeko agindua.**

Irrati bidez blokeoko kantoi batera abiatzeko agindua gidariak eskatuko dio AP-ari.

**446.– Berrezarpena.**

- BR ezartzea eragin zuten zergatiak desagertzean, AP-ak zirkulazioei ondorengo telefonema bidaliko die:

«(Blokeo mota) berrezarri da \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean.»

- Gidariak ondorengo telefonemaren bidez erantzungo dute:

«Ados \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ artean (Blokeo mota) berrezartzearekin.»

**447.– Gurutzaketen aldaketak.**

- TKN-dun BArako agindutakoa beteko da.

**448.– Erreserbatua.****449.– Erreserbatua.****4.6.– GELTOKI ITXIAK****450.– Zer egin geltoki itxiak dauden ibilbideetan.****Gidaria.**

- 1.– Seinaleen aginduz geltoki itxian geldik egonez gero:
  - Irrati-telefoniaren bidez jakinaraziko dio AP-ari eta hark jarraibideak esango dizkio.
- 2.– Orratzak ondo jarrita ez badaude, AP-ari jakinaraziko dio, eta hark esaten diona beteko du.
- 3.– Kontsigna bidez arautu ahal izango da, geltoki itxietatik datozen edo bertara doazen trenen zirkulazioa.

**451.– Trenak geltoki itxietan gelditzea.**

Bata bestearen osteko geltoki bat baino gehiago itxita dituen ibilbideko zirkulazioa arautzeko, AP-ak tren bati horietako batean, ireki arte, gelditzeko agin diezaioke.

Horretarako, aurreko geltoki batean gidariari hau esaten zaiola ziurtatuko du:

«(non)—— geldituko zara eta ez zara hortik abiatuko harik eta bertako Zirkulazioko Agenteak agintzen dizun arte».

Trena geldi dagoen geltokia irekitzen denean, edo heltzen denean, Zirkulazioko Agenteak bi noranzkoetan, blokeoa antolatu duten geltokietaraino telefonema hau bidaliko du:

«—Trena (non) — aparkatuta dago».

Telefonema hori jasotzen duten Zirkulazioko Agenteek kantoiak libretzat hartuko dituzte eta beste tren batzuen zirkulazioa antolatu ahal izango dute.

#### **452.– Erreserbatua.**

#### **453.– Erreserbatua.**

### **4.7.– ABIATZEKO AGINDUAREN BEREZITASUNAK**

#### **454.– Abiatzeko agindua baldintza berezietan.**

Aparkatzeko tokitik irteerako seinalea ikusten ez denean, gidariak, kasuen arabera, honi begiratuko dio:

- Doala trena seinaleari.
- Doala trena adierazten duen seinale argitsuari.
- Maniobretako seinaleari.
- Seinale errepikatzaileei.

Seinale horiek irteerako seinalea ikus daitekeen tokiraino joateko baimena ematen diote eta, behin bertan, hark dioena beteko du.

#### **455.– Abiatzeko agindua baliogabetzea.**

1.– Igarotzeko seinalerik ezean, irteerako seinalearen adierazia bat-batean aldatzen delako zein beste edozergatik tren bat geltoki batean geldi geratzen denean, eta geldi dagoen tren batek abiatzeko agindua eman eta berehala abiatu ezin duenean, edo irteerako seinalearen adierazia bat-batean aldatu delako edo beste edozergatik abiatu eta berehala gelditzen denean, hau egingo du:

- Trenak irteerako seinalea edo zirkulatzen ari den trenbideko piketea igaro ez badu, gidariari abiatzeko agindua berriro emango zaio, hala badagokio.
- Trenak irteerako seinalea edo zirkulatzen ari den trenbideko piketea igaro badu, gidariari abiatzeko esango zaio, hala badagokio, edo bestela geltokiko trenbide batera atzera egiteko.

- 2.– Zirkulazioko Agenteak edo AP-ak ez du emango geltoki albo-kidetik tren bat trenbide beretik aurkako noranzkoan abiatzeko baimenik, abiatzeko agindua baliogabetu zaion gidariarekin aurrean komunikaziorik ezarri gabe.

#### **456.– Bagonetak.**

Trenbide hutsean gelditu behar dutelako edo abiatu diren geltokira atzera egin behar dutelako atzemateagatiko blokeoa ezarri behar zaienean ezik, bagonetak, dabiltzan linean ezarrita dagoen blokeoaren arabera ibiliko dira, eta ezin izango dute baimenik gabe atzera egin.

#### **457.– Trenen atzerabidea.**

- 1.– Arau orokor gisa, trenek ez dute atzera egingo gidariaren ekimenez halakoetan ezik:

- Atzemateagatiko blokeoaren babespean zirkulatzen duten trenak.
- Tren zatitu baten lehen zatia bigarrenarekin lotzeko.
- Trenak edo trenetan doazen pertsonak arriskuan daudenean (suteak, uholdeak, luiziak, etab.), gidariak arriskutik alde egiteko behar duen beste atzera egitea erabaki ahal izango du. Atzerabidea kontu handiz eta astiro egingo da, batez ere BA-ko lineetan, eta ahalbait azkarren seinalatuko da trenbideko bere kokagunea.

#### **2.– Atzerabidea egiteko eskaera**

Trenbide hutsean geldi dagoen trenak atzeko geltokiraino joan behar duenean, gidariak baimena telefonema honekin eskatuko dio AP-ari:

«**\_\_\_\_\_trenak \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ arteko \_\_\_\_\_ trenbide (bikoitiko, bakoitiko, I, II), \_\_\_\_\_ Km-an geldi dagoenak, atzera egiteko baimena eskatzen du.**»

#### **3.– Atzerabidea egiteko agindua eta baimena**

AP-ak, atzerabidea egiteko eskaera jasotzen duenean, ez datorrela trenik jarraian atzerabidea egingo den trenbidetik egiaztatuko du. Ondoren, baimendu dezake, edo zirkulazioko agente bati agindu, telefonema honen bitartez:

«**Baimena eman zaio ..... trenari atzerabidea egiteko .....raino.**»

- 4.– Trenbide bikoitzean atzera egiten duten trenak aurkako trenbideko zirkulazioaren arabera sartuko dira geltokietan.
- 5.– Atzerabidean trenbide pasagunerik badago, gidariak trenbide pasagune horretan babesik ez balego bezala jokatu du.



**6.– Atzerabidea egiteko eskaria baliogabetzea.**

- Atzera egiteko baimena eskatzea eragin duten arrazoiak desagertzen badira, gidariak eskaera baliogabetu eta abiatzeko baimena eskatuko du, telefonema honekin:

“\_\_\_\_\_ trenerako atzera egiteko egin dudan eskaera bertan-behera uzten dut. Ibilerari berriro ekiteko baimena eskatzen dut”.

- AP-ak, aurretiko telefonema jaso ondoren, hurrengoetako batekin erantzungo du, dagokionaren arabera.

«**Abia zaitezke**»

«**Eutsi \_\_\_\_\_ trenari \_\_\_\_\_ Km-an geldi (zergatik) \_\_\_\_\_**»

**458.– Trenbide hutsean geldi dagoen trenaren sorospidea.****1.– Sorospide eskaera**

Aurrera egitea eragozten dion matxura edo istripu batengatik trenbide hutsean geldi dagoen treneko gidariak sorospidea eskatu behar duenean, telefonema hau bidaliko du:

«**\_\_\_\_\_ trenara \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ arteko \_\_\_\_\_ trenbide (bikoitiko, bakoitiko, I, II), \_\_\_\_\_ Km-an geldi. Sorospena eskatzen dut.**».

Telefonema hori bidalita, gidariak ezin izango du abiatu abaguneak direnak direla ere, geltoki albo-kideetako Zirkulazioko Agenteek edo AP-ak baimena ematen ez badiote.

**2.– Sorospidea bidaltzea**

Aurreko geltokiak, atzekoak edo biek AP-aren esanen arabera bidali ahal izango dute, ohiko noranzkoan zein aurkako trenbidetik.

Abaguneek gomendatzen dutenean, AP-ak gidariaren sorospide-eskaera jaso ez arren atzeko geltokitik sorospidea bidaltzea antola dezake.

**3.– Sorospide eskaera baliogabetzea**

Sorospidea eskatzea eragin duten arrazoiak desagertuko balira, gidariak eskaera baliogabetu eta abiatzeko baimena eskatuko du, telefonema honekin:

«**\_\_\_\_\_ trenerako sorospenerako egin dudan eskaera baliogabetu egiten dut.**»

Zirkulazioko Agenteak albo-kidearen erantzuna jasota, hurrengoetako batekin erantzungo du, dagokionaren arabera:

«**Abia zaitezke**»

«**Eutsi \_\_\_\_\_ trenari \_\_\_\_\_ Km-an geldi (zergatik) \_\_\_\_\_**»

**4.– Sorospidea bidaltzea**

Sorospidea abiarazteko, ezinbestekoa da:

- Aurreko 2. puntuko eginbeharrak betetzea.
- Sorospenerako treneko gidariari hau esatea:

«**Laguntza ..... kilometroan, ..... eta ..... artean geldik dagoen eta ..... zirkulazio baldintzak dituen trenarentzat**»

**5.–** Sorospenerako trenea daraman gidaria ikusi ahalako ibileran joango da geltoki albo-kidetik sorosguneraino.

**459.– Blokeoko ustekabeko gunea.****Ezarpena**

Kilometro puntu baten eta alboetako geltokien arteko zirkulazioa eta komunikazioa errazteko, abaguneez ustekabeko blokeoko gunea bat ezartzea gomendatzen dutenean, gunea horren ardura hartzera doan Zirkulazioko Agenteak albo-kideetako Zirkulazioko Agentei telefonema hau bidaliko die:

«**PB ezarri da \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ arteko \_\_\_\_\_ trenbide (bikoitiko, bakoitiko, I, II (bi trenbideetako) \_\_\_\_\_ Km-an. Eman trenen egoeraren berri.**»

Telefonema hori jasotzen duen Zirkulazioko Agenteak hau erantzungo du:

«**Hemendik \_\_\_\_\_ Km-ra arteko trenen egoera: (Trenbide bakoitzean, tren bakoitzaren zenbakia eta mota, non dauden edo ibiltzen ari diren zehaztuz)**».

**Zirkulazioa****Zirkulazioa.**

Trenbide bakoitzerako BT-ko bi kantoi ezarriko dira, geltoki albo-kide bakoitzetik blokeoko ustekabeko gunera bitartekoak.

Behin blokeoko ustekabeko gunea ezarrita, zirkulazioa BT-ren arauen menpe egongo da, eta trenbidea eskatu, onartu eta iritsiera ohartarazteko telefonemetan zein trenbidez ari diren ere zehaztuko da.

Geltoki albo-kideetako Zirkulazioko Agenteek gidariei, ABA-ren bidez, blokeoko ustekabeko gunea ezarri dela eta zein kilometro puntutan ezarri den jakinaraziko diete.

**Kentzea.**

Blokeoko gunea ezartzea eragin duten arrazoiak desagertzen direnean, gunearen ardura duen Zirkulazioko Agenteak kendu egingo du, jarraibide hauek betez:

- Azken trenea alboratzen den geltokiko Zirkulazioko Agenteari trenbidea eskatu dio eta jasoko du.
- Ondoren, telefonema hau luzatuko dio:

«**\_\_\_\_\_ trenea hor baztertuta, \_\_\_\_\_ Km-ko PB kendu egingo da.**».

- Geltoki horretako Zirkulazioko Agenteak, trena baztertu dela egiaztatu ondoren, telefonema hauxe luzatuko dio albo-kideari:

«\_\_\_\_\_ Km-ko PB kendu egin da (trenbide bikoititik, bakoititik, I., II. trenbidetik)».

- Blokeoko ustekabeko gunearen geltoki albo-kideetan dauden Zirkulazioko Agenteek, ABA-ren bitartez, ukitutako gidariei jakinaraziko diete PB kendu dela.

#### **460.– Beste baten aurrean doan trena.**

Tren bat beste baten aurrean doanean, betebeharrak hauek bete beharko dira:

- Aginte Postuak tren bat beste baten aurrean doala jakinaraziko die tokiko agintea duten eraginpeko geltokiei, telefonema bidez; telefonema hori AP-ko grabazio-sisteman geratuko da erregistratuta.
- Tren bat beste baten aurrean badao eta bien azken geltokia beste AP batena bada, AP horrek aurreko komunikazioa jasoko du, eta bere eremuko eraginpeko geltokiei jakinarazi beharko die. Geltoki horiek tokiko agintean egongo dira.

#### **461.– Erreserbatua.**

#### **462.– Erreserbatua.**

## **V. TITULUA. ERAKETA ETA BALAZTATZEA**

### **5.1.– TRENEN ERAKETA**

#### **501.– Trenak.**

Tren enpresek eta azpiegitura kudeatzaileak, egoki denean, prozedura egokiak ezarri beharko dituzte beraiei eragiten dien araudia beteko dela ziurtatzeko, arlo hauetan: trenen eraketa, trena osatzen duten ibilgailuak eta, kasuan kasu, kargaren antolaketa trenean.

#### **502.– Trenen masa eta luzera**

Trenak, masa eta luzeraren arabera, honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Merkantzien trenak.

Bagoiz edo atoian eramandako lokomotoraz eratuta egon daitezke.

Gehieneko tipoa, luzera eta masa osoa (atoian eramango dituen lokomotora edo lokomotorak kanpo utzita) balaztatze-erregimenaren arabera izango dira, honela:

- Balaztatzea P/V erregimenean

	Ardatz kop.	Mota
	100 ardatz arte	T.30etik T 70era

- Balaztatzea G/M erregimenean

	Ardatz kop.	Mota
	100 ardatzetik 140 ardatz arte	T. 30

- Automotoreak

Serie bereko materialez edo bateragarri direnez eratu daitezke.

### 503.– Ohiko trenen eraketa.

1.– Zenbait ibilgailuz eratuta egongo dira, eta ibilgailu horien gehieneko abiadurak tren motarenarena izan beharko du, gutxienez.

Baldin, salbuespenez, baldintza hori betetzen ez duen ibilgailuren bat gehitu behar bada, tren enpresak ETS-ri jakinaraziko dio, gidariak horren berri izan dezan eta kontuan izan dadin erregulazio kontuetarako:

- Ez da gainditu behar gehitutako ibilgailuaren gehieneko abiadura.

2.– Atoian eramandako karga inolaz ere ezin izango da handiagoa izan trena atoian eramango duen lokomotoraren edo lokomotoraren gehieneko karga baino (Kargari buruzko Jarraibideetan adieraziko da).

### 504.– Bagoien zirkulazioa.

1.– Bagoiak tren enpresako agente baten zuzendaritzapean kargatuko dira, eta Kargari buruzko Jarraibideetan ezarritakoaren arabera.

2.– Karga ezin izango da handiagoa izan Kargen Taulan adierazitakoa baino.

3.– Kargamentuan edo bagoiko elementuetan anormaltasunen bat ikusiz gero, edo bagoiak doan linean edo ibiliko den linean baimendutako karga baino handiagoa daramala ohartuz gero, Aginte Postuak trena gelditzeko agindua emango du eta, jarraian, kasuan kasuko tren enpresari jakinaraziko dio, dagozkion neurri egokiak har ditzan. Azpiegitura kudeatzaileak soilik eman dezake baimena egoera horretan zirkulatzeko.

4.– Kontsigna bidez arautu ahal izango da ezohiko garraioen zirkulazioa, baldin beren masa edo neurriak direla-eta, edo bestelako arrazoiengatik, galiboa gainditzen badute.

## Trakzioa

### 505.– Lokomotorak trenaren eraketan.

- 1.– Oro har, trenetan gehienez ere bi lokomotora ibil daitezke zerbitzuan. Kasu berezietan, Kontsigna bidez erregula daiteke lokomotora kopuru hori baino gehiago jartzea.
- 2.– Trenak aurrean lokomotora bat eta atzean beste bat daramatzanean, atzeko lokomotoraren potentzia ez da aurrekoarena baino handiagoa izango.
- 3.– Tren bati tiratzen dioten lokomotorak direnak direlarik ere, Aginte Postuak eraketari zerbitzu gabeko beste lokomotora batzuk erants dakizkion erabaki ahal izango du, eta horiek ere ibilgailu tiratuak izango dira.

### 506.– Ibilgailu motorren zirkulazioa.

Ibilgailu motorrak baimentzen direnean, zein motatako lineetatik ibil daitezkeen zehaztuko da. Ardatz bakoitzeko masaren araberakoa izango da hori.

### 507.– Bultzaturiko trenak.

1.– Ez dute 40 Km/h baino gehiago hartuko, baldintza hauek betetzen direnean:

- Agentea ibileraren noranzkoan, trenaren aurrealdean, dagoen kabinan doanean, txistua eta intentsitate handiko argiak badaramatza.
- Agenteak larrialdiko agentea badu eraketa osoan.
- Bultzatzen duen gidariarekin komunikatzeko telefonoa edo beste komunikabideren bat badu.

2.– Ez dute 20 Km/h baino gehiago hartuko, baldintza hauek betetzen direnean.

Trenbide pasaguneak dituzten tarteetan, ohiko trenak bultzatuta ibili ahal izateko, agente baimendun batek egon behar du buruan, mugimenduaren noranzkoan.

### 508.– Lokomotorak atoian eramatea.

1.– Tren enpresek beren eskuliburuetan zehaztuko dituzte atoian eramán ahal izateko lokomotoreek bete beharko dituzten baldintza zehatzak. Arreta berezia jarri behar da tutuen konexioan, atoian eramandako lokomotoraren balazta erabilgarritzat har dadin.

Akoplatzeak egin eta ibilgailuak zirkulatzeko baldintza egokietan jartzen direnean, gidariak AP-ari jakinaraziko dio zirkulazio-abiadura edo bestelako inguruabar esanguratsu oro, aintzat har dadin trafikoa arautzeko orduan.

### **509.– Automotoreak edo tren-unitateak atoian eramatea.**

- 1.– Ahal izanez gero, serie bereko materialaren bitartez eramango da atoian.
- 2.– Soilik anormaltasunen bat badago eramango du atoian beste serie batekoak. Baldintza horietan, ibilbideak ezinbesteko dena izan behar du, ahalik eta laburrena.
- 3.– Bigarren puntuko baldintzetan, ezin badira lotu balaztako tutuak, trenak ezin izango du 50 km/h-ko abiadura gainditu. Buruko eraketan doan gidariak izango du trakzioa eta balazta aktibatze ardurak. Atoian eramandako eraketan doan gidariak aurreko gidariak irratitelefonia bidez emango dizkion trakzio- eta balaztatze-aginduak bete beharko ditu.
- 4.– Baldin balazta pneumatiko osoa zerbitzuetatik kanpo badago, salbuespenez, soilik bi ibilgailu motorrez eraman ahal izango da atoian; bata buruan joango da, eta, bestea, azkena izango da. Erabilgarri duen balaztaren ehunekoaren arabera kalkulatu da tren mota.
- 5.– Tren enpresek beren eskuliburuetan zehaztuko dute zein baldintza zehatz bete behar dituzten automotoreek atoian eraman ahal izateko, bai eta kasu bakoitzerako abiadura ere.

Akoplatzea egin eta ibilgailuak zirkulatzeko baldintza egokietan jartzen direnean, gidariak AP-ari jakinaraziko dio zirkulazio-abiadura edo bestelako inguruabar esanguratsu oro, aintzat har dadin trafikoa arautzeko orduan.

### **510.– Erreserbatua.**

### **511.– Erreserbatua.**

## **5.2.– TRENEN GIDARITZA**

### **512.– Linea ezagutzea.**

- 1.– Linea batetik zirkulatu behar duen gidariak bertako seinaleztapena eta gainerako ezaugarri bereziak ezagutzen dituela erakutsi beharko du.
- 2.– Gaituta ez dagoen linea batean ibili behar duen gidaria, horiek ezagutzen dituen beste gidari batekin joango da.

### **513.– Trenaren langile zuzkidura jatorrian.**

Artikulu honetan zehazten den gidaritzako langileen zuzkidura zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko behar den gutxienezkoa da.

- 1.– Tren eta lokomotora isolatuetan gidari bat joango da zerbitzuan hau daramatenean:

- Zaintzako gailua.
- Irrati-telefonia
- Aginte anitza, baldin ibilgailu motor bi edo gehiago badaude.

Bidaiarien trenetan, gainera, hauxe ere izan beharko da:

- Gidaritzako kabinatik ateak itxita daudela egiaztatzeko modua.

Baldintza horietakoren bat betetzen ez bada, tren enpresarako zerbitzua egiten duen treneko laguntzaile bat egon beharko da berarekin.

Zerbitzurik gabeko zenbait tren edo lokomotora isolatu irrati-telefoniarik gabe ibiltzea baimendu ahal izango da, ibilbideak trenaren azken geltokira eta tailerretara edo kotxetegietara doazenean.

**2.–** Trenean laguntzailea egon behar bada, honako eginkizun hauek izango ditu:

- Zaintza-gailuak funtzionatzen ez badu, gidariari lagunduko dio; larrialdiko balaztari eragingo dio gidaria zorabiatzen bada, eta AP-ari jakinaraziko dio.
- Irrati-telefoniak funtzionatzen ez badu, gidariak emango dion informazioa komunikatuko du beste telefono batetik.
- Ateak itxita daudela egiaztatzeko sisteman badago matxura, geltoki komertzial bakoitzean egiaztatuko du ateak ondo itxi direla, eta gidariari jakinaraziko dio.

**3.–** Geltoki bateko maniobretako zuzkidura gidari bat izango da, treneko balaztatze automatikoa zerbitzuan daramanean.

#### **514.– Gidaritzaren erantzukizuna.**

1.– Gidaritzaren erantzukizuna mugimenduaren noranzkoan lehenengo tokian dagoen eta trakzio agintea eta balazta dituen kabinan doan gidariarena da.

2.– Justifikatuta egonez gero, gidariak trenaren gidaritzaren erantzukizuna, baimendutako beste gidari baten esku utz dezake.

3.– Ikasteko helburuarekin, gidatzeko baimenik ez duen agenteak ibilgailu motorra gida dezake gidariaren zuzeneko erantzukizunpean, eta gidaria bertan dela.

4.– Gidaritzarako baimenduta ez dagoen pertsona batek ibilgailua gidatu behar baldin badu, linearen ezagutzan gaituta dagoen gidariak berarekin egon behar du, eta gidari horrek izango du abiadura zuzentzeko ardura.

#### **515.– Gidaritzako kabinetan egon daitezkeen langileak.**

1.– Gidaritzako kabinetan bereziki horretarako baimena duten agenteek edo beste pertsona batzuek bidaiatu ahal izango dute.

2.– Kabinan doazen agenteek edo beste pertsonak ez dute Gidariaren atentzioa eginkizun horretatik urrunduko.

3.– Zirkulazioko eginkizunetarako gaituta baldin badaude, erantzukizuna eskatu ahal izango zaizkie, gidariak araurik hautsiz gero.

#### **516.– Erreserbatua.**

## 517.– Erreserbatua.

# 5.3.– BALAZTATZE AUTOMATIKOA

## 518.– Balaztak trenetan.

1.– Zirkulazioan dauden tren guztiek aire konprimitu bidezko balazta automatikoa izango dute eraketako azken ibilgailuraino, eta beti guztiz erabiltzeko moduan eta zerbitzuan izan beharko dute.

2.– Tren batek zirkulatzeko behar duen balaztatze-potentzia, ibilbi behar den lineen eta motaren arabera izango da, eta potentzia hori zehazteko, balaztatze-ehunekoa kalkulatu da.

3.– Balaztatze-erregimena (G/M edo P/V) ibilgailuen eta haien eraketaren ezaugarri teknikoaren arabera izango da.

4.– Oro har, tren bateko ibilgailuen balaztatze-erregimena uniformea izango da, eta beharrezko balaztatze-ehunekoak ahalbidetuko duen balazta gabeko ardatz-kopurua eraman ahal izango du trenak.

5.– Balaztatze-erregimenaren arabera ibilgailuak banatzeari dagokionez. Ohiko trenetan, honako jarraibide hauek ezarriko dira:

- G/M balaztatze-erregimenean balaztatuko diren trenak.

Balazta duten ibilgailu guztiek –lokomotorak barne– G/M posizioan izango dute aldagailuaren palanka.

- P/V balaztatze-erregimenean balaztatuko diren trenak.

Balaztadun ibilgailu guztiek P/V posizioan izango dute palanka. Lokomotorak balaztatutako masa handienaren erregimenean ibiliko dira.

6.– Hutsik dagoen bagoi batean balaztatze-potentzia eskuz aldatzeko aldagailua ezin bada jarri “VACIO” posizioan, balazta baliogabetuko da. Bagoi hori azken badoa, trenean duen tokia aldatuko da.

Kargatuta dagoen bagoian balaztatze-potentzia eskuz aldatzeko aldagailua ezin bada jarri “CARGADO” posizioan, balazta zerbitzuan mantenduko da, baina balaztatze-ehunekoa zenbatzerakoan balio minimoa izango du.

7.– Material historikoz eratutako trenak huts bidezko balazta automatikoa eraman dezakete, eraketako azken ibilgailuraino, eta beti guztiz erabiltzeko moduan eta zerbitzuan izan beharko dute.

8.– Potentzia- eta erregimen-aldagailu automatikoa duten ibilgailuek ez dute eskuzko palankarik eta, beraz, aldaketak automatikoki egingo dira.

## 519.– Erabili daitekeen balaztatzearen ehunekoa nola kalkulatu.

1.– Soilik ohiko trenetarako eta automotoretarako kalkulatu da, formularen bidez, atoian eramanda dabilzanean edo bogieren bat isolatu denean.



$$\text{Balaztatze-ehunekoa} = \frac{\text{Masa balaztatua (mf)}}{\text{Trenaren masa osoa (mt)}} \times 100$$

Isolatutako lokomotoretarako ere kalkulatu da, baina erabili dezakeen balaztatze-ehunekoa behar denaren berdina edo handiagoa den egiaztatzeko baina ez.

- 2.– Trenaren masa osoa (mt) lortzeko, ibilgailu bakoitzaren tara eta karga gehitu behar dira, lokomotorak barne.
- 3.– Trenaren masa balaztatua (mf) lortzeko, ibilgailu bakoitzaren masa balaztatua gehitu behar dira, lokomotorak barne. Ibilgailuren batek bogie isolaturen bat badarama, proportzionalki egingo da.
- 4.– Balaztatzeari buruzko Jarraibideetan azaldu da nola lortu ibilgailu bakoitzaren masa osoa eta balaztatua, bai eta trenak ibilbide desberdinetan tren motaren arabera nahita nahiez izan behar dituzten balaztatze automatikoaren ehunekoak ere.

Baldin erabil dezakeen balaztatze-ehunekoa txikiagoa bada beharrezkoa baina, eraketa aldatuko da, beharrezkora iritsi arte. Ezin bada hori egin eta trenea abiarazi behar bada, zein motatarako duen ehuneko nahikoa ikusiko da, eta mota horretako gehieneko abiadurak ezarriko dira.

## **520.– Isolamenduko giltza, potentzia aldatzeko palanka eta erregimena aldatzekoa.**

Balaztatzeari buruzko Jarraibideetan deskribatu dira elementu horiek, bai eta zein posiziotan jarri behar diren ere, ibilgailuaren kargaren, tren motaren eta balaztatze motaren arabera.

## **521.– Manometroen gutxieneko balioak.**

Trenen gidariak ez dira abiatuko geltokietatik edo geldialdiak egingo dituzten lekuetatik aurrez ibilgailu guztietan presio nahikoa egin gabe.

## **522.– Eragiketa.**

- 1.– Balazta automatikoa, anormaltasunik ezean, aurreko gidariak kontrolatuko du.
- 2.– Gidariak, abiatzean, balaztari eragingo dio, behar bezala dabilela egiaztatzeko; eta, zirkulazioan denean, beharrezko jotzen duenean.
- 3.– Balaztari lokomotora eraketatik banatu baino lehen eragingo zaio beti.

## **523.– Laxatzeko balbularen erabilpena.**

- 1.– Maniobretan eta geltokietan lokomotoretatik banatutako ibilgailuetan, agenteek eragingo diete balbula horiei, behar denean.
- 2.– Tren bateko ibilgailu batean edo gehiagotan laxatzeko balbulari eragin eta gero, hiru bat minutuz itxaron behar da aire konprimatuzko balazta berriro zerbitzuan jar dadin.
- 3.– Debekatuta dago laxatzeko balbulen hagatxoak (kateatxoak) deformatzea edo betiko blokeoa,

halakoetan ibilgailua balaztarik gabe geratzen baita, zirkulazioaren segurtasunerako ondoriozko arriskuarekin.

#### **524.– Erreserbatua.**

#### **525.– Erreserbatua.**

### **5.4.– APARKATZEKO BALAZTATZEA**

#### **526.– Balaztak trenetan.**

1.– Trenetan dagoen estazionamenduko balazta erabiliko da trenak geldiarazteko balazta automatikoak eraginkortasuna galdu baino lehen, arrazoi hauetakoren batengatik:

- Lokomotora eraketatik bereizi delako.
- Ibilgailu motorrak ezin izan duelako presio gradua berriz ezarri.
- Zatitutako materialaren mozketak geratu delako trenbide erdian, edo bereizita geratu delako geltokiko trenbide batean.

Balazta automatikoa, maximora eraginda (hau da, balazta automatikoaren, TFA, tutua guztiz hustuz), eraginkor izango da 90 minutu igaro arte.

2.– Aurreko puntuan azaldutako egoeraren bat agertzen bada, trenaren titularra den enpresako langile baimenduek trena ibilgetuta izango dela bermatuko dute, eta trena aseguratuta geratuko da. Ekintza horien berri Aginte Postuari emango diote, gero.

#### **527.– Erabili daitekeen balaztatzearen ehunekoa nola kalkulatu.**

1.– Merkantziak garraiatzeko ohiko trenetan kalkulatu da soilik, trena atoian daramaten lokomotoren balaztatze-masa kontuan hartu gabe, formula honen bitartez:

$$\text{Balaztatze-ehunekoa} = \frac{\text{Masa balaztatua (mf)}}{\text{Trenaren masa osoa (mt)}} \times 100$$

2.– Trenaren masa osoa (mt) eta balazta automatikoan erabiltzen dena berdinak dira.

- 3.– Masa balaztatua (mf) lortzeko, ibilgailu bakoitzaren masa balaztatuak gehitu behar dira, trena atoian daramaten lokomotorak kanpo utzita.

### **528.– Balaztatze Buletina.**

- 1.– Ohiko materialez eraturako tren guztietarako ezartzen da, jatorri-geltokian edo eraketa aldatuko den geltokian.
- 2.– Probetan parte hartuko duten agente guztiek nahitaez bete behar dute buletinean ezarritakoa.
- 3.– Balaztatze Buletin bakarra formalizatuko da, nahiz eta trena sarez aldatu.
- 4.– Balaztatze Buletina eta ibilerako orria batera egongo dira beti.
- 5.– Dokumentua gidariak edo treneko eragiketa-laguntzaileak formalizatuko du, kasu bakoitzean erabakiko denaren arabera, eta zirkulazioko agenteek ere parte hartuko dute zerbitzu emango duen geltokietan.
- 6.– Proba egin eta gero, parte hartu duten agenteek dagokien atalean sinatuko dute. Sinatzeak esan nahi du proba mota behar bezala bukatu dela, eta agente bakoitzak segurtasuneko elementuak aztertu dituela.
- 7.– Anormaltasunen baten ondorioz Balaztatze Buletineko datuak aldatu behar badira, gidariak edo treneko eragiketa-laguntzaileak egindako aldaketen berri emango dio zirkulazioko agenteari edo Aginte Postuari.
- 8.– Zirkulazioko agenteak edo Aginte Postuak, probetan lortutako datuak eta balaztatze-ehunekoak kalkulatzeko formulak ezartzetik eratorritako datuak aintzat hartuta, aterako den tren motaren berri emango dio gidariari.

### **529.– Erreserbatua.**

### **530.– Erreserbatua.**

## **5.5.– BALAZTATZE PROBAK**

### **531.– Balazten eraginkortasuna.**

- 1.– Trenen balaztatzeak ondo funtzionatu behar du, horren mende baitago, neurri handi batean, zirkulazioaren segurtasuna.

Horretarako, trena abiapuntuko geltokitik edo eraketa aldatzen zaion bitarteko geltokitik abiarazi baino lehen, kapitulu honetan zehazten diren balaztak nola funtzionatzen duen ikusteko probak xehetasun handiz burutu behar dira, baita zapatak nola estutzen eta laxatzen diren ere, Balaztatze Jorraibidean deskribatzen diren prozeduraren eta gailuen bitartez.

- 2.– Balaztatzearen probak burutzeko, ezinbestekoa da balaztaren gailuak posizio egokian egotea, zeren gaizki jarrita egoteak eragin zuzena baitu balaztatzearen gaitasunean.

- 3.– Trenaren titular den enpresak sistema bat azalduko du, zeinen bitartez abiarazi beharreko eraketetan honako hauek bermatuko diren:

- Egin beharreko balaztatze-probak egin direla.
- Erdi-erantsiak lotuta daudela eta atzeko ibilgailuarena euskarrian sartuta.
- Potentziaren aldagailuaren palankak zamaren arabera dagokien V edo C posizioan daudela.

- Erregimena aldatzeko palankak tren motari dagokion posizioan daudela, luzeraren eta atoian eramandako masaren arabera.
- Isolamenduko giltzak «konektatuta» posizioan daudela, ibilgailuaren balazta matxuratuta badago edo itzaltzeko agindua badago ezik.
- Aparkatzeko balaztak laxaturik daudela.

4.– Agintaritza anitzean zein lokomotorak atoi gisa eramaten direnean, guztiek balaztatze-gailuak posizio egokian dituztela egiaztatu behar du Gidariak.

### **532.– Probak sailkatzea eta burutzea.**

- **Proba osoak.**

**Hau ziurtatzen du:**

- Jarraitasuna eraketa guztiaren TFA-n.
- Eraketan zerbitzuan doazen balazta guztiek lasaitzean eta estutzean ondo funtzionatzen dutela.

**Burutzapena:**

Trena geltokitik edo eraketaren abiapuntutik irten baino lehen.

- **Proba partzialak.**

**Ziurtatzen du:**

- Eraketa guztiaren TFA-ren jarraitasuna, eta baita azken ibilgailuaren balaztaren estutzeak eta lasaitzeak ere.
- Eraketari eransten zaion ibilgailu bakoitzaren balaztak ondo funtzionatzen duela, estutzean eta lasaitzean.

**Burutzapena:**

Trena geltokitik zein eraketari ibilgailuak gehitu zaizkion lekutik irten baino lehen.

- **Jarraitasunaren Probak.**

**Ziurtatzen du:**

- Eraketa guztiaren TFA-ren jarraitasuna, eta baita azken ibilgailuaren balaztaren estutzeak eta lasaitzeak ere.

**Burutzapena:**

- Atzetik trakzioko lokomotora bat eransten denean.
- Eraketaren erditik, hau da, ez aurretik ezta atzetik ere, ibilgailu bat edo gehiago banatzen denean.
- TFA-ren jarraitasuna eten behar izan denean, nahiz eta ibilgailurik gehitu edota kendu ez.
- Adar bi lotzen direnean, beraien eraketak aldatu gabe.
- Lokomotorak, 8 ordu baino gutxiago geldirik dagoen tren baten balazta hornitzen eta kontrolatzen ez duenean.

**• Akoplamenduaren egiaztapenak.****Ziurtatzen du:**

- TFA-ren jarraitasunaren berrezarpena, baita tiratutako balaztadun lehen ibilgailuaren balaztaren estutzea zein laxatzea.

**Burutzapena:**

- Lokomotora aurrera aldatu behar denean, berriro aurrera eraman behar denean edo aurretik atzera eraman behar denean.
- Aurretik beste lokomotora bat gehitzen edo banatzen denean, trakzio edo agintaritza anitzean.
- Aurretik beste lokomotora batzuk gehitzen edo banatzen direnean.

Proba hau egiteko, aurreko jarduerak 30 minutu baino gutxiagotan egin behar dira. Gehiago irauten badute, jarraitasunaren proba egingo da.

**• Probak etetea.**

Ez da zertan probarik egin behar kasu hauetan:

- Atzeko ibilgailu bat edo zenbait edo atzeko lokomotora kentzen badira.
- Gidariak egiaztatuko du balazta behar bezala dabilela. Horretarako, manometroari begiratuko dio balaztak estutu eta, jarraian, lasaitzen dituztenean.
- Potentziaren aldagailuaren palankaren zein tiratutako ibilgailu guztien edo batzuen araubidearen aldaketa gertatzen denean.

- Tiratutako ibilgailuen balazta dagokion giltzaren bidez isolatzean.
- Alarma tresna bat berriro jartzen denean.
- Igarotzean gidaria aldatzen denean, irteten denak anormaltasunik sumatu ez badu, betiere.
- Soilik tren-zenbakia aldatzen denean.

- **Ohar garrantzitsuak.**

Laxatzeko balbulari eragin zaion ibilgailu guztietan proba osoa zein partziala egin beharko da.

Aurreko lokomotora atzera eramaten denean, edo atzetik eramaten diren ibilgailuak banatzen direnean, gidariak eraketa berriak tren osatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituen ala ez eta orain atzean doan ibilgailuak balazta automatikoa erabilgarri eta zerbitzuan duela egiaztatuko du.

### **533.– Berezitasunak probak egitean.**

- Proba egiten denean horretarako dagoen instalazio baten bitartez, proba horren jarraibide tekniko egokiak bete beharko dira.
- Trena atoian eramango duen lokomotora akoplatzen denean, nahiko izango da jarraitutasun-proba egitea.
- Trena atoian eramango duen lokomotora ez den beste bat izan daiteke.
- Gidariaren kabinan honako hauek hartuko dira aintzat:
  - Trenean doan lokomotoraren edo lokomotoren aginteak eta gainerako balaztatze-gailuak abian doazenean egon behar duten posizioan egon behar dute.
  - Buruan doan lokomotorak egiten duenean balazta-kontrola eta trakzio anitza duenean, buruan ez doazen lokomotoretan egiaztatuko da haien balazta-agintea ez dagoela operatibo.
- Nolanahi ere, egindako proba mota gehienez ere 8 ordutarako izango da baliozko.

**534.– Automotoreei eta tren-unitateei aplikagarri zaizkien xedapen bereziak.**

Ibilgailu horien berezitasunak direla-eta, balazta-probak egiteko honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ez da beharrezko izango, proba tren berria egiteko bada ere.
- Jarraitutasun-proban, ez da behar azken ibilgailuaren balaztaren estutzea eta lasaitzea ziurtatzerik.
- Balazta automatikoen estutze eta lasaitzeak egiaztatzeako, ibilgailu-multzo bakoitzean dauden adierazleak behatu beharko dira.

**535.– Erreserbatua.****536.– Erreserbatua.****5.6.– BALDINTZA DEGRADATUAK****537.– Trakzioa baldintza degradatuetan.**

- 1.– Trenen trakzioa aurreko artikuluetan esan bezala gauzatzerik ez dagoenean, trenaren titulartasuna duen enpresak anormaltasuna jakinaraziko dio AP-ari, eta hark erabakiko du zer egin, baldintza hauen arabera:
  - Ibilbidea anormaltasuna konpon daitekeen lehen geltokiraino mugatuko da.
  - Trenean zerbitzu egiten ari den gidariak edo gidariek AP-ari jakinaraziko diote zein abiaduratan ibil daitezkeen.
- 2.– Beren kabuz ibili ezin direlako trenbidean bertan geldituta dauden trenei beste tren batek egin diezaieke bultza, inguruabarrak ikusita horrela egitea gomendagarri denean, betiere baldintza teknikoek horretarako aukera ematen badute eta AP-ak baimena ematen badu.
  - Bultza egingo duen trena ez badago beste trenaren atzean geratuta, zirkulazioko agenteari adieraziko zaio zein puntutan geratu behar duen eta zirkulatzeko agindua emango zaio, trena jo aurretik geratzeko moduan.

**538.– Material errodagarri bereziaren zirkulazioa.**

- 1.– Material errodagarri bereziak identifikazio-plaka batean inskribatuta izango ditu baimen-agirian zirkulatzeko zehaztu ziren baldintza eta jarraibide bereziak. Identifikazio-plaka gidariaren kabinan ondo ikusteko moduko lekuan egongo da, halakorik badago; edo ibilgailuaren albo bietan, halakorik ez badago.

Material historikoa ez dago behartuta halako plakarik eramatera, baina kontrol berezia egingo zaio.

- 2.– Trenbidearen zirkuitu-laburra eragiten ez duten ibilgailuek edo gaizki egiten dutenek, gainera, bi alboetan marka hau eramango dute:

**NO SHUNTA**

- 3.– Trenbidearen zirkuitu-laburra eragiten ez duten ibilgailuetako gidariak ezaugarri horren berri emango diote AP-ari, ibilera hasi aurretik.
- 4.– Ibilgailuaren titular den enpresari dagokio identifikazio-plakan adierazitako zirkulaziorako baldintzak beteko direla ziurtatzea. Salbuespen izango dira ibilgailuari ezarritako abiadura-mugak; horiek ibilgailuko gidariak bete beharko ditu.

**539.– Eraketaren berezitasunak.**

- 1.– Honako agindu hauetakoren baten bitartez emango da eraketaren anomalien berri:

- a) Tren motari ez dagokion abiadura duten ibilgailuak eramanez gero:

«Ez du gaindituko \_\_\_\_\_ km/h-ko abiadura»

- b) Nahikoa ez den balaztatze-ehunekoa, luzera handiegia edo masa gehiegi, egokia ez den erregimena, dagozkion baino balazta gabeko ondoz ondoko ibilgailu gehiago edo mota berezi baten gehieneko abiadurak hartzeko gai ez diren ibilgailuak eramanez gero:

«Ez ditu gaindituko \_\_\_\_\_ motaren gehieneko abiadurak»

- 2.– Eraketako ibilgailuen gehieneko abiadura eta abiadura jakin bat duen trenak erabil dezakeen balaztatze-ehunekoa esleitutako abiadura baino goragoko motari badagokio, honako hau jakinaraziko da, aurrez AP-ak baimenduta:

«Ez ditu gaindituko \_\_\_\_\_ motaren gehieneko abiadurak»

- 3.– Gidariak, bere ekimenez, tren mota altxa dezake **2.** puntuko baldintzak agertzen badira. Horren berri emango dio AP-ari, eta treneko dokumentuetan honako hau idatziko du:

“ \_\_\_\_\_ motaren gehieneko abiadurak, \_\_\_\_\_-tik”

- 4.– Gidariak ibilgailu motoreak ezarritako abiadura-mugen berri emango du, eta bere ekimenez beteko ditu.



**540.– Ibileran zehar presio maila jaistea.**

- Ibileran zehar gidaria TFA-ren presioaren maila jaisten dela ohartzen bada, ahalbait azkarren geldituko du trena, zergatia aurkitzeko.
- Ez ditu inola ere balaztak azkar laxatuko.
- Behin trena geldi, osorik doan begiratuko du.

**541.– Gidariaren jardunbidea ibilgailu batean edo gehiagotan balazta automatikoa matxuratzen denean.**

- 1.– Gidariak ibileran zehar bere treneko ibilgailu baten balazta automatikoa anormaltasunik ikusten duenean, gelditu eta mekanikoa edo pneumatikoa den zehaztu eta konpontzen saiatuko da.

Lortu ezean, ukitutako ibilgailu, ardatz zein boggiearen balazta isolatuko du, ahal baldin bada, eta baliotik isolatutako masa balaztatuaren balioa kenduko dio trenaren masa balaztatu osoari. Benetako masa balaztatua zein den jakin ondoren, duen balaztatze-ehuneko berria ezarriko du.

Gidariak ibilerari ekingo dio baina abiadura murriztuko du balaztatze-ehuneko nahikoa duen tren motaren abiadurara, eta AP-ari emango dio horren berri.

Eraginpeko ibilgailua azken ibilgailua bada eta ohiko trena bada, zabalik dagoen lehenengo geltokian eraketa aldatuko da.

- 2.– Balaztatzeari buruzko jarraibideetan adierazitako minimoa baino balaztatze-ehuneko txikiagoarekin geratzen denean, gidariak laguntza eskatuko du eta estazionamenduko balaztak estutuko ditu edo estutzeko aginduko du.
- 3.– Ibilgailuek ez badute errotulaziorik, trenaren titular den enpresak izango du ardura ibilgailu bakoitzaren balaztatzearen balioa zehazteko arauak ezartzeko, bai eta erabiltzen ari ez den ardatz bakoitzeko balaztaren balioa kalkulatzeko prozedura ere, eraginpeko ibilgailuaren masa balaztatua lortzeko helburuarekin.
- 4.– Trena dagokion balaztatze-ehunekoa baino txikiagoarekin geratzen bada, gidariak AP-ari emango dio horren berri, eta balaztatzeari buruzko jarraibideetan ezarritako gehieneko abiadurei jaramon egingo die.

**542.– Ibilgailu motorearen aberia edo ezintasuna.**

Aberiaren batengatik edo ezintasunarengatik aurrera egin ezin duenean gidariak berehala jakinaraziko dio AP-ari eta hark, aldi berean, Tren Enpresari.

### **543.– Matxurak edo hutsak dituzten ibilgailuak.**

Matxuratutako materialak zirkulatzeko bete beharko dituen baldintza bereziak tren enpresek ezarriko dituzte eta azpiegituraren kudeatzaileak aztertuko ditu, zirkulatu ahal izango duela bermatzeko.

### **544.– Huts bidezko edo eskuzko balaztatzea.**

Kontsigna bidez araututa baino ezin izango da ibili huts bidezko edo eskuzko balaztatzedun trenak.

### **545.– Erreserbatua.**

### **546.– Erreserbatua.**

## **VI. TITULUA MANIOBRAK**

### **6.1.– NORABIDEA ETA BURUTZAPENA**

#### **601.– Maniobren norabidea.**

Maniobrak zuzentzea, haien xedeari, helburuari eta egin behar diren uneari eta tokiari buruz beharrezkoak diren jarraibideak ematea da, beste mugimendu batzuekin duten bateragarritasuna edo bateraezintasuna kontuan izanik.

Maniobrak zuzentzea Aginte Postuari dagokio, ondoren adierazten diren preskripzioen bitartez:

- 1.– Maniobrak hasteko eta eteteko baimena ematea.
- 2.– Eman beharreko jarraibideak ematea maniobretarako baimendutako agenteei, eta horiek betetzen direla segurtatzea.
- 3.– Horren eragina jasoko balute, baimendutako trenen mugimenduen, beste maniobra batzuen eta trenbidean edo inguruetan lanak egitearen berri ematea.
- 4.– Maniobren mugimenduak koordinatzea, geltokiko guneei batean baino gehiagotan aldi berean ematen baldin badira.
- 5.– Seinaleek, maniobraren eta egon daitekeen bestelako edozein mugimenduren arteko bateragarritasuna bermatzen dutela egiaztatzea.
- 6.– Beharrezkoa balitz, maniobra gunea gainditzeko baimena ematea.

7.– Materiala aparkatzea baimentzea zirkulazio trenbideetan.

## 602.– Maniobren burutzapena.

Maniobrak egiteko, baimendutako agenteek, maniobra horiek zuzentzeko ardura duen arduradunak emandako aginduak bete behar dituzte, segurtasunerako behar diren bermeeekin.

Tren Enpresek eta Azpiegiturearen Kudeatzaileak, bakoitzari dagozkion jarduketa eremuetan, abaguneetara egokitutako prozedurak ezarri ahal izango dituzte, maniobrak aurrera eraman ahal izateko.

1.– Maniobra egiten duen agenteak preskripzio hauek bete beharko ditu:

- Mugimendua hasi aurretik, Gidariari egin beharreko operazioen berri ematea, eta, beharrezkoa denean, seinaleen bitartez babestuta ez dauden trenbide zirkuituen egoeraren eta toki bakoitzeko berezitasunen berri ematea.
- Maniobrak zuzentzen dituen agenteari, materialean, trenbideetan, orratzetan, kargatan... eta zirkulazioan eragina izan dezakeen edozein instalaziotan ikus dezakeen edozein anormaltasunaren berri ematea. Berak, bere aldetik, hartu beharreko neurriak hartuko ditu.
- Orratzek eta seinaleek, bermatzen dutela beste tren edo maniobra batzuek ez dutela aurreikusitako ibilbidea oztopatzen eta ezin izango dutela oztopatu egiaztatzea, egin beharreko ibilbidea zainduz eta Gidaritzako Agenteari bideratu beharreko seinaleak bideratuz.

Kasu guztietan, geltokiko kontsignan adierazten denera egokitu, kontuan izanik mugimendua seinale finko baten bitartez baimentzen bada, agindu horrek, gehienetan, ezpatatxoaren mugikortasun eza egiaztatzea salbuesten duela.

- Trenbideen arteko piketeak libre daudela eta Aginte Postuetako babeseko gailuak, kaltze finkoak, plakak, zerbitzuko trenbide ebakigailuak eta ibilbidearen eragina jasotzen duten gainerako aparatuak posizio egokian daudela ziurtatzea.
- Mugimendua zaildu dezaketen eskuko kaltzeak kentzea eta zerbitzurik gabeko erdi-akoplamenduak jartzea, beraien euskarrietan.
- Zama lanetan ari diren langileei eta ibilgailuetan zerbitzuan daudenei, maniobra egin behar dela jakinaraztea, mugimenduak, langile horien adostasuna jaso ondoren hasiz.
- Abiarazi beharreko trenetan edo material mozketetan, aparkatzeko balaztak laxaturik daudela egiaztatzea, eta trokatze arrunteko elementuak posizio egokian jarri, eta baita potentzia eta erregimen aldagailuak ere.

2.– Gidariari ondoren adierazten diren preskripzioak betetzea dagokio.

- Maniobretan egiten zaizkion seinaleei adi egotea etengabe. Horretarako, ibileraren noranzkoan lehen tokian dagoen kabinan egon beharko du, edo, maniobraren ezaugarri bereziak direla eta, seinaleak hobeto ikusteko aukera ematen dionean.
- Bat egiteko mugimenduak kontu handiz egitea, batez ere pertsonak daramatzaten ibilgailuak direnean.
- Bultzatuta egiten diren maniobretan berehala gelditzea irрати bidezko komunikazioa hartzeari edo seinaleak aurkezten dituen seinaleak ikusteari uzten zaionean.
- Seinale finkoek horretarako baimena ematen badute ere, ez hasi inolako mugimendurik maniobra egiten duen agenteak agindu gabe, 606. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- Mugimenduak maniobretako ibileran egingo dira.

### **603.– Maniobrak TKN-CTC-dun geltokietan.**

- Maniobrak Aginte Postuak, horretarako dauden gailuen bitartez, baimentzen duenean baino ez dira egingo, eta maniobren ardura duten agenteei, horretan eman ahal izango duten gehieneko denbora eta egin ahal izango dituzten operazioak jakinaraziz.
- Maniobra amaitu ondoren, hori egin duten agenteek normalizatu egingo dituzte orratzak, sarrailak, kaltzeak, giltzak... eta Aginte Postuari jakinaraziko diote, baimena bazter dezan.
- Geltokiko Tokiko Agintea hartu duten Zirkulazioko Agenteek Aginte Postuaren baimena beharko dute MC-ko ibilbidean eragina duten maniobrak egin ahal izateko.
- Horretarako baimenik duen langilerik gabeko egoitzetan aurreikusi gabeko maniobrak egin behar direnean, tren bat hartzeko, ibilbidean dagoen tren bateko ibilgailuak gehitzeko edo banatzeko... trenaren titularra den enpresako baimendutako agente batek egin beharko ditu.
- Baimendutako azpiegitura agenteek maniobren burutzapena hartu ahal izango dute beraien kargura, trenbidean lanak egitera bideratutako materiala denean.

### **604.– Maniobrak 3 mm/m baino beheranzkotasun handiagoko lekuetan.**

Ibilbideen liburuan zehazten diren geltoki zein tarteetan maniobrak honela egingo dira, abaguneen arabera:

- Lokomotora maldaren aldera jarrita.

- Balazta automatikoa jarrita eta zerbitzuan, zati guztian.
- Estazionamenduko balazta behar den heinean zerbitzatuta.

Geltoki batzuetan, kontsigna bitartez, modalitate horiek egin ahal izango dira, eta kasu bakoitzerako prozedura zehaztu.

### **605.– Trenbide pasagunea oztopatzen duten maniobrak.**

- 1.– Maniobretako agenteak, Trenbide Pasagunea gordetzearen arduraren duen agenteari emango dio egingo den mugimenduaren berri, edo babestu egingo du, tokiko akizonamendu gailuen bitartez.
- 2.– Zirkulazio buruak behar dena antolatuko du Trenbide pasagunea errepideko trafikoari hamar minututik hirutan ireki dakion, ibilgailurik zain baldin badago errepidean.

### **606.– Zentralizaturiko maniobrak.**

Maniobra zentralizatudun geltokietan, mugimenduak egin ahal izango dira maniobretako agentea lagunik eraman gabe zein maniobretarako agindurik gabe, baldintza hauek betetzen direnean:

- Maniobretako mugimendu bereziak, katigatutako ibilbidea eta seinale finko baten baimenpekoak badira, eta kontuan izan behar da ez dela ibilbideen burutzapenari eta seinaleen aginduei buruzko informaziorik aurreratuko, arrisku egoerak saihesteko.
- Gidariak hurrengo mugimendua egiteko non jarri behar duen zalantzarik ez duenean, batez ere bultzatu behar badu, edo nola jardun behar duen bereziki zehazten bazaio.

### **607.– Maniobrak urrunetik eragindako orratzekin.**

- 1.– Maniobra hasi baino lehen, maniobra egingo duen agenteak eta orratzei eragingo dienak egitera doazena jakinaraziko diote elkarri.

Behin eta berriro maniobrak egiten diren geltokietan, idatzizko jarraibidean ezarri ahal izango dira.

- 2.– Katigatutako ibilbiderik gabeko seinale finkoekin edo seinalerik gabe egiten diren mugimenduetan, orratzei eragiten dien agenteak, maniobra eta eragin gunearen artean ikusteko zein komunikatzeko modurik badago, egoera horri dagozkion seinaleak egingo ditu ibilbidea ezarrita duenean.
- 3.– Ibilbideko orratzei maniobrak eraman behar duen noranzkoaren aurkakoan eragingo zaizkie.

- 4.– Arrisku bat saihesteko ezean, ez da baimenpeko mugimendurako ezarritako ibilbiderik aldatuko dagokion seinalean aurrera egin badu edo mugimendua hasi badu. Ibilbidearen aldaketa edo horrekin batera egin ezin daitekeen beste mugimendu baten baimena behin maniobra dagokion seinalean geldi dagoela egiaztatu edo gidariari geldi dagoela baieztatzeko deitu eta gero baino ez da egin ahal izango.

## 608.– Irrati bidezko komunikazioa maniobretan.

- 1.– Maniobretan parte hartzen duten agenteen artean irrati bidezko komunikazioa egiteko, irrati aparatu eramangarriak, finkoak edo ibilgailu motoreko irrati-telefonía erabiliko dira.
- 2.– Ibilgailu motoreko irrati-telefonía erabiltzen denean, gidaria beste solaskidearekin komunikatu ahal izango da, maniobra hasi aurretik, AP-ari baimena eskatu beharrik gabe.
- 3.– Mugimenduak hasi baino lehen, maniobretako agenteak gidariari elkar identifikatzeko hitzak esango dizkio, esaterako: «... maniobragunea», «... zenbakiko lokomotora», ...treneko lokomotora”.
- 4.– Aldez aurretik gidariari egin behar diren eragiketen berri eman beharko zaio, 602. artikuluko 1. atalean esaten den bezala, informazio hori ez dela maniobretako agindu gisa hartu behar ohartaraziz. Ondoren, mugimendua aginduko zaio, honako hau adieraziz:
  - Nor den jakinaraziz gidariari.
  - Maniobretako seinaleen araberrako agindua.
  - Behar denean, mugimenduaren jarraitasuna edo zenbaterainokoa den ere zehaztuko du.
- 5.– Bultzatuz egiten diren mugimenduetan, maniobra egiten duen agenteak ahalik eta komunikazio jarraitukoena izango du, transmititu gabeko une luzeak saihestuz, eta batzeko mugimenduetan, “astiro bultzatu” agindua zatien artean zer tarte dagoen zehaztuz osa daiteke. Esaterako, “20 metro, 10 metro, 5 metro, 2 metro”, “3 ibilgailu, 2 ibilgailu, ibilgailu 1”, “gelditu”.
- 6.– Zuzenean komunikatzerik ez dagoenean, bitarteko agente bat erabili ahal izango da, hau kontutan izanik:
  - Maniobretako agentea dela gidariari aginduak zein argitasunak emateko baimena duen bakarra, gelditzeko agindua ezik, hori edozein langilek eman baitezake.
  - Maniobretako agenteak gidariari zuzenean jakinaraziko diola bitartekari bat dagoela.
- 7.– Irratia matxuratu edo ondo funtzionatzen ez duenean, edo maniobretako agenteak etengabe transmititzeari uzten dionean, Gidaritzako agentea gelditu eta jarraibideak eskatu beharko ditu, txistuarekin arreta bereziko seinalea eginez.

- 8.– Irrati aparatuek “hartzeko” posizioan egongo dira beti, transmititzeko behar den denboran ezik.
- 9.– Etengabeko komunikazioa bermatu behar den une kritikoetan, mezua behin eta berriro errepikatuko da, transmisioan egon daitekeen etenik hauteman ahal izateko.
- 10.– Artikulu honetako arauak kontsigna batekin osa daitezke, beharrezko irizten zaionean.

## 609.– Materiala ibilgetzea.

- 1.– Geltokietako trenbideetan aparkatzen diren materiala edo material mozketak, gehienetan, eta une oro, aparkatzeko balaztaren bitartez segurtatuta egongo dira, aipatzen diren salbuespenetan izan ezik:
- Ibilgailuak eta material mozketak, beraiek bakarrik edo beste maniobra batzuen mugimenduak eragindako elkarrekintzak direla eta martxan jartzeko inolako aukerarik ez dagoenean.
  - Lokomotoratik bereiztutako material mozketak. Balazta automatikoaren bitartez ibilgetuko dira.
- 2.– Aparkatzea 60 minututik gorakoa bada edo balazta automatikoa duen ibilgailu bakarra duten mozketak badira, ibilgetua aparkatzeko balaztak estutuz egingo da edo, horrelakorik ezean, kaltzeak jarritz.
- 3.– Geltokietako trenbideetan dagoen materiala kroatuta egongo da, mozketak eratuz, aparkatzeko balaztak estututa, ondoren adierazten diren proportzioen arabera:

Beharzkotasuna (mm/m)	Ibilgetutako proportzioa	ibilgailuen
0-2	50etik bat	
3-5	20tik bat	
6-16	8tik bat	
17-25	5etik bat	
26-30	4tik bat	
30 baino gehiago	Denak	

- 4.– Trenaren titularra den enpresak, itxita dauden bitarteko geltokietan edo zirkulazioko langilerik gabeko TKN-dunetan, trenak edo material mozketak kaltzeen bitartez segurtaturik geratzen direla ziurtatuko du, trenbideen beharzkotasuna bat edo beste izanik ere.
- 5.– Lokomotorek, automotoreek, trenbideko makinek, bagonetek eta antzeko ibilgailuek beraien ibilgetasuna zerbitzuko eta aparkatzeko balaztak estututa izanik eta kabinako ateak giltzez itxita bermatuko dute. Horrez gain, zerbitzuko eta trakzioko balazten aginteak katigaturik izango dituzte.
- 6.– Aparkatzeko balazten eraginkortasuna egiaztatzeko, aurreko lerroaldeko ibilgailuetan trakzio hasiera bat egingo da zerbitzuko balazta askatu ondoren, malguki metatzaileak dituzten ibilgailuetan izan ezik.

7.– Geltokian zerbitzuan dauden langileek era berezian zainduko dute trenbideetan utzitako materiala, batez ere haize indartsuak daudenean eta klimatologiaren baldintzak gogorrek direnean.

## 610 Erreserbatua.

# 6.2.– MANIOBRAK ZIRKULAZIO TRENBIDEETAN

## 611.– Maniobra gunea.

1.– Geltokietan maniobrak egiteko gunea honela mugatuko da, kasuen arabera:

- Sarrerako seinalearekin.

Maniobra gunea laburtu ahal izango da, maniobren muga adierazten duen karteltzarra instalatuz.

2.– Trenbide bikoitz banalizatu gabeko geltokietan, maniobrak irteerako trenbidetik egingo dira normalean, eta ezin izango dira beste trenbideko sarrerako seinaleraino besterik heldu.

Salbuespen gisa sarrerako trenbidetik egiten direnean, maniobren gunea trenbide horretako sarrerako seinaleak mugatuko du.

## 612.– Maniobra gunean aurrera egitea.

1.– Salbuespen gisa, maniobra gunetik kanpo maniobrarik egin behar denean, zirkulazioko agenteak hau egingo du:

- Maniobra egitera doan trenbidetik geltoki horretara trenik ez datorrela ziurtatuko du.
- BT-ko trenbide bakarrean sarrerako trenbidetik maniobratzen denean, ez dio trenbide hori beste tren bati emango harik eta maniobra, maniobren aldera itzuli arte.
- BT-n ez dira trenak abiaraziko ukituriko trenbidetik, maniobra, maniobra gunera itzuli den arte.
- TKN-dun BAD Tokiko Agintean, Zirkulazioko Agenteak telefonema hau bidaliko dio albo-kideari:

**«Ez abiarazi trenik nik esan arte»**



- Telefonema hori jasotzen duen zirkulazioko langileak, aurkakorik ezean, beste honekin erantzungo du:

«Ados trenik ez abiaraztearekin. Abiarazi den azken trenea \_\_\_\_\_izan da, \_\_\_\_\_etan»

- Behin telefonema jasota, eta hala badagokio, maniobra maniobra gunetik irteteko baimena emango du, eta itzultzen denean, albo-kideari telefonema hau bidaliko dio:

#### «Abiarazi ditzakezu trenak»

- Telefonema horiek Telefonemen Liburuan erregistratuko dira.
- Kasuan kasu aurreko preskripzioak bete ondoren, Gidariari irteteko eta maniobra gunera itzultzeko baimena emango dio.

2.– Trenbide bakarrean TKN duten lineetan, AP-ak ez du geltoki albo-kidetik inongo trenik abiarazten utziko maniobra, maniobra gunetik kanpo dagoen bitartean.

3.– Maniobrak hurrengo geltokira heldu ez den tren bat zirkulatzen ari deneko trenbide batean egiten direnean, zirkulazioko agenteak hala jakinaraziko die maniobren ardura duten langileei.

### 613.– Maniobrak baztertzea eta bertan behera uztea.

1.– Arau orokor gisa, trenak sartzeak, irteteak eta igarotzeak lehentasuna dute, maniobrak egitearen aurrean.

Ondorioz, maniobrak baztertu eta bertan behera utziko dira:

- 5 minutu lehenago, sarrerako seinalerik gabeko geltokietan.
- Trenak ez atzeratzeko behar den beste denboraz, gainerako kasuetan.

2.– Maniobrak sarrerako seinaleak babesten dituen geltokietan, trenaren sarrerari barik, lehentasuna, maniobrari eman ahal izango zaio, arrazoirik bada, beti ere trenea sarrerako seinalearen parera hel daitekeen unean maniobra seinale horretatik gutxienez 100 metrora badago.

3.– Alboko trenbideetan maniobrak egiteko baimena Kontsigna bidez luza daiteke, tren batek egin behar dituenarako sarbidea izanik ere, halakoetan:

- Seinale finko batek, maniobratzen egiten ari diren trenbideko irteerako piketea babesten badu.

- Maniobra tiraka egiten bada.
- 10 mm/m-ko beherakada baino gutxiago badago.
- Seinaleak 50 metrora ondo ikusten badira.


4.– Trena sartzen den aldekoaren aurkakotik maniobrak egiteko baimena Kontsigna baten bidez ere luza liteke, seinale finko batek estazionamenduko trenbidearen irteerako piketea babesten badu.

#### **614.– Trenbide hutseko egoitzetarako maniobrak.**


Trenbide hutseko zamalekuetara materiala eramateko eta bertatik ekartzeko, mugimenduak zirkulatzeko, eratzeko, balaztatzeko eta blokeatzeko baldintzak jasotzen dituen Kontsigna baten bidez arautuko dira.

2016ko maiatzaren 2a, astelehena

**ERANSKINA.- BALAZTATZE BULETINAREN ETA IBILERAKO ORRIAREN EREDUAK**

 <b>BALAZTATZE BULETINA</b>															
Tren zk. _____															
Data _____															
GELTOKIAK	Ibilgailu kop.	Balazta mota	Atoiz eramandako pisu osoa	BALAZTATZE AUTOMATIKOA				BALAZTATZE AUTOMATIKOA				OSAKETAREN ARDATZ KOPIURUA			
				BALAZTAREN PISUA		EHUNEKOA		BALAZTAREN PISUA		EHUNEKOA		Balaztarik gabe	Erregimen Or.	Erregimen Ber.	Guztira
Ibilgailuak		Ibilgailuak		Ibilgailuak		Ibilgailuak		Ibilgailuak		Ibilgailuak		Ibilgailuak		Ibilgailuak	
Motoreak		Motoreak		Motoreak		Motoreak		Motoreak		Motoreak		Motoreak		Motoreak	
Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak		Atoiz eramandakoak	
Guztira		Guztira		Guztira		Guztira		Guztira		Guztira		Guztira		Guztira	
Beharrezkoa		Beharrezkoa		Beharrezkoa		Beharrezkoa		Beharrezkoa		Beharrezkoa		Beharrezkoa		Beharrezkoa	
Erabilgarria		Erabilgarria		Erabilgarria		Erabilgarria		Erabilgarria		Erabilgarria		Erabilgarria		Erabilgarria	
TRENAREN ERAGIKETA ATZEALDEAN		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA		TRENAREN ERAGIKETA LAGUNTZAILEA	
AURREALDEAN		AURREALDEAN		AURREALDEAN		AURREALDEAN		AURREALDEAN		AURREALDEAN		AURREALDEAN		AURREALDEAN	
AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA		AURREALDEKO GIDARIA	
PROBA MOTA															
OHARRAK															

2016ko maiatzaren 2a, astelehena

		Izaera _____ Tren zk. _____ Mota _____ _____ eta _____ artean _____ Jatorkia _____ _____ eta _____ artean _____ Jomuga _____ _____ eta _____ artean _____ Data _____ _____ eta _____ artean _____ Data _____			
<b>IBILERAKO ORRIA</b>		Norri asimilatuia			
OSAKETAREN ALDAKETA		OSAKETAREN ALDAKETA			
IBILERA EFEKTIBOA	HASIERAKO OSAKETA		OSAKETAREN ALDAKETA		
	Ibilgailu traktoreak N.º Atoiz eramandako mat.      Atoiz eramandako karga      Pisua Seriea      Zk.      Merkantzia      Pisua		Geltokiaren kodea IBILGAILUA Seriea      Zk.		
ORDUAK	Zergatia	Justifikazioa	N.º		
			Atoiz eramandako karga      Pisua		
Geltokiaren kodea	Iritsiera	Parea	Irteera	Geltokiaren kodea	
				Atoiz eramandako karga      Pisua	
Guztira.....		Gehitua (1) Diferitua (2) Diferitua matxura (3)			
TRENEN LANGILEAK		Oharrak			
C.F. ZK.	IZEN ABIZENAK	DE	A		